ZU HEMEN ZAUDE
# goiena"
2016-11-11 EGUBAKOITZA / 704. ZENBAKIA / 16. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM

+ 

Rebeca Lane abeslariari elkarrizketa

Bizilagunak ekimena: bazkaria, elkar ezagutzeko



## Ikastolatik herrira

Gaur aurkeztuko dute 2017an Oñatin izango den Kilometroak jaia / 5

Txantxiku Ikastolako neska-mutikoak eta irakasleak ikastolako patioan eguaztenean.

JAGOBA DOMINGO

**SINADURAK**


IÑAKI GOITIA / **8**
OLATZ PAGALDAY / **23**
ENEKO FERNANDEZ / **11**
JOSE LUIS MADINAGOITIA / **35**
XABI IGOA / **17**
AGURNE BARRUSO / **48**




**Maider Unda.** XABI URZELAI

# Undak agur esan du

Aramaioko kirolari olinpiarrak utzi egin dio borroka librean lehiatzeari / 38


Baietz 1.000

**Arrasateko Euskalgintzak martxan jarri duen erronkan parte hartzeko prest?**
Mosaiko erraldoi bat egin nahi dugu denon artean; **eguneroko bizitzan euskaraz hitz egin nahi baduzu, bidali zure argazkia eta izena:**

**688 690 017** **baietzmila@gmail.com**

Mosaikoaren ondoren, hamabost egunez herriko merkatariekin euskaraz jarduteko ahalegina egingo dugu. Zalantzak argitzeko, **euskaraz bizitzeko tailerra** egingo dugu **Emunen eskutik** azaroaren 19an, 09:30etik 13:30era, Etxaluzen. Animatu, sariak egongo dira!

**Arrasateko dendariekin ere euskaraz.**

Arrasateko euskalgintza
ibai-arte



Xabier Legorburu –Gizarte zerbitzuak–, Elena Lete –Bergarako alkatea– eta Iñaki Ugarteburu –Kirol zerbitzuak–, azalpenak ematen. U. MADERA

# Udalerri aktiboa, herri osasuntsua

Tokiko udal sareak eratzen dabiltza Debagoienean, sedentarismoa gutxitu eta jarduera fisikoa sustatuta, herritarren osasuna hobetzeko eta hainbat gaitz prebenitzeko helburuarekin. Udalerri Aktiboak ekimenaren baitako proiektua da

**Ubane Madera** DEBAGOIENA

Jarduera fisikorik eza da munduan eta Euskadin heriotza arrazoien artean laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) osasunaren azken inkesten datuen arabera, biztanleen %31k ez dituzte betetzen Munduko Osasun Erakundeak jarduera fisikoaren praktikarako ezartzen dituen gutxienekoak. Eta horrek eraginda, besteak beste, ugaritu dira urteotan hainbat gaitz kroniko: kolesterola, diabetesa, bihotzeko gaixotasunak, artikulazioetakoak…

**Umeen gainpisua ere nabarmen**

Beste datu bat: Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) haurren loditasunaren gainean egindako Pensoi programaren emaitzek ondorioztatu dute Debagoieneko 6-12 urte bitarteko hiru neska-mutikotatik batek gainpisua edo obesitatea duela; zehazki Debagoieneko haurren %37,5ek dute larregiko pisua.

Horren guztiaren jakitun, egoerari buelta eman nahian dihardute Debagoieneko udalerriek zela edo hala. Eta horien artean da Bergarakoa.

**Tokiko Udal Sarea**

Hain justu ere, Eusko Jaurlaritzatik eratorritako Udalerri Aktiboak ekimenaren partaide izanik, oraingo astean Tokiko Udal Sarea eratzeko batzarra antolatu du Bergarako Udalak udalerriko elkarte esanguratsuak

### "AZPIMARRATZEKOA DA ATZETIK DAUDEN ERAKUNDEEN GARRANTZIA"

ELENA LETE, BERGARAKO ALKATEA

### "GAUZA BATZUK EGINDA BADITUGU, BAINA KOMUNIKAZIOA HOBETU BEHAR DA"

IÑAKI UGARTEBURU, KIROL ZERBITZUAK

### "HERRITARREN ERANTZUNAREN ARABERA FINKATUKO DITUGU PAUSOAK "

XABIER LEGORBURU, GIZARTE ZERBITZUAK

gonbidatuta –xehetasunak ondoko zatiduran–.

"Sarearen helburuak komunikazioa hobetzea, koordinazioa eta zabalkuntza lortzea dira; ditugun lan ildoak ezagutzera ematea eta ikustea hobetu edo osatu daitezkeen. Bestela esanda, helburua da ditugun ekimenak/baliabideak mahai gaineratzea eta ikustea daukagun horrek ze etekin duen eta zela izango litzatekeen posible etekina handiagoa izatea; baita ere ikustea ze gabezia dauden (…) Azpimarratu beharra dago ekimen honen atzetik dauden erakundeen garrantzia: Eusko Jaurlaritza, Debagoieneko Mankomunitatea, Bergarako Udala, Debagoieneko ESI eta Kirolaren Euskal Eskola", esplikatu du Elena Letek, Bergarako alkateak.

**Aurrekariak**

"Gauza batzuk eginda baditugu. Baina, akaso, komunikazioa hobetu behar da. Adibidez, Aholkularitza Fisikorako Zerbitzua dugu hiruzpalau urte dela, Kirol Errezeta proiektuarekin lotuta –anbulatoriotik bideratzen dira aholkularitza zerbitzura jarduera fisikoaren bitartez onera egin dezaketen gaitz kronikodun herritarrak– baina nahi baino gutxiago erabiltzen da", zehaztu du Iñaki Ugarteburuk, Bergarako Udaleko kirol zerbitzuko arduradunak. "Eskola Bideak ekimenak –eskolara oinez– ere badu jarduera fisikoarekin lotura…", gaineratu du Elena Lete alkateak.

Eta saretze horretan herritarren iritzia jasotzearen garrantzia azpimarratu du, bukatzeko, Xabier Legorburuk, Udal Gizarte Zerbitzuetako arduradunak: "Oso zabalik egon behar gara herritarren esana entzuteko. Halaxe ondorioztatu genuen, besteak beste, urriaren 28an Bergaran egindako Udalerri Aktiboak jardunaldietatik. Adituek han azpimarratu moduan, nahi baditugu herritarrak inplikatu, eurek nahi dutena kontuan hartu beharko dugu (…) guk proposamen bat aurkeztuko dugu eta ea proposamen horri herritarrek zer erantzuten dioten; hurrengo pausoak horrela finkatuko ditugu".

## Udal sarearen lehen pausoak

"Osasuna horren kontzeptu global eta zabala denez, ez da nahikoa osasun asistentzialarekin hori lantzeko. Beharrezkoa da osasunari ikuspegi komunitariotik ekitea, eta horrek suposatzen du komunitateko eragile guztien lana beharrezkoa dela"; hala esplikatu zuen Tokiko Udal Sareak osatzearen garrantzia Elena Albisua bergararrak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariordeak. Astelehenean azaldu zuen hori Bergaran, ekimenaren aurkezpen prentsaurrekoan. Albisuarekin batera izan zen Andoni Arzelai, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) zuzendaria: "Euskal osasun-sistema dago ESIak osatzea helburu duen estrategian murgildua, eta hainbat ekimen jarri duena abian osasun komunitarioaren eremuan –erorketak prebenitzeko tailerrak, tabakoaren kontrako ekintzak, jarduera fisikoa, Pensoi….– Toki mailako esku-hartze hauek bultzatzen dituen sinergiak sorraraztea da gakoa, gerora beste agente batzuk sartzeko prozesuan (…) azken batean, Tokiko Osasun Sareak deritzonak osatzea da bidea", esplikatu zuen Arzelaik.

Aurkezpenaren ondotik etorri zen Bergarako elkarteekin batera egindako lehen batzarra, sarea osatzekoa. Bertan parte hartu zuten Bergarako erretiratuen San Josepe elkarteko ordezkariek, ASPACEkoek, Martxanterek, Katxalinekoek, ikastetxe guztietako ordezkariek, Pol-Polekoek , Bergara Kirol Elkartekoek, Jardunekoek eta Caritasekoek. Guztien artean erabakiko dute zela eta zer egin, jarduera sutatuta, bergararrak osasuntsuago izateko.

**Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere bai**

Bergaran orain osatzen diharduten sare hori –beste izen batekin– eskualdeko bestelako udalerrietan ere osatuta dago. Aretxabaletan, adibidez, Atxabalta Mugi izena du eta hainbat ekimen abian ditu; Eskoriatzan ere badihardute lan horretan



Bergarako sarearen lehen batzarra, astelehenean. AMAIA TXINTXURRETA

# "102 milioi euro pasako fakturazioa daukagu"

**JOSEBA SAGASTIGORDIA** GARAIA BERRIKUNTZA GUNEKO ZUZENDARIA

Garaia Berrikuntza Guneak ate irekien jardunaldia egingo du bihar, zapatua, herritar guztiei zuzenduta. Gaur egun gunea osasuntsu dagoela adierazi du zuzendariak.

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Ate irekien jardunaldiak aprobetxatuz, berrikuntza gunearen egoeraz hitz egin du zuzendariak.

**Zer moduzkoa da Garaiaren egoera gaur egun? Ze eboluzio izan du azken urtean?**

Garaia Berrikuntza Gunea ekimen publiko-pribatuko proiektu bat da, eta 2007ko abenduan ekin zion bere bideari, parkeko eraikin nagusia inauguratu zenean. 2008tik aurrera ezarri ziren lehendabiziko enpresak, bai partzela teknologikoetan, bai eraikin nagusian. Jarduerari dagokionez, pixka bat motelduta egon da, arlo ekonomikoko sektore guztiei eragin dien krisiaren ondorioz. Hala ere, gaur egun oinarri teknologikoko 30 enpresa baino gehiago daude bertan, 102 milioi baino gehiagoko fakturazioarekin, eta ekosistema horren inguruan lanean 800 pertsona baino gehiago ari dira.

**Parte-hartzea ona da?**

Azken ekitaldian antolatutako ekintzetan 10.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute, eta kopurua handituz doa urtetik urtera. Horrek guztiak plataforma ireki bihurtzen du Garaia, lurraldera irekitzeko ikuspegiarekin eta eskaintzen dituen kalitatezko zerbitzuei balioa emanda. Izan ere, zerbitzu horiek dira Parke Teknologikoaren elementu bereizgarria ekosistema honetara hurbildu nahi duten enpresen eta teknologien sarearentzat.

**Epe labur edo ertainera begira, ze helburu ditu?**

Dagoeneko bi urte daramatzagu ekosistema hoberena eta desberdina eraikitzen, ezagutza sortzeko eta ezagutza hori produktu eta zerbitzu berri bihurtzeko. Aukerak sortzen ditugu sustapena lantzen duten hurbileko inguruneetatik, eta lankidetzazko dinamikak babesten ditugu, gure lurraldeari eta gure espezializazio sektoreei begira.



Joseba Sagastigordia Garaia Gunean. GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

**"AZKEN EKITALDIAN ANTOLATUTAKO EKINTZETAN 10.000 PERTSONA INGURUK HARTU DUTE PARTE"**

Ildo horretan, epe laburrerа, proiektuak gauzatu eta hazkunde endogeno bat dagoela ikusten eta egiaztatzen ari gara, hurbileko pertsona eta enpresetatik *starts ups* eta *espin off*-ak sortzen. Arlo horretan, azken hiru urteetan, urteko hazkunde maila %15ekoa izan da, eta ezagutza eraikitzen eta sortzen jarraitu nahi dugu, hemendik hiru urtera eraikin zentral guztiak okupatu arte.

**Eta luzera?**

Inbertitzeko aukerak irudikatzen ari gara, Parke Teknologikoaren inguruan ditugun espazio fisikoetan bermatuta. Eraikitzen ari garen ekosistema eta lehentasunezko industrialde batean kokatuta gaudela kontuan hartuta, ohartu gara kokagune estrategikoa ondo neurtu eta bultzatu beharreko elementua dela. Ildo horretan, proiekzio internazionalagoa izango duen bigarren etapa bat irudikatzen ari gara.

**Ze helburu dute biharko ate irekiek?**

Jardunaldi hau Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astearen baitan sartzen dugu. Ekintza hori 2001. urteaz geroztik egiten da Euskadin zein Europan, eta bere helburua da Euskadiren gaitasun zientifiko-teknologikoak erakustea gizarteari eta iritzi publikoari. Horrez gain, zientzia eta berrikuntza gehiago sustatuko dituen ingurune sozial bat sortzea ere bada helburua, produkzio eredua aldatzeko eta ezagutzan oinarritutako gizarte bat lortzeko bidean. Guk bat egiten dugu egitasmo horrekin, eta, maila lokalera ekarri nahian, uste dugu lehentasunezkoa dela parkeko enpresen egunerokotasuna eta lana gure inguruneari hurbiltzea eta ezagutaraztea, gure kokagunea biltzen duen ingurune naturala ahaztu gabe.

**Beraz, bihar bertara hurbiltzeko dei egingo diezu herritarrei.**

Zalantzarik gabe. Jardunaldian parte hartzera animatzera bultzatzen ditut herritar guztiak, edozein adinetakoak direla ere.

# Tokiko komunikabideen jarduna balioan jarriko da astelehenean

Garaia Gunean egingo diren jardunaldiak komunikazio arloan diharduten profesionalei zuzenduta egongo dira

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Azaroaren 14an, astelehena, egingo dituzte toki komunikabideen gaineko jardunaldiak, Tokikom Toki Komunikabideen Bateraguneak antolatuta.

"Komunikazio arloan eta, batez ere, tokiko komunikazio arloan diharduten profesionalei zuzenduta egongo dira jardunaldiok", azpimarratu du Alaitz Artolazabalek, Tokikomeko zuzendariak. "Profil ezberdinetako jendeari zuzenduta daude, baina, betiere, komunikazioaren sektoreak bizi duen aldaketa honetan berritzaile edo berrizale izan nahi dutenei: kazetariak, komertzialak edota teknologia berrien inguruan buelta bat ematen ari direnak", zehaztu du.

Gaineratu du, batez ere, bi helburu izango dituztela jardunaldiok: "Batetik, euskarazko toki komunikabideek egiten duten lana balioan jartzea, eta, bestetik, etorkizunean ere balio hori eskaintzen jarraitu ahal izateko nolabaiteko gakoen gainean hausnarketa bat egitea", azaldu du.

Edukiari dagokionez, azpimarratu du oso saio "dinamikoak" izango direla, eta eguneroko gauzetan zentratutako esperientzia praktikoak eta adibideak jarriko direla mahai gainean.

**EGUNEROKO GAIAK ETA ADIBIDEAK IZANGO DITUZTE HIZPIDE, OSO SAIO DINAMIKOETAN**

**Askotariko profesionalak**

Toki komunikabideen munduan diharduten hainbat profesionalez gain, beste arlo batzuetan adituak diren profesionalak ere egongo dira asteleheneko jardunaldian eta askotariko gaiak landuko dira. "Teknologia berrien eta mugikorretarako estrategien eta negozio ereduen gainean jardungo dute eta publizitate eredu desberdinak ere izango dira hizpide", azpimarratu du Artolazabalek.

**Tokikom sariak**

Aurkeztutako 104 lanak hiru kategoria ezberdinetan sarituko dira: azal onena, eduki onena eta ikus-entzunezko onena.


ORDAINDU

# Ordaindu, Legebiltzarrean

Iker Casanova EH Bilduko legebiltzarkidearekin batzartu zen martitzenean Ordaindu. Bilera "probetxugarria" izan zen, kaltetuen plataformako kideen esanetan. Alderdi politiko ezberdinekin biltzen ari da; orain arte, Podemosekin, PSE-EErekin eta EH Bildurekin batu da eta aurrerantzean EAJrekin eta PPrekin ere harremanak izan gura ditu plataformak.



Testigua Bergaratik Oñatiko plazara iritsi zen unea. KILOMETROAK

# Txilioka, irrintzika... ikastolatik herrira

Gaur aurkeztuko dira Kilometroak 2017ko leloa eta logoa, herriko hainbat taldek parte hartuko duten irekiera ekitaldian; ikuskizuna 20:00etan izango da, Zubikoa kiroldegian. Gaurkoarekin emango zaio hasiera ekintzaz betea datorren urteari

**Miren Arregi** OÑATI

Gaur, egubakoitza, emango zaie hasiera urte guztian iraungo duten Kilometroak 2017ko ekintzei. Dakizuen moduan, Bergarako Aranzadi Ikastolak Oñatiko Txantxiku Ikastolari utzi dio lekukoa eta hark izango du datorren urteko Kilometroak antolatzeko ardura. Gaur, Zubikoa kiroldegian 20:00etan egingo den ikuskizunean aurkeztuko dira Kilometroak 2017ko leloa eta irudia; hori ikusteko ateak 19:30ean zabalduko dira.

**Leloa eta irudia, auzolanean**

Uztailean hasi ziren Txantxiku Ikastolan Kilometroak 2017k helarazi gura duen mezu horretan pentsatzen. Behin leloa erabakita, irudia lantzen hasi ziren hiru ikasle ohi: "Xanti Ugartek, Amaia Martinez de Arenazak eta Ander Etxanizek landu dute irudia, ildo komunikatiboa aintzat hartuta", adierazi du Kilometroak 2017ko koordinatzaile Malen Ugartek. "Leloak eta logoak bat egitea garrantzitsua den arren, are funtsezkoagoa da ildo komunikatiboa transmititu gura den horren bueltan eraikitakoa izatea", erantsi du. Hala, Oñatiko Kilometroetako logoak eta leloak auzolana dute oinarrian. Auzolana, baina baita elkartasuna, irekitasuna, parekidetasuna eta aniztasuna.

Eta, hain zuzen ere, horiek dira gaurko ikuskizunean irudikatuko diren balioak: "Besteak beste, Oñatiko kultura, euskara, anaitasuna eta elkarrekin lan egiteko dugun indarra irudikatuko ditu ikuskizunak", dio zuzendari Iban Idigorasek. Horretarako, antzerkia, musika, dantza eta ikus-entzunezko euskarriak erabiliko dira. Eta gaineratu du: "Gaur, oihu, irrintzi eta deiadar egingo dugu, honek horrela jarraitu dezan, euskaraz, ikastolatik herriarendako".

**50. urteurrena ere bai**

Argi dago 2017a ospakizunez eta erronkaz betetako urtea izango dela Oñatiko Txantxiku Ikastolarendako, Kilometroak jaiaren ardura izateaz gain, 50. urteurrena ospatuko baitu. Hain zuzen ere, gaurko ekitaldian, Txantxiku Ikastolaren 50 urteotako ibilbidearen bilakaera irudikatuko da; esaterako, hasierako urteetako zailtasunak eta pedagogikoki izan duen bilakaera, gaur egun martxan dagoen Konfiantzaren Pedagogiaren garaira iritsi arte.

**Helburuak, pedagogikoak**

Aipatu moduan, Oñatiko Txantxiku Ikastolak 50 urte beteko ditu oñatiarrei eta bailarako herritarrei zerbitzua eskaintzen. Hartara, gaur egungo zerbitzu horien ezaugarriak gizarteratu eta etorkizuneko proiektuak bermatzeko ahalik eta babes ekonomiko handiena lortu gura du. Aitor Guridi presidenteak adierazi du "gaur egungo eta etorkizuneko proiektu pedagogikoak bermatzeko" baliatuko dela ateratzen den dirua. Ildo beretik, gaineratu du: "Proiektu horiekin herriko hezkuntza zerbitzuak aberastea dugu helburu. Horien artean garrantzitsuena martxan ipini dugun Konfiantzaren Pedagogia dugu. Konfiantzaren Pedagogia proiektuak berrikuntza ugari egin beharra ekarri dio ikastolari. Espazioaren antolaketa aldatu behar izan dugu eta ikastolaren beraren elementuak eta planteamendua aldatu behar izan ditugu".

**Lan ildoak, oinarri**

Aipatu moduan, auzolana, irekitasuna, parekidetasuna eta aniztasuna dira Kilometroak 2017ren lan ildo nagusiak eta gaur aurkeztuko diren leloa eta logotipoa xede horien isla garbia izango dira. Balio horien gainean honela jardun du Kilometroak 2017ko koordinatzaile Malen Ugartek: "Auzolana dago oinarrian, batetik, gazteen artean galtzen dabilen lan egiteko modu bat dela uste dugulako, eta, beraz, interesgarria ikusten dugulako, horrelako jai bat biziko duten heinean, auzolana eta horrek dakarrena praktikan ipintzea". Eta gaineratu du: "Garatuko den proiektu berria auzolanean eraikitzea ezinbestekoa da. Hezkuntza komunitate barruan egingo den lanetik abiatuta, herriko beste eragileekin lankidetza lortzea, guztion parte hartzearekin, euskaren eta herriaren alde lan egiteko".

**AUZOLANA IZANGO DA ILDO NAGUSIA ETA HORI DAGO LELOAREN ETA IRUDIAREN OINARRIAN**

# Debagoieneko II. Postre Lehiaketa, azaroaren 19an

Baserritarren azoka bereziarekin batera egingo da, gure gastronomiaren eta produktuen sustapena egiteko

**Miren Arregi** DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak, Deba Garaia Landa Garapenerako Elkarteak eta Arrasateko Udalak bigarrenez antolatu dute postre lehiaketa. 26. Jardunaldi Gastronomikoen baitan egingo da azaroaren 19ko baserritarren azokarekin batera. Kategoria bi bereiziko dira: lehena 18 urtetik gorakoena eta bigarrena 12 eta 17 urte bitartekoena. Esandako moduan, azaroaren 19an egingo da lehiaketa, Arrasateko Baserritarren azoka bereziarekin batera. Postreak norberak egindakoak izango dira eta gutxienez honako osagai hauetatik bi eduki beharko ditu: bertako hurrak, intxaurrak, gaztainak, sagarrak eta eztia.

Lehiaketan parte hartzeko aurrez eman behar da izena eta parte hartzaile kopurua mugatua izango da. Izena emateko epea azaroaren 15ean bukatuko da. Helbide honetan egin dezakezue hori: *turismo@debagoiena.eus.*



Iazko postre lehiaketa, Seber Altuben. GOIENA

# "Kultura politiko berri bat da behar duguna"

**IÑAKI LIZUNDIA** ZOHARDIAKO EKINTZA POLITIKOKO ARDURADUNA GIPUZKOAN

Birfundazio prozesuan dago Sortu alderdia, eta aro berrirako 'Zohardia' da aurkeztu den ponentzia bakarra. Zuzendaritza ekipoko kide da Eskoriatzako Iñaki Lizundia.

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Sorturen birfundaziorako arrazoiak eta *Zohardia* ponentziaren nondik norakoak azaldu ditu zerrenda horretan Gipuzkoako ekintza politikoko arduradun gisa azaltzen den Eskoriatzako Iñaki Lizundiak.

**Zeintzuk dira *Zohardia* ponentziaren lehentasun nagusiak?**

Gizartean neoliberalaren sekulako ondorioak pairatzen ari gara, bai norbanako moduan, baita herri bezala ere. Herri bezala momentu honetan erantzuna motela izaten ari da, eta prozesu independentista blokeo egoeran dago. Bidegurutze horren aurrean, bi aukera daude: inertzia horretan jarraitzea edo burujabetzaren aldeko lan eraginkorra egitea. Horretarako, bere burua ezker abertzalean kokatzen duen orok ideia horien alde borroka egiteko marko bat izan behar du. Erakunde berri bat behar da, egungo ereduak ez duelako ezker abertzalearen



Iñaki Lizundia. SORTU

zabalera osoa hartzen. Era berean, erakunde horrek burujabetzarako bidea landu behar du.

**Burujabetza, zertarako?**

Burujabetzaren helburua da herritarrendako estatu duina lortzea, eta egungo egoera latzari herri moduan erantzutea. Izan ere, orain arte herri gisa erantzunak oso motelak izan dira.

**Globalizazioaren aurrean jendarte alternatibo bat lortu nahi duzue.**

Erronka handia da, baina beharrezkoa. Bestela, nork bere burua salduta aurkitzen du. Erantzun kolektiboa beharrezkoa da. Prozesu honen bidez jendea ahaldundu egin nahi dugu eraldaketa gauzatzeko.

**Nola gauzatuko duzue erantzun kolektiboa emateko batasun hori?**

Gehiengoa osatzeko bidea, batetik, esan bezala, pertsonak ahalduntzea da. Eta prozesu hori gure nazioaren izaera konfederala kontuan hartuta burutuko dugu. Hiru errealitate edo banaketa instituzional daude Euskal Herrian: Ipar Euskal Herria, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa deritzona. Uste dugu horietako bakoitzean egin behar dela prozesu bat gehiengoa lortzeko, betiere, erreferentzia nazionala presente izanda.

**Beste alderdi eta eragileekin elkarlana baliatuko duzue?**

Bai. Azken finean, lehentasun nazionalak konpartitzen ditugunok elkartu egin behar dugu. Helburua da subjektu politiko bat lortzea eta esatea eskubidea daukagula guk erabakitzeko. Dagoeneko bidean zenbait pauso eman dira; Nafarroako aldaketaren gobernua, esaterako. Kultura politiko berria behar dugu, demokrazian, jendearen ahalduntzean eta elkarlanean oinarritua. Behetik eta horizontaltasunez eraiki behar da herria. Horretarako, gure apustu sendoak dira EH Bildu eta EH Bai.

**Erresistentziatik egitasmora pasatzea da zuen helburua.**

Ezker abertzaleak ezin du haizea mugitzera mugatzen den haizegailu bat izaten jarraitu. Haize berria sortzeko fasera salto egin behar dugu. Horretarako, gure eskemetatik atera behar dugu. Izan ere, egia da batzuetan konformista bihurtu garela.

## Sorturen birfundazio prozesua

Birfundazio prozesua hasi du Sortu alderdiak.

Prozesuan zehar ponentzia (Otegi buru duen *Zohardia* izan da aurkeztu den bakarra) eta Zuzendaritza Ekipoa barne hauteskunde bidez aukeratuko dute (bai, ez edo zuri bozkatuta). Horretarako, *sortu.eus* webgunean izena eman behar da. Horrez gain, eztabaidarako batzar irekiak antolatuko dituzte herrietan.




Bergarako aurkezpena. T. MADINA

**Batzar irekiak bailaran**

Oraingoz, eztabaidarako hiru gune zehaztu dituzte Debagoienean, hirurak ere azaroaren 19rako. Arrasaten 10:30ean Kulturaten egingo dute; Bergaran 10:00etan Aranzadi Ikastolan; eta Oñatin 10:00etan Arrano elkartean.

Birfundazioa urtarrilaren 21ean bukatuko da, Donostian egingo den kongresu nazionalean. Kongresu hori streaming bitartez zuzenean jarraitzeko aukera izango da, 10:30ean hasita.

# Erizaintzako laguntzaileendako ikastaro berria Arizmendin

Arlo teorikoa eta praktikoa uztartuko dituen 300 orduko ikastaroa da, eta langabeei zuzenduta dago bereziki

**Goiena komunitatea**

Arizmendi Ikastola

*Erizaintzako laguntzaileentzako psikiatrian espezializazioa* izeneko Lanbide Heziketako ikastaro berri bat emango dugu Arizmendi Ikastolan. Erizaintzako laguntzaileak buruko gaitzetan espezializatzea, ospitale psikiatrikoetako lanetan aritzeko prestatuago egoteko.

Erizaintzako zaintza osagarrietako teknikariei eta mendekotasuna daukaten pertsonei etxean eta gizarte erakundeetan osasun arreta emateko ziurtagiria dutenei zuzenduta dago, bereziki langabezian daudenei.

Azaroaren 28tik otsailaren 6ra bitartean arlo teorikoa landuko dute eta otsailaren 7tik martxoaren 10 arte, arlo praktikoa. Denera, 300 ordu izango dira.

Interesatuak Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketarekin harremanetan jar daitezke 943 772025 – 4322 telefonoetara deituaz edo *lanbide@arizmendi.ikastola.net* helbidera idatziaz. Informazio gehiago *arizmendipro.eus* webgunean.




M.T.

# Garbitzaileak greban

Aste osoan zehar greban daude Euskal Herriko Unibertsitateko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako garbiketa azpikontratako langileak. Gipuzkoan, %90ek baino gehiagok egin dute bat deialdiarekin. Martitzenean Deba bailarako elkarretaratzea egin zuten Arrasaten. Soldaten igoera eta lanaldi partzialak oso bilakatzeko negoziaketak martxan jartzeko eskatzen diote enpresari.

# Kezkaz eta jakin-minez AEBetara begira

AEBetako presidentetzarako hauteskundeak Donald Trump-ek irabazi izanak zalantza, ziurgabetasuna eta, askorengan, larritasuna piztu ditu. Mundu globalizatu honetan, AEBetako gertaera garrantzitsu guztiek eragina dute debagoiendarrongan ere


Asier Barrainkua. PMK


Eduardo Zubiaurre. GOIENA


Iñaki Galdos. GOIENA


Dabid Lazkanoiturburu. NAIZ

**Leire Kortabarria** DEBAGOIENA
Ulma Packaging-eko ingeniaria da Asier Barrainkua aretxabaletarra. Berak gehienbat AEBetako enpresatako pertsonekin du harremana eta "Trump-zale gehiago" aurkitu ditu Clinton-zale baino. Hala ere, aurkitu izan dituen Trump-zale guztiak "konbentzituta zeuden ez zuela irabaziko". Orain, bere esanetan, "ezegonkortasun aldia etorriko da bi arrazoirengatik. Bat, politikatik kanpo datorren norbait denez, bere egiteko erak eta bere lengoaia, estandar politikoa kontutan hartuta, oso desberdinak direlako. Bi, bere proposamenek politikoki, sozialki eta ekonomikoki aldaketa handiak planteatzen dituztelako".

Trump-ek agindutakoa aurrera eroaten badu, "protekzionismo eredu batera eramango ditu AEBak". AEBekin salmenta-harremanak dituzten enpresendako –Debagoienekoak tartean– "ondorioak negatiboak izango dira hara saltzeko aukerak gutxituko direlako".

Eduardo Zubiaurre enpresaburuak "denbora" behar dela uste du zer gertatuko den ikusteko: "Ikusteko dago bere hurrengo pausoak zeintzuk izango diren, bere gobernatzeko modua, bere lan-ildoak… Kanpainan zehar gauza konkretu gutxi esan du". Eman diren mezu alarmisten aurrean, lasaitasun mezua ematen du: "AEBak herrialde garatua eta demokratikoa da; gauzak ezin dira izugarri aldatu. Eta horrez gain, ikusi beharko da Trump benetan zer egiteko gai den".

AEBetako euskaldunekin harreman handia duen Iñaki Galdosek honako hau dio: "Grafikoak eta mapak berriz errepasatzeak sortzen didan haserrea eta nazka areagotu ez daitezen, nahiago dut aurrera begiratu eta agintaldi berrian gerta daitekeenaren inguruan dauzkadan galderei erantzunak aurkitzen saiatu. Kanpainan zehar iragarritako astakerien artean zeintzuk saiatuko da Trump betetzen eta zeintzuk geratuko dira ahohandiaren *boutade* huts gisa? Balio izango du katastrofe honek alderdi demokratan beharrezko berrikuntzaz at, benetako katarsia egiteko? Konpentsatuko al dute hiritarrek 2018ko legealdi erdiko hauteskundeetan, orain senatuan eta kongresuan dagoen oreka falta? Zein izango da honen guztiaren eragina euskal ekonomian? *Post tenebras spero lucem*, dio latineko esaldi zaharrak. Betor argia lehenbailehen iluntasun jasanezin hau gainditzeko!".

## "AGINDUTAKOA EGITEN BADU TRUMP-EK, PROTEKZIONISMOA EZARRIKO DU"

Nazioarteko informazioan aditu den Dabid Lazkanoiturburu kazetariaren iritzia hauxe da: "Magnateak hauteslego errepublikaren boto fidela ia-ia osorik mantendu du eta AEBen egoera sozioekonomikoarekin haserre dauden hainbat langileren eta herrialdearen aldaketa demografiko eta kulturalen aldaketak onartu nahi ez dutenen babesa jaso du. Trumpek azken sektore hauei kanpainan zehar egin dizkien promesak kontutan hartuta, argi dagoena zera da, bere legealdia eskuinerako bidai luze eta kezkagarria izango dela. Kongresua errepublikanoen menpe egonik, Obamaren neurri aurrerakoiak, gutxi izan badira ere, atzera botako ditu. Gainerakoan –hori guztia gutxi balitz–, ez da aldaketa gehiegirik espero. Munduko finantzek ere lasai hartu dute bere garaipena. Trump bera ez baita fenomeno berria, errepublikanoen bilakaera arriskutsuaren muturreko adibidea baizik. Azken finean, AEBen krisi politikoa, errepublikanoena baina baita ere demokraten barnekoa, agerian utzi duen hautagaia".

SANMILIXANAK
XXIV. ESKULANGINTZA FERIA
LEINTZ GATZAGA 2016
AZAROAK 13 IGANDEA
10:00
14:30

Antolatzailea:
LEINTZ GATZAGAKO UDALA

Laguntzaileak:
SORGINAK Gatzaga

Zeramika tailerra haurrentzat
11:30 - 14:00

Bisita gidatuak Gatz Museoan
11:00 / 12:00 / 13:00

Autobus zerbitzua (PESA)
ESKORIATZA-GATZAGA:
09:20, 10:05*, 10:55, 11:50*, 12:55, 13:50*, 14:55, 15:50*
GATZAGA-ESKORIATZA:
08:45, 09:40*, 10:25, 11:15*, 12:15, 13:15*, 14:15, 15:15*, 17:15*
*Eskaripeko zerbitzua:
Deitu ordubete lehenago 900 12 14 00 zenbakira



## Txertoak: osasuna ala negozioa?

**JOSU GARITAONANDIA**
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Gripearen aurkako txertoa hartzeko aholkatzen digute autoritateek.

Bada, hemen botako dut datu bat: 2015ean 22 pertsona hil zituen gripeak eta horietatik zortzi txertoa hartu barik zeuden; niri, zalantzak sortzen dizkit datu horrek.

Beraz, txertoa hartutako hamalau pertsona hil dira; horrek frogatzen du hobe dela txertoa hartzea?

Gizarte kontsumista eta diruzale batean bizi gara; lehentasuna dirua da eta gero, osasuna, eta ez da nire iritzia bakarrik.

Nobel saridun Richard J. Roberts-ek adierazi du industria farmazeutikoen helburu nagusia dirua irabaztea dela; mediku horren arabera, industria horiek ez dituzte finantzatzen gaixotasun bat osa dezaketen ikerketak; izan ere, gaixotasun hori kronifika ditzaketen ikerketak bultzatzen ditu.

Hau da, gaixotasun bat osatzea ez da negozioa; sendagaia saltzen dute, eta kito, osatuta.

Hobe da –industria farmazeutikonedako, noski– sendagai bat hartzen duzun bitartean gaixotasunaren sintomak hobetzea, baina sendagai hori hartzeari lagatzen diozunean, berriro ere gaixotasun sintoma horiek gogortzea.

Hori da, hain zuzen ere, gaixotasuna kronifikatzea; alegia, gaixoak bizi guztirako sendagai baten menpe edukitzea, negozioa ona baita industria horiendako.

Herrialde txiroetan, diru gutxiago dute sendagaiak erosteko, eta medikuntza alternatiboak indar handiagoa hartzen du, merkeagoa delako eta pertsona bere osotasunean aztertzen duelako, lehen helburutzat osasuna ipinita.

Nikaraguako etsenplua hor daukagu: orain dela urte batzuk, legea aldatu egin zuten, eta gaixoek aukeratu egin dezakete zer medikuntza mota nahi duten, baina garrantzitsuena da jarraipen ofiziala egiteko aukera ematen duela.

Estatistikak izango ditugu, eta jakingo dugu zein medikuntza mota den onena.

Gripearen aurkako txertoaren gaiari dagokionez, estatistika zorrotzak edukitzea garrantzitsua da, ez baitakizkigu txerto hori hartzeagatik beraien osasuna larriki txarrera egin dutenen kasuak, eta nik neuk, behintzat, ezagutzen ditut kasu batzuk txarto pasatu dutenak txertoa hartu ondoren.

Hobe zuhaitz gehiago, txertoak baino.

## Nagusiak

**ANGEL ERRO**
HTTPS://GOO.GL/RUPI5O

Nagusiak izugarriak izaten dira.

Zuzendu ahal dizute modurik arbitrarioenean. "Badakit bestela egin behar omen dela, baina nik nahiago dut honela".

Soldatarik gabeko harreman sanoaren plantak egiten dituzte, aginduak emanda ere.

Zurekin "kontu batez" hitz egin nahi dute, esaten dizute serio, bulegora agertzeko etxera joan aurretik, baina ordua iritsita ahantzi zaie hitzordua, ezin dute, eta bilduko zaretela astelehenean, burutik pasatu gabe atseden egun parea suspensezko amesgaizto bilakatu dizutela, eta burutik igaro bazaie, zer esan.

Nagusiak izugarriak dira.

Bada, errukizko gezur gisa, bere buruarentzat lan egiten duela esaten duenik: langile beregainak. Haien nagusiak are izugarriagoak izaten dira, ezin baitituzte identifikatu.

Frantzian lege bat ezarri dute 50 langiletik gorako enpresetan nagusiek lanorduetatik kanpo langileei mezuak –e-mailak, eta abar– bidaltzea debekatuz. Neurri ona.

Lagun batekin afaltzen ari nintzela, nagusiak idatzi zion zalantza bat argi ziezaion, hurrengo egunera arte itxaron zezakeena baina, antza, gizonari loa galaraziko ziona. Ohikoa omen zen.

Nik pikutara bidaltzeko aholkatu nion, baina nola ez erantzun.

Hegoaldekoa da laguna eta enpresa txiki batean egiten du lan.

Jarraituko zaio jakia hozten.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus


Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

### AHOLKULARITZAK

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**GARRAILAN**
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.eus

### ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



ZABALIK

**IÑAKI GOITIA** GOIENA.EUS/KOMUNITATEA

# Neuk baneki...

Nola jokatu behar du gizakiak? Zertan oinarritu beharko lituzke bere ekintza moralak?

Etika kantiarra genuke eginbeharretan funtsatzen diren teoria etikoen paradigma eta "zer da ekintza moral bat?" galderari erantzuten dio.

Honen aburuz, ekintza bat morala da baldin eta soilik baldin Inperatibo Kategorikoari men egiten badio. Honela, lege unibertsalaren formulari jarraikiz, gure maxima lege unibertsal bilakatzea nahiko genukeen eran baino ezin dugu jokatu. Azken beltzean, borondatearen etika dugu kantiarra, ez die erreparatzen ez bertuteei ezta ekintzen ondorioei ere. Teoria honi egin ahal zaion kritikarik zorrotzena bi betebehar kontrajartzeak sorrarazten digun dileman datza.

**NAHI ETA NAHI EZ, GARAIAN GARAIKOA ETA LEKUAN LEKUKOA BEHAR DU IZAN, NONBAIT**

Bertuteen teorian oin hartzen duenak, bestalde, "nola bizi behar dut?" galderaren inguruan dihardu. Zer da, baina, bertute bat? Eta nola erantzuten du denboran eta espazioan? Nahi eta nahi ez, garaian garaikoa eta lekuan lekukoa behar du izan, nonbait.

Halere, badirudi muturreko bi bizioen erdiko orekan koka genezakeela bertutea. Erlatibisten eta pluralisten baimenarekin, betiere.

Azkenik, ekintzaren ondorioetan oinarritzen den teoria etikoak utilitarismoan du adibiderik garbiena. Utilitate-printzipioa betetze aldera ekintza jakin batek bazterrean uzten duena baino alternatiba zoriontsuagoa ekarri beharko liguke.

Baina teoria honek ere badakar berekin kritika: maiz ia ezinezkoa zaigu ekintza baten ondorioen jakitun izatea, eta plazeraren eta minaren arteko bereizketa ere nahiko lausoa da.

Gauzak horrela, baliteke existentzialismoak aldarrikatzen duen giza esentziaren gabezian eta norbanakoaren askatasunean egotea giltzarria. Arrazionalismo batetik irrazionalismo batera salto eginez, gure hautu moral indibidualek gizaki oro konprometituko duten preskripzioa lortzeko bidean. Besterik ez.

MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** GOIENA.EUS/KOMUNITATEA




ZEUK ESANA

## Zer deritzozu hildakoen errautsak zabaltzea debekatzeari?

**JAIME ORONA**
BERGARA

Hildakoak aita santuarenak dira, ala?

Ba, hori uste du hark, nonbait.

Nire iritziz, norberaren hautua da hil ostean bere gorpuarekin zer eta nola egin erabakitzea.

Zera, ematen zuen aita santu honek aurrerapausoak emango zituela, baina, bistan denez, Elizan gauzak ez dira askorik aldatzen. Bueno, bai, gauzak aldatu dira, baina txarrerako.

**ELIZA OI!**
OÑATI

Eliza, etxe barruan dituen arazotzarrak konpondu beharrean, besteoi aginduak ematen. Primeran.

Aita santuak noiz esango digu zer jan behar dugun? Noiz esango digu okelarik ez jateko eta belarjale bihurtzeko?

Eliza, oi, oi!

**PIO ERRAUSTEGI**
OÑATI

Ni neu Arantzazu aldean izan naiz pare bat aldiz, familiako baten eta lagun baten errautsak botatzeko ekitaldietan. Eta esan beharra daukat oso une hunkigarria dela. Potea zabaldu eta aske uztea errautsak. Zer hoberik, baina?

Eta, hara, nor eta aita santua etorri behar, hori gaizki dagoela esateko eta debekatzeko. Hau bakarrik falta genuen Elizarengandik!

Beti ari dira Elizarekiko errespetua eskatzen, baina Elizak ze errespetu erakusten du besteekiko? Nirekiko, zero patatero.

**HURRENGO ZENBAKIAN: DUELA URTEBETETIK HONA, ZILEGI DA OINORDEKOTZATIK SEME-ALABAK APARTATZEA; ZER DERITZOZU?** Iritzia emateko posta elektronikoa: *berriak@goiena.com* / Webgunea: *goiena.eus.*

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA
*www.goiena.eus*

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.
**Erredaktore burua**
Ubane Madera.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Goiatz Arana.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura), Leire Kortabarria (Ekonomia).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

# "Erantzukizun handiko ohorea da 'jakitun' izatea"

**JESUS MARI LAZKANO** MARGOLARIA ETA JAKIUNDEKO KIDEA

**Mireia Bikuña** BERGARA

Gaur, egubakoitza, azaroak 11, urteko bigarren batzarra egingo du Jakiundek. Bi *jakitun* berri izendatuko ditu. Horietako bat da Jesus Mari Lazkano margolaria (Bergara, 1960).

**Apiriletik dakizu *jakitun* izango zinela, baina gaurkoa duzu lehen batzarra. Zer moduz zaude?**

Urduri, baina gogotsu. Ezustean jaso nuen eskaintza. Jakiundeko kide izatea ohorea da. Are gehiago, bergararra izanda. Baina, era berean, erantzukizun handiko konpromisoa da.

**Jabier Agirresarobe, Bernardo Atxaga, Paco Etxeberria, Pedro Miguel Etxenike, Iñaki Goirizelaia, Mari Carmen Gallastegi... Izen handiak dituzu alboan.**

Zientzia, artea eta letrak batu gura dituen akademia izanik, arlo ezberdinetako ordezkariak gaude. Oso aberasgarria izango da eurekin lan egitea. Nire ekarpenak egingo ditut, baina beste iturrietatik edateko aukera ere izango dut. Arte-sorkuntzan eta pentsamendu kritikoan ospetsuak diren hainbat pertsona biltzen ditu erakundeak eta horko parte izatea ederra da. Denon ekarpenekin gauza berriak sortu behar ditugu.

**Zein izango da zure ekarpena?**

Nire asmoa asko ikastea da. Akaso, sorkuntza mailako ordezkari gutxi gaude eta horren alde lan egin beharko nuke, baina, apurka-apurka. Pausoz pauso.

**Zein da *jakitun* baten lana?**

Bide laburra egin dut eta akaso ez naiz pertsonarik aproposena horri erantzuteko [Barre]. Baina, esango nuke nork bere alorreko ezagutzak eta jakituriak mahai gainean ipini, zabaldu eta besteen laguntzarekin ezagutza humanistikoa eta zientifikoa bultzatu eta indartu behar duen pertsona dela. Hiru bide ditugu zehaztuta: Erronka, Jakin mina eta Topaketak.

**Lanerako zer-nolako dinamika daukazue Jakiunden?**

Urtero bi batzar egiten dira: apirilean bata eta azaroan bestea. Hor izendatzen dira kide berriak.

**Jakiundeko kide bai, baina lanean jarraitzen duzu. Zer daukazu esku artean?**

Ekainean Artikora joango naiz beste artista batzuekin, gai eta inspirazio bila. Yate batekin ibiliko gara glaziar artean.

**Urriaren 16ra arte egon zen ikusgai *Ikusmira* Donostian. Nolako harrera izan du?**

Oso ona. 50.000 lagunek ikusi dute nire bizitzaren laburpena egiten zuen erakusketa. Iritzi onak jaso ditut. Eskerrik asko guztiei; bereziki, Bergaratik Donostiara joandako lagunei eta herritarrei.



Jesus Mari Lazkano, Busturiako etxean . JOSU BILBAO

ITURRI ONETIK

## Memoriaren Plaza Arrasatera

Memoriaren Plaza Arrasatera helduko da azaroaren 28an. Eusko Jaurlaritzaren ekimena da –Gogora Institutuaren bidez–. Arrasateko Udalarekin elkarlanean helduko da Debagoienera. Hiriburuetan eta hainbat herritan egon da dagoeneko. Udaletxeko plazan karpa bat jarriko dute astebetez. Bertan antolatuko dira hainbat hitzaldi, biktimak protagonista izango dituena.

Biktimen testigantzak ikus-entzunezkoen bidez entzuteko edota testigantzak partekatzeko aukera izango dute karpara sartzen direnek.

GORA ETA BEHERA



ARRASATE PRESS

## Erakundeen babesa, orain 25 urte bai eta gaur egun ere bai

Astelehenean, Tokikom Jardunaldiak egingo dira Arrasaten. Orain dela 25 urte egin ziren halako lehenak; horiek ere Arrasaten, *Arrasate Press* aitzindariaren jaioterrian. Orduan moduan, orain ere erakundeen babesa txalotzekoa da, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa eta Arrasateko Udala dira-eta bidelagun, besteak beste.

HAU BE BADOGU!

## #electionnight eta #Trumppresident



Ameriketako Estatu Batuetako hauteskundeek guztiz bete dituzte sare sozialak aste honetan. Martitzenean, hauteskunde egunean, *#electionday* eta *#electionnight* izan ziren traol erabilienak, eta, Trumpen garaipenaren ondoren, harridura mezuak nagusi izan dira, *#trumppresident* traola *trending topic* bilakatuta.

## Xalbador bertsolaria, gogoan Twitterren



Iragan astelehenean, azaroaren 7an, 40 urte bete ziren Fernando Aire *Xalbador* Urepeleko bertsolaria zendu zela.

*@euskalirratiak*: "Bere omenaldi egunean zendu zen duela 40 urte Xalbador".

*@FranckDolosor*: "40 urte betetzen dira gaur Xalbador zendu zela, baina Urepeleko artzainaren mezua bizi bizirik dago oraindik *#AgurEtaOhore"*.

## Maider Undaren erretiroa hizpide

Borrokalaria *trending topic* izan da. Hona hemen kirol munduko txio batzuk:

*@IraiaIturregi*: "Kirolari eredu bikaina. Zorionak zure ibilbide izugarriagatik eta ohore".

*@sugoiuriarte:* "Kirol munduko Handi bat erretiratu da, onena opa dizut Maider Unda" (itzulita).

*@almudenacid:* "Eskerrik asko zure borrokagatik, Maider Unda" (itzulita).



Anporretako haizelako ikatz laginek konfirmatu dute XI. mendean burdin aktibitatea zegoela Arrasaten. ENEKO AZURMENDI

# Anporretan aurkitutako haizeola XI. mendekoa da

Arrasate Zientzia Elkartekoek egindako aurkikuntza arkeologikoak frogatu du 1262ko dokumentuetan ageri zen burdin aktibitatea existitu zela, eta, gutxienez, idazkiak baino bi mende lehenago burdina lantzen ari zirela

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Arrasateko burdin tradizioa noiztik datorren frogatzeko urrats garrantzitsua egin zuten irailean Arrasate Zientzia Elkarteko kideek, Anporretako tontor inguruan antzina burdina egiteko erabiltzen zen labea aurkituta. Balio arkeologiko eta historiko handia izan zezakeela uste izan zuten aurkikuntza egiterakoan, eta bertako ikatz laginei egindako karbono-14 probak hori frogatu berri du.

**Gutxienez XI. mendekoak**

Haizeola noizkoa den jakiteko aurkitutako arrasto fosilak Miamiko Beta Analytic laborategira eraman zituzten. Bertan egindako probek zera frogatu dute: %98ko probabilitatearekin 1020 eta 1160. urtekoak direla, eta %68ko probabilitatearekin XI. mendeko azken herenekoak izan daitezkeela.

Aurkitzaileen arabera, litekeena da aztertzera eramana dituzten laginak haizeola horretako azken labealdikoak izatea. Hala, ezin daiteke jakin burdinarekin lotutako aktibitatea zein garaitan hasi zen, baina ziurra da, behintzat, XI. mende amaiera aldera existitzen zela.

## GIPUZKOA MAILAN ONDOEN KONTSERBATZEN DEN HAIZEOLA DA ANPORRETAKOA

**Arrasateko lehen idazkiei tiraka**

1262. urteko idazki baten arabera, Sara baserri inguruko biztanleek eskutitz bat idatzi zioten Alfontso X.a erregeari, bertan lortutako burdinak Arrasateko burdinoletan lantzeko eskatuta. 1260. urteko Arrasateko Magna Cartaren ostean, hau da Arrasate aipatzen den bigarren idazkirik zaharrena.

Pista dokumental horri jarraiki, burdina lortzeko labeen bila hasi ziren duela lau urte. Azken urtean Euskal Herriko Meatzaritza Museoko Josu Etxezarraga eta Xabier Alberdi arkeologoen laguntza izan zuten. Hainbat saiakeraren ostean, irailean, Anporretako tontor alboan, aurkitu zuten horrenbeste denboran zehar topatzen aritutako haizeola historikoa.

Aurkikuntza honi esker, 1262. urteko proba dokumentala egiaztatu dute, eta, bide batez, bertan aipatzen den burdin aktibitatea, gutxienez, bi mende aurreragokoa dela frogatu dute.

**Haizeola berezia**

Aurkitutako haizeolak baditu hainbat berezitasun. Lehenik eta behin, Gipuzkoan aurkitu direnen artean ondoen kontserbatuta dagoena da.

Josu Etxezarragak eta Xabier Alberdik Bizkai aldean aurkitu dituztenen aldean, 100 urte zaharragoa da, nahiz eta teknika antzerakoak erabiltzen zituen. Tamainari dagokionez, Bizkaikoak baino txikiagoa da. Besteek metro inguruko altuera zuten eta Anporretakoak, aldiz, 40 zentimetroren bueltakoa.

Anporretan aurkitutako haizeolaren datazioak bat egin du Legazpi aldean aurkitutako beste haizeolaren albistearekin. Otaňu mendiaren alboan aurkitu zuten abuztuaren bukaeran, eta haren karbono-14 probak antzerako datazioak eman ditu. "Ostiral goizera arte Anporretakoa Euskal Herrian aurkitutako laberik zaharrena zen, baina ostiral arratsaldean jakin genuen, Legazpiko lagunek esanda, parekatuta gabiltzala, XI. gizaldikoak direlako biak. Hala ere, hau ez dugu lehiaketa bat bezala planteatzen, ea nor den haizeola zaharrena aurkitzen duena. Hasieratik gure helburua Arrasateko bigarren idazkirik zaharrena egiaztatzea zen. Pozik gaude helburua lortu dugulako eta herriarentzat garrantzitsua delako", azaldu du Bengoak.

**Labe gehiagoren bila**

Aurkikuntza historiko nabarmena izan den arren, Arrasate Zientzia Elkartekoak gehiago aurkitzeko gogoz daude. Arrasaten dagoen zepategi kopuru handia ikusita, ziur daude era honetako haizeola gehiago daudela. "Zepategia baldin badago, esan nahi du nonbaiten labe bat egon dela minerala urtzen. Guk daukagun informazio baten arabera, Udala aldean era honetako beste instalazio bat egon daiteke. Ziurrenik, negu honetan, natura pixka bat makurtzerakoan, ikustera joango gara, eta, beharbada, datorren udan miaketa lanak hasi genitzake", adierazi du Bengoak.

## Fusilatuei omenaldia

1936ko gerran fusilatutako 39 arrasatear omendu zituzten zapatu goizean, Hernaniko kanposantuan egindako ekitaldia xumean.

Bertan omendutakoen senitartekoez gain, udal ordezkaritza ere izan zen Hernanin: EAJko Maria Ubarretxena eta Ibon Arrupe,eta EH Bilduko Eneko Barberena eta Itxaro Artola.



GOIENA

## ARRASATE IRRATIA

### Hainbat sarrera zozketatzeko

Entzuleok, adi, datorren astean hainbat sarrera zozketatuko ditugu-eta *Igo autobusera* saioan. Eguenean Liher taldeak Kooltur Ostegunetan eskainiko duen saiorako eta barikuan *La del soto del parral* zarzuelaren lehen asteburuko eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Eskoriatzako ikuskizunerako.

### Datorren asteko protagonistak

Baserritarren azaroko azoka dela, hilero legez, Marga Garmendia Enplegu eta Toki Garapenerako Mankomunitateko arduradunaren bisita izango dugu *Igo autobusera* saioan (astelehenetik egubakoitzera, 10:00etan). Horrez gain, Liher talde donostiarrean abesten duen Libe Hernando elkarrizketatutako dugu egueneko saioan.

# Erasoa gaitzetsi dute Udaleko alderdi guztiek

Egubakoitzean batzokiaren aurrean bi langile lanetik irteten zeudenean hiru pertsonak pintura gorria bota izana salatu dute udalbatzako bost taldeek; egileen arabera, EAJk TTIP izeneko "eraso neoliberala" babesten du: "Ez zen gure asmoa inor zikintzea"

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

Egubakoitz gauean hiru pertsonak batzokiari eta bertako bi langileri pintura gorriko poteak bota zizkietela salatu zuen EAJk zapatuan. Jeltzaleek erabat baztertu eta salatu zuten erasoa eta horrelako gertaerak berriro ere ustez gaindituta zegoen garaira garamatzatela adierazi zuten. Gaineratu zuten horrelako jokaerek ez dutela inolako lekurik herri demokratiko baten eta ulertezina dela, euskal gizarteak bakea eta bizikidetza sendotzeko urratsak egitea eskatzen duelako. EAJk nabarmendu zuen, errespetu falta izateaz gain, horrelako gertaerak bizikidetzaren aurkako erasoa direla, eta berretsi zuen, bakean eta bizikidetzan oinarritutako etorkizuna behar duela herri honek.



Pote gorriak eta langile zaurituak irudikatzen zituzten panpinak bota zituzten. GOIENA

### Alderdi politikoen erreakzioak

Batzokiaren eta bertako langileen aurkako erasoak gainerako alderdietan ere eragin ditu erreakzioak. EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik batzokiaren kontrako erasoa gaitzetsi zuten ohar bidez. Adierazi zuten ez dutela protestaren modua konpartitzen, bereziki honek lokaleko bi langileri zuzenean eragin diolako.

Erasoarekin batera, Europaren eta AEBen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena ere salatu zuten. Hiru talde horien arabera, merkataritza akordioak herrien subiranotasunaren aurkako erasoa dira, langileriaren eskubideen aurkako eta ingurumenaren aurkako erasoa.

### Bozeramaileen batzorde berezia

EAJk Bozeramaileen batzordea deitu zuen astelehenerako eta EAJren, EH Bilduren, PSE-EEren, Baleikeren eta Irabaziren artean adierazpen bat adostu zuten: "Bi langile lanetik irteten zeudenean gertatu zen erasoa salatu eta gaitzesten dugu, eta langileei gure elkartasuna adierazi. Herritargoak eskatzen duen elkarbizitza eta bakearen bidean oztopoak jartzen dituzte halako ekintza ulergaitzek. Etorkizuna elkarrekin eraikitzeko bidean errespetua eta elkarbizitza oinarri izan daitezen lanean jarraituko dugu".

**"ATEA IXTEN HASI ETA BEREALA HASI ZIREN PINTURAZ BETETAKO BOTILAK BOTATZEN"**

### Erasoaren egileen ikuspuntua

Erasoaren egileen arabera, pintura gorriz eta langile zaurituak irudikatzen zituzten panpinekin, nahiz azalpen panel batekin, EAJk langileen prekarietatean eta TTIP akordio neoliberalean duen erantzukizun latza irudikatu nahi izan zuten.

Egileek ohar bidez gaineratu dutenez, ez zen euren asmoa inor zikintzea eta EAJren kontakizuna manipulazio hutsa dela adierazi dute: "Ekintza egiten ari ginen unean, kasualitatez, batzokiko langileak ei ziren bi pertsona irten ziren atetik. Batak azkar egin zuen alde batera, eta bestea atean geratu zen. Mugitzeko esan zitzaion arren, metro batzuetara lehertutako pintura poto baten zipriztinek, tamalez, zikindu egin zuten".

### Erasoa jasan zuenaren bertsioa

Bestalde, batzokiko jatetxeko arduradun Agurtzane Martiarenak -erasotuetako batek- gertatukoaren berri eman du ohar bidez: "Eman diren bertsioak ikusi eta gero, niri gertatutakoa kontatu nahi nuke. Lana bukatu eta nire lankidea eta biok tabernatik irtetera gindoazela, atea zabaltzean, hiru pertsona ikusi genituen aurpegia estalita zutela. Lurrean botata trapuzko bi panpina, eskuetan pankarta bat zuten eta lurrean kaxa baten pinturaz betetako kristalezko botila batzuk. Atea ixteko aukera ematea eskatu nien, batek inolako trabarik jarri barik baietz esan zidan, baina ixten hasi eta berehala hasi ziren pinturaz betetako botilak botatzen. Goitik behera zikindu ninduten, atetik giltza atera eta berehala alde egin genuen handik".



1.000 argazkidun mosaiko erraldoirako parte hartu duten hiru herritar. IMANOL SORIANO

## 'Baietz 1.000': mosaikoaz gain, merkatariekin euskaraz egitera

Dendariekin hamabost eguneko kanpaina egingo dute; azaroaren 19an, euskaraz bizitzeko tailerra Etxaluzen

**J.B.** ARRASATE

Arrasateko euskalgintzak abiatutako *Baietz 1.000* kanpaina bigarren fasean sartuko da. Lehen fasean 1.000 argazkirekin osatutako mosaiko erraldoia egiteko erronka zehaztu zuten eta oraindik aukera dago argazkia eta izena bidaltzeko. Nola? 688 690 017 telefono zenbakira Whatsapp bidez edota *baietzmila@gmail.com* helbide elektronikora e-postaz. *Photocall* ibiltarian ere atera ahalko dira argazkiak: azaroaren 12an Herriko Plazan (19:30-21:00), azaroaren 15ean Herriko Plazan (13:00-15:30) eta azaroaren 17an Etxaluzen (16:30-19:30). Bigarren fasean, euskaraz bizitzeko gogo hori aktiboki erakutsi nahi dute antolatzaileek, hamabost egunez herriko merkatariekin euskaraz jarduteko ahalegin berezia eginda: "Ahalegin horretan, zalantzak sortuko zaizkigu: solaskideak euskaraz ba ote daki? Ulertu bai baina hitz egiteko gauza ez bada, zer egingo dut?".

Zalantza horiek guztiak argitzeko aukera egongo da azaroaren 19an, Emun kooperatibak Etxaluzen eskainiko duen euskaraz bizitzeko tailerrean (09:30-13:30).



NIRE USTEZ

**ENEKO FERNANDEZ**

## Beldurraren aliatuak

Zapatuan, Seberon lagun batekin elkartu eta bizikleta aparkatu nuen. Gero beste lagun batekin... Etxera oinez etorri eta astelehenera arte ez nuen bizikleta faltan bota. Ez da lehen aldia... Hau burua hau! Aitortuko dut, gainera, giltzarrapo barik ibiltzen naizela sarri.

Malasiako hotel baten lo egonik nire logelan sartu eta motxila osoa lapurtu ondoren edo Kolonbian laban bat lepoan jarri zidatela aintzat hartuta, nola ez dut bizikleta giltzarrapoz betetzen eta gauetan etxeko atea giltzaz ixten? Ba nahiago dudalako bakean eta lasai bizitzea, bost urtean behin bizikleta bat galdu arren, mesfidantzaz bizirauten ibiltzea baino.

Beldurrak bere funtzioa du, noski, baina neurririk hartzen ez bazaio, kontsumismoa areagotzeaz gain, pertsona okerragoak bihurtzen gaituela uste dut. Zenbat gauza erosten ditugu, badaezpada? Zenbat politika injustu onartzen dira gure ondasuna babeste aldera? Baliteke hau publikatzerako, Trump izatea presidente, horrelakorik ez litzateke inoiz gertatuko beldurraren fenomenorik gabe.



Langileak, aspalditik hilda zegoen zuhaitza kentzeko unean. IBON CARMONA

# Kendu dute hilda zegoen Arbolapetako haritza

2015eko otsailean Italiatik ekarritako haritza ez da ongi egokitu, eta, udaberrian egindako txosten baten arabera, handiegia zela landatu zen. Hura ordezkatzeko, Udalak beste haritz bat jarriko du, parte hartze prozesuan herritarrek erabaki bezala

**Xabi Gorostidi** ARRASATE
Otsailean Italiatik inportatu zen arbola berria ezin izan da ingurune berrira egokitu, eta aspalditik hilda zegoen. Asteazkenean kendu zuten Parques y Jardines Abadiano enpresako langileek. 15-20 minutuan egin zuten, eta astean zehar jausitako euriak lana erraztu zien.

Udalaren asmoa beste haritz bat landatzea da, modu horretan, azken galdeketan parte hartu zuten herritarren iritzia errespetatzeko.

**Berria, txikiagoa**

Guztiz zehaztu gabe dagoen arren, arbola berria 2017ko otsail inguruan landatuko da. Hala, hiruzpalau hilabetez ez da zuhaitzik egongo Arbolapetan.

Azken landaketako arazoak berriz ez gertatzeko, landatuko den haritz berria aurrekoa baino txikiagoa izango da, hobeto sustraitu dadin.

Udaberrian arbolaren egoeraren gaineko txosten bat egitea erabaki zuen Udalak. Horretarako, zuhaitz berria jartzeko orduan erabili zuten Gabriel Iguiñiz aditua aukeratu zuten. Txosten horretan, landaturiko arbola sustraitzeko handiegia zela aipatzearekin batera, klimatologia aldetik ere ez zela urte ona izan gaineratu zuen adituak.

**Ibilbide laburra**

Gaur erretiratu den arbola otsailaren 21ean jarri zen. Aurretik, Udalak Gabriel Iguiñiz adituari Arbolapeta gunearen gaineko azterketa bat egin zezan eskatu zitzaion, zuhaitz berria landatu aurretik ikusteko gunea bera zer egoeratan dagoen eta, bide batez, berton landatzeko espezierik aproposenak zeintzuk izan zitezkeen zehazteko. Azterketa egin ostean, herritarrei hiru zuhaitz moten artean aukeratzeko aukera eman zieten: gaztainondoa, ezkia eta haritza. Udalaren webgunean galdeketa egin ostean, herritarrek Italiatik ekarritako haritz bat landatzearen alde egin zuten.

**BESTE HARITZ BATEK ORDEZKATUKO DU ETA 2017KO OTSAILEAN JARTZEKO ASMOA DUTE**

**Arrasateren ikurra**

Horren aurretik, XX. mende hasieran Canuto Aranzabalek landatutako Indiako gaztainondoa zegoen. 114 urtez iraun zuen zutik eta herriko ikurretako bat bihurtu zen, denborarekin hondatuz joan zen arte.

Egoera txarrean egoteagatik eragin zitzakeen segurtasun publiko arazoak zirela eta, 2015eko urriaren 29an ebaki egin zuten zuhaitza. Astebete geroago egin zuten, herritar talde batek zuhaitzari agur ekitaldia egitea eskatu zuelako. Txalapartarekin, txistulariekin eta aurreskuarekin egin zioten agurra.

## Kiroldegira Lurraldebus eta Mugi txartelekin sartzeko aukera

Helburua da pixkanaka banda magnetikodun txartela alde batera uztea eta bi txartel horiekin ordezkatzea

**X.G.** ARRASATE
Gaur egun Musakolako kiroldegiko 5.100 erabiltzaileek bi modu dauzkate bertara sartzeko: hatz marka sistemarekin eta banda magnetikodun txartelarekin. Gehien erabiltzen dena 2015ean jarritako hatz marka sistema da, 3.000 erabiltzailerekin, eta gainontzekoek txartela erabiltzen dute.

Haiei zerbitzu hobea eta erasoagoa eskaintzeko asmoz, eguneroko bizitzan erabili ditzaketen garraio txartelekin sartzeko aukera emango die Kirol Zerbitzuak.

Horretarako, lehen pausoa Mugi eta Lurraldebus txartelak balioztatzea izango da, modu honetara kiroldegira sartzeko beste txartelik ez erabiltzeko. Behin hau eginda, bi baldintza bete beharko dira: lehenik eta behin, mugikortasun txartela nominalak izan beharko dira. Norberaren izena eta argazkia eduki beharko dute, eta karga sistema hutsekoek ez dute balioko. Horrez gain, txartel hauek erabiltzearen alde egiten dutenek kiroldegiko sarreran jakinarazi beharko dute txartela aktibatu diezaieten.

**Kiroldegiko kantxa itxita**

Bestalde, datorren asteko astelehenetik egubakoitzera bitartean kiroldegiko kantxa itxita egongo da hobekuntza lanak egiteko.

Bi esku-hartze egingo dira: alde batetik, hiru larrialdi irteera berri jarriko dira. Bestetik, bi saski berri jarriko dira entrenamenduetarako eta saskibaloi pista margotuko dute. Udal zerbitzu teknikoek ahalegin berezia egin dute lanak batera egiteko eta eragozpen ahalik eta txikienak izateko.

## Egitarau mamitsua izango du azaroan Gaztetxeak

Domeka euritsuak alaitzeko, zine emankizunak, bidaia tertuliak, kontzertuak eta feminismoaren aldeko jaialdiak izango dira hilabeteko honetako egitarauko protagonistak.

Zineari dagokionez, aurreko domekako *El viento que agita la cevada* eta azaroaren 20an emango duten *Agenda oculta* filmak aukeratu dituzte.

Bidaia tertulien lehen saioa azaroaren 16an izango eta Georgia izango dute hizpide. 23an Greziako Chios errefuxiatuen kanpalekuari buruz mintzatuko dira eta 30ean, aldiz, Brasilgo MST mugimendua.

Zapatu honetan, RIP taldetik falta diren kideak omentzeko kontzertua izango da eta hilaren 26an, aldiz, jaialdi feminista. Poteo girotua, bazkaria, antzerkia, parranda, zuzeneko musika eta aldarrikapena izango dira eguneko osagai nagusiak.

## Bihar egingo dute Ibai Arte Elkartearen festa Herriko Plazan

*Zatoz Ibai-Arterekin plazara!* lelopean jaialdia antolatu du Arrasateko Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak biharko, zapatua, 19:30ean.

Elkarteko saltokietan erosketa egin osteko erosketa-txartel bat daramatenei pintxo eta ardo kopa bana emango zaio. Ondoren, Ekitaldia RocKalean ikuskizunaren txanda izango da eta sorpresa, musika eta giro atsegina izango dira.

Ekintza honen bitartez, bezeroen fideltasuna saritu nahi izan dute festaren antolatzaile diren dendariek."Herritarrak saritu eta eskertu nahi dira urtean zehar Arrasateko merkataritza eta zerbitzuen sektorean erakutsitako fideltasunarengatik. Gure helburua da merkatariak eta herritarrak jai giroan gerturatzea, non guztiak ongietorriak izango diren", adierazi dute antolatzaileek.

# "Arrasateko elizateak hasi gara aztertzen"

**IOSU ETXEZARRAGA** ARKEOLOGOA

Arkeologo donostiarrak Iragana Astintzen hitzaldi zikloaren bosgarren edizioan hartu zuen parte. Meatzerreka eta Garagartza auzo inguruetan indusketak egin ditu.

**Ibon Carmona** ARRASATE

Iosu Etxazarraga donostiarrak herriko elizen gaineko hitzaldia eskaini zuen martitzenean Kulturateko aretoan. Saioa Arrasateko Zientzia Elkarteak antolatutako Iragana Astintzen hitzaldi zikloaren barruan sartu zen. Donostiako arkeologoak herriko ermiten kokalekuaren zergatia frogatu nahi izan zuen, bere doktore tesiaren arabera, aurretikako populazio batean justifikatzen dena.

**Hitzaldian elizateen gainean hitz egin zenuen; izan ere, zure helburua Arrasateren sorreraren gaineko azalpenak ematea izan zen.**

Bai, halaxe da. Orain arte historialariek XIII. mendetik aurrerakoa aztertu dute, gehienbat; hau da, hiribildua sortu zenetik aurrerako historia. Hortik atzerakoa ikertzeko, garai hartakoak diren dokumentu bakanak batu ditut. Dokumentu horiek oinarri hartuta, elizategien nolakotasuna eta eboluzioa aztertu ditut, Arrasate hiribildu izan aurretik, bertan bizi ziren herritarren gaineko hainbat hipotesi planteatuz.

**Ermiten garrantzia azpimarratzen duzu. Zergatik?**

Erdi Aroko lehen zatiko datu arkeologikoak ezagutzen ez zirenean, gipuzkoarrak nomaden antzera bizi zirela pentsatzen zen. Orain, aurrerapenak izan dira arkeologia arloan, eta hainbat datu berri agertu dira. Datu horiei esker, jendearen aztarnak hainbat parrokiatako eta ermitetako hilerrietan topatu direla erakutsi da. Aurkikuntza horiek oinarri hartuta, aurten Arrasateko elizateak hasi gara aztertzen Zientzia Elkartearekin batera. Horrek ez du esan nahi aztarnak aurkituko ditugunik; hala ere, XII. mendearen aurretik, elizateak populazioaren oinarri zirela jarraitzen dut pentsatzen.



Iosu Etxezarraga. IBON CARMONA

**Hemen inguruan, bi ermita izan dituzue aztergai. Zeintzuk?**

Alde batetik, Meatzerrekako auzunean dagoen San Balerio ermitan aritu gara lanean. Bestetik, garai batean Lezetxikiko kobatik gertu zegoen San Bizente baseliza inguruan ere indusketa ezberdinak burutu ditugu. Azken honetan askoz errazagoa izan da lan egitea; izan ere, ez da eraikinaren arrastorik geratzen, eta guk lan egiteko lurra desegitea beharrezko daukagu.

**Momentu arte zer esan dezakezue egindako indusketen gainean?**

Oraindik ez dugu aurkikuntza ikaragarririk lortu, baina bide onetik goazela ematen du. Izan ere, egindako indusketetan XIII. mende inguruko zeramikak aurkitu ditugu. Oraingoz dakiguna da garai hartan zerbait egon zela inguru horietan. Egindako lanak oraindik maila txikikoak direla kontuan izanik, ikerketak lanean aurrera egiteko aukera ematen digu.

**Beraz, bi ermita horietan lanean jarraitzeko intentzioa duzue.**

Hasiera baten, bai. Hala ere, San Balerion zailagoa izango da; izan ere, bertako ingurua nahiko aldatua dago. Ermitako ataria berreginda dago eta inguruan baserri bat dago.

## 'Udazkeneko jaialdia' Al-Andalus elkarteak antolatuta

Elkarte arrasatearrak zapatu eta domeka bitarteko egitaraua prestatu du. Aurten, gainera, jaialdia Euskadiko andaluziar elkarteen federazioak antolatutako jardunaldi kulturalekin bat dator, eta domekan, federazioa osatzen duten etxe bakoitzeko ordezkaritza egongo da egunean zehar antolatutako ospakizunetan.

Kultur zentroko ekintzei dagokienez, zapatuan 19:30ean Alegria de la Sierra taldeak emanaldia eskainiko du. Ondoren, afaria egingo dute, eta 23:30etik aurrera, dantzatzeko denetariko musika egongo da. Domekan, berriz, eguna 12:30ean hasiko dute Farae federazioko etxe ezberdinei egingo zaien ongietorriarekin. Jaialdia amaitzeko, 13:00etan Lourdes Oncala sevillana eskolaren emanaldia egongo da eta 17:30ean Galanes taldearen flamenko kontzertua.

## Bakarrizketa saioa Sexologia Zerbitzuaren eskutik

Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak antolatuta, *Busco novio formal, que marido ya tuve* bakarrizketa antzeztuko da gaur Kulturateko Areto Nagusian. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da. Taula gainean arituko den antzezlea Isabel Azpiroz iruindarra izango da, genero berdintasun arloan lan egiten duen Equala aholkularitza taldeko kidea.

Broma eta egoera barregarrien artean eguneroko bizitzaren berri ematen da. Protagonistak bere ezkontzaren, elkarbizitzaren, banaketaren, eta abarren pasarte ezberdinak kontatuko ditu, horretan oinarrituz, ezkongai formal berria nolakoa eta zergatik nahi duen azalduz. Kulturateko aretora bertaratzen direnek 45 minutu inguruko bakarrizketa umoretsuaz gozatzeko aukera izango dute.

## Baleikek zarzuela ikusteko sarrerak zozketatzen ditu

Baleike taldeko zinegotziek kargu publiko izateagatik ematen diren pribilegioei uko egin izan diete. Horren adibide da pasa den urteko uztailean Udalak eskainitako garaje plazei eman zieten ukapena. Aparkatzeko plazez gain, udaletik iritsi zaizkien zine eta antzerki emanaldietarako sarrerak ere ukatu izan dituzte. Batzarrean erabaki eta gero, Podemosen Arrasateko zirkuluak iristen zaizkion zine eta antzerki sarrerak zozketatu egingo dituela erabaki du. Oraingoan, Arrasaten egingo den *La del soto del parral* zarzuelarako bi sarrera zozketatuko dituzte. Parte hartzeko, Baleikek bere Facebook kontuan duen zozketako post-ari *Gustuko dut* eman beharko zaio. Gaur 16:00ak arte zozketan parte hartu ahal izango da, eta irabazleen izenak datorren barikuan publikatuko dira.



# "Lehen postuak errazten du babesleak lortzea"

**XABI FERNANDEZ 'PURITO'** AUTO GIDARIA

RACE Turismos auto txapelketak azken unean egin dio ihes Arrasateko pilotuari. Ezin izan zuen azken lasterketa egin arazo mekaniko batengatik, eta hirugarren amaitu du.

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Era horretako lasterketa bat zer den probatzeko pilotu arrasatearrak txapelketako lehen lasterketa egitea erabaki zuen, eta *pole*-arekin eta bi garaipenekin itzuli zen etxera. Aurrean egoteko maila zuela ikusirik, txapelketa osoa egitera ausartu zen. Erregulartasunari esker sailkapeneko lehen postuan mantendu zen azken probara arte, baina ezbehar baten eraginez hirugarren amaitu du.

**Nola sortu zitzaizun RACE Turismos txapelketa lehiatzeko aukera?**

Iaz kart batekin lehiatzen aritu nintzen, baina babesleak lortzeko oso zaila da. Kart-ak berak espazio gutxi dauka publizitatea jartzeko, eta aurten aldatzeko gogoa nuen. Beraz, betidanik autozalea izan naizenez, rallyetan aritzeko auto baten bila jarri nintzen. Seat Leon-a ikusterakoan, asko gustatu zitzaidan, mendi zein zirkuitutako probatarako balio zuelako, eta prezio onean eskuratu nuen. Hasierako asmoa Los Arcosen eta Aragoiko zirkuituan egiten den Iparreko Abiadura Txapelketan lehiatzea zen. Baina, azkenean, erritmo ona neukala ikusita, Jaramako RACE Turismos-en probatzera ausartu nintzen.



Purito pozik denboraldian zehar emandako mailarekin. XABI GOROSTIDI

**Eta ondo probatu, gainera, ezta?**

Ba, bai. Zirkuitua ondo ezagutzeko denbora eskaini nion simulatzaileekin zirkuitua ezagutzeari. Horri esker, dena ondo atera zitzaidan eta lehen astebururo *pole*-a eta bi lasterketak irabazi nituen. Lehenean irteera kaxkarra egin nuen eta hirugarren izatera pasa nintzen. Hala ere, gogor saiatu eta lehen bi pilotuak aurreratu nituen. Bigarrenean, aldiz, hasiera ona egin nuen eta lehen postuari eutsi nion hasieratik bukaerara.

**Zer mailatako aurkariak izan dituzu txapelketa honetan?**

Pilotu gehienek urte asko daramatzate mundu honetan, eta esperientzia handiko aurkariak ziren. Horietako bat Clio Cup IV-ko aurtengo irabazlea zen. Baina esperientziaz gain, aurrekontu handiagoak ere bazituzten. Urte osoan bigarren izan denaren aurrekontua nirea baino lau edo bost aldiz handiagoa zen; beraz, pentsa.

**Eta nola egin diozu aurre desabantaila horri?**

Ba, hein handi batean, nire alboan izan dudan lantaldeari esker. Ramon Irigoien mekanikaria, Mikel Garcia, Aitor Etxeberria eta Iñaki Juldain izan dira, eta lan aparta egin dute. Horrez gain, nire bikotekideak lasterketa guztietara lagundu dit, eta bere babesa ere asko eskertu dut.

**Eibarrek Real Madrili irabaziz gero futbolaren esentzia gailendu dela esan daiteke. Zure kasuan ere antzerako zerbait gertatu da, ezta?**

Hala da. Oso pozik nago eman dudan mailarekin. Nire aurkariek dena alokatzen dute; autoa bera, asistentzia, mekanikariak... Egiten duten gauza bakarra karrera egunean zirkuitura joatea, arropak aldatzea eta gidatzea da. Ekipoak egiten die aurreko lan guztia. Gure kasuan, astebete lehenago dena kargatzen hasten gara, Madrileraino dena mugitu behar dugu, guk egiten ditugu autoaren azterketak... lan hori guztiori gure kabuz egiten dugu, eta hor alde itzela dago.

**Azken lasterketaren faltan, dena alde zenuen, baina orduan etorri zen ezbeharra.**

Amorratu egin nintzen, lasterketatik kanpo nengoela barneratu nuenean. Momentu zailak dira, baina ez zeukan atzera bueltarik. Jaramara animatzera etorritako lagun guztiekin lasterketa ikusi nuen harmailetatik, eta asko gozatu nuen eurekin batera. Egun triste hori alaitu zidaten.

**Datorren urtera begira zer?**

Emaitzek asko laguntzen dute babesleak lortzeko orduan. Zentzu horretan, lehen ez geratzeak gauzak zailduko dizkit. Hala ere, jende askok ikusi du maila badaukadala, eta hori garrantzitsua da. Espainia mailako turismo txapelketan lehiatzea gustatuko litzaidake, orain arte izan dudan lantaldea mantenduta. Baina, horretarako, babesleen laguntza handiagoa beharko dut. Aurten izan ditudanekin oso pozik nago, eta eurak nirekin ere bai. Eurek emandako laguntzak fruituak eman dituela ikusi dute.



GIPUZKOAKO TXIRRINDULARITZA ELKARGOA

## Estevez, Gipuzkoako txapeldun

Kadete mailan Gipuzkoako txapeldun izatea lortu zuen zapatuan Garazi Estevezek, Caja Rural Taldeko txirrindulariak. Hirugarren postuan amaitu zuen lasterketa, baina horrek Gipuzkoako azkarrena izateko balio izan zion. Irudian, podiumeko hirugarren koskan, Nahia Eraña eta Amaia Murgialdai txirrindulariekin batera.

## AKEren tenis eta padel txapelketak azaroaren 19an

Padel txapelketarako izen ematea domeka honetan amaituko da eta finalak abenduaren 18an jokatuko dira

**X.G.** ARRASATE

Zazpigarren urtez antolatu dituzte AKE taldekoek santamasetako tenis eta padel txapelketak.

**Tenisekoa astebete geroago**

Asteburu honetan hasi behar zen tenis txapelketa, baina astebete atzeratu dute ez dituztelako aurre fasea jokatzeko beharrezko diren 36 partaideak lortu. Gazteen kategorian 14 pertsonak eman dute izena, emakumezko helduetan seik eta gizonezko helduetan 29k.

**Padelerako izen ematea**

Domeka honetan amaituko da padel txapelketan izena emateko epea. Neska eta mutilen kategoriak izango dira, eta interesdunek helbide honetara idatziz egin dezakete izen ematea: *ake.padel@gmail.com.*

Federatuta ez daudenek eta Arrasate Kirol Elkarteko kide ez direnek 7 euro ordaindu beharko dituzte. Elkarteko kide eta federatuek, aldiz, 5 euro. Tenisekoan bezala, padel txapelketako irabazleak abenduaren 18an erabakiko dira.

## MU Ointxe! laugarren garaipenaren bila bihar Iturripen

Josu Larreategiren mutilek La Gallofa taldearen bisita jasoko dute zapatuan Iturripen, 18:30ean.

Sailkapenaren goialdean jarraitzeko partidu klabea izango da, taulan aurretik duten taldea izango dutelako aurkari. Santanderkoak hirugarren postuan daude, lau garaipen eta porrot bakarrarekin, beraz, Ointxek garaitzea lortuz gero berdinduta geratuko lirateke bi taldeak sailkapeneko lehen postuetan.

**Album ofizialaren aurkezpena**

Zapatu goizean egingo dute kromo albumaren aurkezpena Biteri plazan. 11:00etatik 14:00etara izango da eta pintxoak eta edariak banatuko dituzte.

# Porturen, Karlosen, Julen eta beste guztien omenez

Bi urtean behingo ohiturari eutsita, RIP taldeko kideak omentzeko jaialdi berezia egingo dute bihar gaztetxean Perlata, Ezin Izan eta TxerRIPkumeak taldeek (22:30). "Joan diren lagun guztiak gogoratzeko kontzertua izango da", dio Txerra Bolinagak.

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

RIP taldea eta 1980eko hamarkada gogoratzeko beste zita bat izango da bihar, zapatua, gaztetxean (22:30). Bi urtean behin egiten duten moduan, RIP taldeko kide zirenak omenduko dituzte; Portu, Karlos eta, oraingoan, lehen aldiz, Jul Bolinaga.

**Azkenaldian, bi urtean behin**

1997an hil eta lau urtera, sanjuanetan, Monterron parkean omenaldi berezia egin zitzaion Porturi, eta Jabi Sayesek –*Jabi Destruye* ezizenez, *Destruye* fanzineko arduraduna zelako– eta konpainiak antolatuta Andoaingo gaztetxean ere egin zen jaialdi bat. 2003an, Karlos hil zenetik, bi urtean behin egin izan dira omenaldiak Arrasateko gaztetxean. Aurtengoa izango da lehena Jul Bolinaga barik. "Duela bi urteko jaia egin eta gutxira hil zen Jul. Kontzertu hartan ez genuen jo, baina anaia egon zen azkena izan zen", gogoratzen du Txerra Bolinagak. RIP talde esanguratsuko kideak omenduko dituzte bihar, baina Bolinagak bidean geratu diren horiek ere baditu gogoan: "Jende asko joan zaigu, rockzale ugari. Joan diren beste lagun guztiak oroitzeko ere bada kontzertu hau".

**Orduko punka eta gaur egungoa**

Hiru taldek joko dute: Perlata, Ezin Izan eta TxerRIPkumeak-ek. Perlata zeresana ematen ari den talde arrasatearra da; Maialenek, Jaionek, Anek eta Anderrek osatzen dute, eta, punk-rocka oinarri badute ere, bestelako doinuak ere lantzen dituzte. Ohikoak ez diren bertsioak eskainiko dituzte eta ziur egingo diotela keinuren bat RIP taldeari ere. "Rocka oso gizonezkoa da oraindik, eta eskertzekoa da emakumeak ere ikusaraztea", dio Bolinagak. Bestalde, 1990eko hamarkadaren hasieran Donostian sortutako Ezin Izan taldeak hardcore doinuak eskainiko ditu; urte luzez geldi egon ostean, bueltan datoz. "Oso gogotsu datozela esan didate", dio Txerrak.

TxerRIPkumeak taldearekin joko du Bolinagak, jaialdirako propio sortutako taldea. Agertoki ondoan aspalditik ezagutzen dituen musikariak izango ditu; tartean, Des-Kontrol eta Never Surrender taldeetako kideak. "Oso gustura" eseri da baterian berriro, azken urtean apenas jo du eta: "Entseguekin gozatzen ari naiz, sekulako lagun giroa dago. Gogoa eta ilusioa dagoenean ezin daiteke ezer txarrik irten. 1980eko hamarkada hasieran entzuten genituen taldeen bertsioak joko ditugu, ederra izango da. Bazkaria egingo dugu aurretik, aspaldiko lagunekin egoteko eguna izango da".



Portu, Txerra, Jul eta Karlos 1995eko otsailean. ARRASATE PRESS

**"HASIERAN ENTZUTEN GENITUEN TALDEEN BERTSIOAK JOKO DITUGU, EDERRA IZANGO DA"**



MENSAJEROS DE LA PAZ

## Goikobalu abesbatza Madrilen

Goikobalu abesbatzak kontzertua eskaini zuen aste bukaeran Madrilgo Chueca auzoko San Anton elizan, Aita Angel ezagunak sortutako Mensajeros de la Paz elkartearentzat. Aita Angel bera egon zen kontzertuan eta Bakearen Usoa oparitu zien esker on keinu moduan. Kontzertuaz gain, abesbatzak Madril bisitatzeko aukera izan zuen.

### Zarzuela ikusteko sarrerek salgai jarraitzen dute

Azaroko azken bi asteburuetan ohikoa den bezala, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak zarzuela ikuskizuna eskainiko du Amaia antzokian. Aurten, Reveriano Soutullo eta Juan Vertek konposatutako *La del soto del parral* ikusteko aukera egongo da. Zarzuela hau errepertorio espainiarreko obra garrantzitsuenetako bat da eta XIX. mendeko Segovian dago girotuta.

Ikuskizun egunak azaroaren 19a, 20a, 25a eta 26a izango dira. Oraindik ere, emanaldi guztietarako sarrerak daude salgai; hain zuzen ere, Arrasateko Udalaren webgunearen *on line* leihatilan eskuratu daitezke, 18 eurotan.

### Benito Lertxundiren kontzerturako sarrerak agortzear

Kantautore oriotarraren kontzertuak ikusmin handia sortu du. Kontzerturako sarrerak urri hasieran jarri ziren salgai, eta, ikuskizunerako hilabete bat baino gehiago geratzen den arren, jadanik hogei sarrera baino gutxiago geratzen dira.

50 urteko ibilbidearen ostean, Benito Lertxundik zuzenekoetan murgildurik jarraitzen du. Gainera, oraindik argitaratu gabeko abestiak eskainiko ditu.

Kontzertua abenduaren 23an egingo da, 19:30ean hasita. Sarrerek 20 euroko prezioa daukate, eta, hain zuzen ere, geratzen diren apurrak Udalaren webguneko *on line* leihatilan eskuratu daitezke.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta
arrasate
beinke



De La Torrek eta Perezek Errasti lehengusuen aurka jokatutako finalerdiko irudia. ARAMAIOKO PILOTA ESKOLA

# Bost bikote aramaioar txapelaren bila

Zapatuan jokatuko dira III. San Martin Pilota Txapelketako finalak. 106 pilotariko eta 100 partidu baino gehiagoko ligaxka jokatu ostean, bihar erabakiko da benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetako bikote irabazleak zeintzuk diren

**Xabi Gorostidi** ARAMAIO
Irailetik abendura arte pilotari gazteentzat txapelketarik ez zegoela ikusita, Aramaioko Pelota Elkarteak San Martin txapelketa antolatzea erabaki zuen duela hiru urte.

"Entrenatzeaz gain, pilotariak zuriz janztea eta lehiatzen aritzea nahi genuen. Horrez gain, ligaxka formatua eman genion, haurrek ahalik eta gehien jokatu zezaten. Klubek antolatzen dituzten txapelketa gehienetan galduz gero etxera joaten zara, eta gurean parte hartzea lehenetsi genuen", azaldu du Josu Olaizolak, Aramaioko Pelota Elkarteko kideak.

Aurtengo edizioak parte hartze handia izan du, eta benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan Arabako pilota eskoletako 106 pilotari aritu dira.

Herriko pilotariek lan txukuna egin dute, eta zapatuko zortzi finaletako bostetan Aramaioko ordezkariak izango dira. Horietako lehenak Benjamin B mailako Jago Garcia eta Manu Iglesias izango dira. Euren onenak eman beharko dituzte zapatuan Egoi Rivera eta Aritz Arruiz lakuarrak gainditzeko. Benjamin A mailako finalean Julen Fernandez aramaioarrak eta Aimar Ruiz lakuarrak osatutako bikoteak Laudioko Vicario eta Reinaldo izango ditu aurkari.

Alebin B mailan Ander eta Xabi Errasti aramaioarrak Cariñanos legutioarrak garaitzen ahaleginduko dira. Alebin A mailako finalean, aldiz, Arriolabengoa eta Herrarte aramaioarrek Sanchez eta Escuza hartu beharko dituzte mendean. Bikote laudiarrak 18-0 irabazi zuen pasa den asteburuan jokatutako finalerdian.

Azken ordezkaria infantil A mailako Asier del Campok eta Julen Olaizolak osatutako bikotea izango da. Txapela lortzeko, Lakuako Larrieta eta Estibaliz garaitu beharko dituzte.

## III. San Martin Txapelketako finalak

| | | |
|---|---|---|
| **A Benjaminak** | Ruiz-Fernandez (Aramaio) | Vicario-Reinaldo (Laudio) |
| **B Benjaminak** | Arruiz-Rivera (Lakua) | Iglesias-Garcia (Aramaio) |
| **A Alebinak** | Arriolabengoa-Herrate (Aramaio) | Sanchez-Escuza (Laudio) |
| **B Alebinak** | Cariñanos-Cariñanos (Legutio) | Errasti-Errasti (Aramaio) |
| **A Infantilak** | Olaizola-Del Campo (Aramaio) | Larrieta-Estibaliz (Lakua) |
| **B Infantilak** | Loizaga-Rio (Legutio) | Picon-Escuza (Laudio) |
| **A Kadeteak** | Larrazabal-Alava (Amurrio) | Muguruza-Yuste (Laudio) |
| **B Kadeteak** | Saez-Amondo (Laudio) | Esnaola-Arambarri (Lakua) |

ITURRIA: ARAMAIOKO PILOTA ELKARTEA

## San Melixenak jaiak asteburu honetan Gantzaga auzoan

Mus, tute eta patata-tortilla txapelketak, txirrindulari igoera eta trikitilari zein txistulariak ez dira faltako

**Xabi Gorostidi** ARAMAIO
Kanpai errepikekin eta etxafuego jaurtiketekin hasiko dituzte bihar, zapatua, Gantzaga auzoko San Melixenak jaiak. 12:00etan meza nagusia egingo dute Aretxabaletako Koruaren laguntzarekin, eta ondoren emanalditxoa egingo dute eguerdiko giroa berotzeko. 13:00etan bermut dantzaren txanda izango da, eta aldi berean II. txapel jaurtiketa lehiaketa egingo dute. Bazkalostean mus eta patata -tortilla txapelketak egingo dituzte, eta aldi berean umeentzako jolasak eta puzgarriak egongo dira. 23:00etan DJ Xaz-ek saioa eskainiko du eta ohera joan aurretik txokolate beroa banatuko dute.

Domekan 11:00etan, gantzagar bat baino gehiago ohetik altxatuko da Arrasateko Txistulari Bandaren doinuekin. 12:30ean hasiko da 36. Txirrindulari Igoera eta 13:00etan Aramaioko trikitilariek poteoa girotuko dute. 17:00etan tute txapelketari ekingo diote eta amaitutzat emango dituzte jaiak, hurrengo zapatuko errepikapenak heldu arte.



JULEN IRIONDO

## San Martin gaztaina-jana

Gaztaina-janaren bueltan San Martin Herri Eskolakoek arratsalde pasa ederra egin zuten atzo, eguena. *Madibe*r ikuskizunarekin hasi zituzten ekitaldiak, kultura etxean; eta eskolan segitu zuten ondoren. Argazkiak erakusten duen moduan, gogor saiatu ziren lekaioka neska-mutikoak. Ezin bestela izan, eta bukaera borobila eman zioten gaztaina-janarekin.

## San Martin jaia ospatzeko Triki Kalejira gaur

Aramaioko trikitilariak, urtero legez, kalera aterako dira, gaur, egubakoitza, San Martin jaia ospatzeko.

18:30ean hasiko dute kalejira Aramaioko kaleetan zehar. Ordubetez herriko bazterrak alaitu ostean, mokadutxoa egingo dute Herriko Plazan jarriko duten txistor dastaketan. "Egitarauak aldaketak jasan izan ditu urteetan zehar, betiere, trikiti hotsaren, janaren eta edariaren presentziarekin", adierazi du Ainhoa Ullibarriaranak, Trikiti Taldeko kideak.

Txistor dastaketaren ondoren zozketa egingo dute. Lehenengo saria nekazaritza etxe baten asteburua izango da, bigarrena urdaiazpikoa eta hirugarrena gazta. "Urte batzuetan ikasle berrien presentzia eskolan urria izan bada ere, aurten ikasle berri dezente dauzkagu", azaldu du Ullibarriaranak.

# Ekintza ugari Euskararen Egunarekin lotuta

Aramaioko Udalak herriko hainbat eragilerekin batera egitarau mamitsua prestatu du euskararen erabilera sustatzeko. Iaz arrakasta izan zuten Euskal Ginkana eta Herri Lasterketaz gain, hitzaldi zikloa eta biharko Euskal Kantuen Jaialdia antolatu dituzte

**Xabi Gorostidi** ARAMAIO

Aramaio herri euskalduna izan da beti, eta horretan eragin handia daukate bai Udalak eta baita herriko hainbat eragilek euskararekin duten konpromisoak.

Horren adibide garbia da abenduaren 3ko Euskararen Egunaren baitan Udalak herriko eragileekin batera antolatu duen ekintza sorta. "Euskararen Eguna eta berarekin lotutako ekintzak antolatzeko, herriko hainbat eragilerekin bilera egin dugu urrian. Talde hauekin bizpahiru aldiz elkartzen gara urtean eta helburua izaten da euskara arloan egiten ditugun ekintzak elkarrekin planifikatzea, konpartitzea eta elkarrekin antolatzea", azaldu du Rosa Mondragonek, Aramaioko Udaleko Euskara zinegotziak.



Jendetsua izan zen iazko Euskararen Eguneko I. Herri Lasterketa . IMANOL SORIANO

**Egitarau mamitsua**

Elkarlanean antolatu duten ekintza sortak denetarik izango du. Iaz arrakastatsuak izan ziren bi ekintza mantendu dituzte: Euskararen Eguneko Herri Lasterketa eta Euskal Ginkana.

Euskararen alde kirola egiteko proposamenak harrera ona izan zuen herritarrengan, eta aurtengoa abenduaren 3an egingo dute. Euskal Ginkana, aldiz, azaroaren 14tik 27ra izango da. Herriko establezimendu desberdinetan aukera egongo da bi astez euskararekin eta Aramaiorekin lotuta formulatuko diren galderak erantzuteko. Gaztetxoen galderak Kultura Etxean egongo dira eta helduenak herriko taberna eta saltokietan, eta puntu gehien pilatzea lortzen dutenek sari erakargarriak jasoko dituzte.

Nagusientzat sari potoloa bi pertsonarentzat afaria izango da. Ondoren, herriko produktuekin osatutako hiru otarre banatuko dituzte: sailkapeneko bigarrenarentzat eta hirugarrenarentzat eta 40 puntu baino gehiago lortu dituztenentzat.

Haurren saria Hontzaextrem-erako sarrerak eta materiala erosteko bonuak izango da.

**Aurtengo berritasunak**

Aurtengo berritasunei dagokienez galdetuta, zera esan du Mondragonek: "Aurten, berezitasun bezala, hitzaldi zikloa izango dugu eta hiru solasaldi proposatzen ditugu, euskararekin lotuta, hiru asteartetan, guztiak 18:30ean eta udaletxeko osoko bilkura aretoan. Azaroaren 15ean, Garabide elkartearekin kolaboratuz *Hizkuntzak hauspoan: kitxua, Kaqchikel eta Aimara hizkuntz komunitateen esperientziak* mahai-ingurua izango da. Azaroaren 22an, Patxi Uribarren mintzatuko zaigu *Euskara lehen, orain eta etorkizunean* gaiari buruz. Eta azaroaren 29an Txema Preciado etorriko da *Kolorearen euskal ikuskera* gaiaz hitz egitera", azaldu Mondragonek.

Horrez gain, Euskal Kantuen Jaialdia antolatu dute biharko, zapatua, Euskal Kantuzaleen Elkartearen laguntzarekin. Kultura etxean izango da, 19:00etan; abeslarien artean herriko kantariak ere izango dira.

## 'Aramaixon euskeraz' programa

Hauek dira herriko eragileekin elkarlanean prestatutako hitzorduak.

**Azaroak 12**
- **19:00** Euskal Kantuen jaialdia, Kultura Etxean

**Azaroak 14-27**
- Euskal Ginkana ume zein nagusientzat.

**Azaroak 15**
- **18:30** 'Hizkuntzak hauspoan' mahai-ingurua Sastiñan.

**Azaroak 22**
- **19:00** 'Euskara lehen, orain eta etorkizunean' saioa Patxi Uribarrenekin

**Azaroak 29**
- **19:00** 'Kolorearen euskal ikuskera' hitzaldia

# Aramaioko sei bertsolari Arabako Txapelketara

Kanporaketetan aritu diren lau aramaioarrek lortu dute sailkatzea, lan bikaina egin ostean

**X.G.** ARAMAIO

Aramaioko bertsolariak fin aritu dira 2017ko Arabako Bertsolari Txapelketarako sailkatzeko kanporaketatan, eta guztiek lortu dute sailkatzeko helburua.

Ondo lortu, gainera; izan ere, bi lehen postu eta bi bigarren batu dituzte sailkatzeko kanporaketa saioetan.

Duela bi aste Andere Arriolabengoa eta Paula Amilburu Lantziegon aritu ziren, eta lehen eta bigarren postuak eskuratu zituzten, hurrenez hurren.

Aurreko egubakoitzean Iker Agirrek Izarrako saioko puntuazio altuena lortu zuen eta Peru Abarrategi bigarren geratu zen zapatuan Izarran. Arriolabengoa eta Agirre zuzenean sailkatu ziren, euren saioetan lehen postua lortuta. Lehian zeuden 24 bertsolarietatik lehen hamahiruek lortzen zuten sailkapena. Amilburu bosgarren izan da eta Abarrategi, aldiz, zazpigarren.

Eurekin batera arituko dira aldez aurretik sailkatuta zeuden Manex Agirre eta Xabi Igoa 2015eko edizioko finalistak. Beraz, 2017ko txapelketan kantatuko duten 18 bertsolarien herena Aramaiokoak izango dira.



NIRE USTEZ

**XABI IGOA**

## Kafe hutsa

Kafe huts bat, mesedez.

Sarri horrela hasten da zutabe bat eratzeko hartzen dugun tartea. Kafearen zaporeak hitzak lotuko dizkigulakoan edo ordenagailuari so. Zer arraiori buruz idatziko dut oraingoan ba?

Bertsotan ari garenean gisa bakarkako gai bat jarriko baligute zikira… Joño! Gero, bertso afari batean 2 orduz gai librean kantatzeko gai bagara, 1000 karaktere nola ez ditugu ba zanpatuko teklatuan bata bestearen atzetik?

Idatzi nahi nuke Maider Undaren balentrien inguruan, bere dominen inguruan eta emakume kirolariek suposatzen duten ereduari buruz. Maialen Chourraut gogora ekarri eta ama eta kirolari profesionalak direnak goratu.

Idatzi nahi nuke eta Trump eta tranpa hitzekin jolastu, eta baten ile laranja eta Ciudadanosena konparatu, eta lazgarria denari barre egin.

Idatzi nahi nieke gure auzoan kaka egiten duten txakurren jabeei, gorotza jasotzen dutenei zoriondu eta besteak kaketara bidali.

Idatzi nahi nuke… eta konturatu orduko, kafearen zaporea besterik ez da geratzen hitzak lotu gaituelako gu.

Zenbat izan da? 1,20€

## Arabako Guraso Eskolako topaketa zapatuan

Teknologia berriak eta *on line* jokoak landuko dituzte, Amurrion, larunbatean egingo den Arabako Lurraldeko Guraso Eskolen Topaketan.

Whatsappen eta *on line* jokoen erabilerak nerabeengan duen eragina aztertuko du Ana Estevezek, Deustuko Unibertistateko irakasle eta psikologoak.

## Hitzaldia diabetesa eta oinak zaintzearen garrantzia lantzeko

Alaiak Jubilatu Elkarteak hitzaldia antolatu du eguenerako, hilak 17. Kultura Etxean izango da, 18:30ean. Elena Abascal erizaina oinak zaintzeak gaixotasunean duen eraginaz mintzatuko da, eta Veronica Ovejas adituak hainbat gako emango ditu diabetesa pairatzen dutenen elikadurari buruz.



Gaztetxea eskatzeko andramaixetan egindako manifestazioko kideak. IBAI ZANGITU

# Gazteen nahiak agerian 'Gaztetxia herrira' astean

Ekitaldiz betetako astea antolatu du Atxabaltako Gaztetxeko Asanbladak eta azaroaren 20a bitartean hitzaldiak, dokumental emanaldiak eta kontzertuak izango dira gaztetxearen proiektua "herrira zabaltzeko" asmoarekin

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Egitarau mardula aurkeztu du Atxabaltako Gaztetxeko Asanbladak datozen egunotarako. Orain dela hainbat hilabete hasitako hausnarketak fruituak eman ditu, eta herritarrekin batera ospatu gura dute hori *Gaztetxia herrira* leloarekin.

**"Eraldaketarako tresna"**
"Gaztetxearen proiektua bera modu xumean herrian irudikatzea nahi dugu aste honekin; hau da, gune autogestionatu horretan egin daitezkeen hamaika ekimenen eta proiektu ezberdinen ideia herrira zabaldu", diote Gaztetxeko Asanbladako kideek. Horregatik, ekitaldi mordoa antolatu dituzte; besteak beste, hitzaldiak, dokumental emanaldiak eta kontzertuak: "Herritik eta herriarendako egindako egitaraua da; hortaz, edozeinek har dezake parte. Ume, gazte zein helduendako ekitaldiak daude, gerora ere guztiek izango dutelako lekua gaztetxean". Hain zuzen, gaztetxea "eraldaketarako tresna" delako Aretxabaleta eraldatzera datozela diote: "Herriko egoera iluna koloreztatzen hasi gura dugu gazteon arteko harremanak saretuta, kaleak kulturarekin beteta, herritarron arteko elkarlana eta parte-hartzea bultzatuta edo garunak astinduta".

**Espazio propio bila**
Otsailean jarri zuten abian gaztetxearen gaineko hausnarketa: "Gazte mugimendutik *Gazte diagnostikoa* jarri genuen martxan eta han bildutako kezka edo gogo nagusi bat izan zen herriko gazteok espazio fisiko bat behar genuela. Martxoan, diagnostikoa aurkeztu zenean, Gaztetxeko Asanblada sortu zen, eta ordutik proiektuaren inguruan hausnartzen ibili gara hamarnaka lagun".

**"EPE MOTZEAN EDO LUZEAGOAN, BAINA ARGI DAUKAGU GAZTEON AMETSAK BETEKO DITUGULA"**

Gazteen "nahiak eta beharrak betetzen hasteko ordua" dela ondorioztatu dute hausnarketotan: "Beharrezkoa ikusten dugu gazteok gure espazio propioak izatea, gure eguneroko nahi, ilusio eta ametsak autogestionatzeko eta aurrera eramateko". Aste honetan, "ilusio horiek eta konpromisoak piztuko" dituzte, eta ondoren, asanbladaz asanblada joango direla urratsak zehazten adierazi dute: "Epe motzean edo luzetxoagoan, baina gazteon urteetako ametsak beteko ditugula argi daukagu. Ez dauka atzera bueltarik". Eta gazteez gain, baina herritar oro gonbidatu gura dute proiektu honetan parte aktibo izatera: "Urteetako lehorte luzea eta gero, hasi da lore berri bat irteten Aretxabaletan; orain guztion ardura da hori zaindu, maitatu eta eraikitzea".

## Egitaraua

**Azaroak 11, egubakoitza**
- **18:30** Gaztetxeetako esperientzia trukaketa eta afaria. Udaletxe zaharra.

**Azaroak 12, zapatua**
- **16:00** Mus txapelketa. Orly taberna.

**Kontzertuak:**
- **18:30** Los Perros. Kixkor.
- **19:10** Delirium. Haizea.
- **19:50** Atsekabe. Ezkutu.
- **20:30** WC. Haizea.
- **21:10** Krisis. Ezkutu.

**Azaroak 13, domeka**
- **18:00** Hitzaldia: *Musika eraldaketa sozialerako tresna*. Urbaltz.

**Azaroak 14, astelehena**
- **19:30** Dokumentala: *Kortxoenea, irautea sortzea delako*. Urbaltz.

**Azaroak 15, martitzena**
- **19:30** Dokumentala: *Gure kabuz ala hil*. Kixkor.

**Azaroak 16, eguaztena**
- **19:00** Pintxo pote musikatua.

**Azaroak 17, eguena**
- **19:00** Hitzaldia: *MST eta Boliviako indigenak*. Txiki.

**Azaroak 18, egubakoitza, Pagaldaixenean**
- **18:00** Taberna irekiera gaitero eta erraldoiekin.
- **18:30** Kontzertua: The Hans Blues Band. Gero, mikro irekia.
- **21:30** Bertso saioa.

**Azaroak 19, zapatua, Pagaldaixenean**
- **11:30** Ipuin kontaketa.
- **12:00** Kantu poteoa, trikitilariak, dantzariak eta azoka kalean.
- **12:30** Graffiti tailerra.
- **14:30** Gaztetxiaren aldeko bazkaria.
- **18:30** Kontzertuak: Drop! eta Aggressive Combat.
- **21:00** Elektrotxaranga.

**Azaroak 20, domeka, Pagaldaixenean**
- **17:00** Bilketa eta film emanaldia: *La Haine*.

## Eneko Etxegarai ipuin kontalaria izango da liburutegian bihar

Ipuinak kontatzen eskarmentu handia duen Eneko Etxegarai izango da bihar, zapatua, 11:30ean, liburutegian. Hamaika gai landuko ditu horrek ipuinen bitartez, eta bien bitartean Eduardo Rodriguez ilustratzaileak marrazkiak egingo ditu.

Liburutegiak antolatutako saioa 4 urtetik gorako neska-mutikoendako izango da.

## 'El hombre de las mil caras' eta 'Ice Age' filmak aste bukaeran

Azaroarekin batera iritsi da zinema Arkupera, eta helduek *El hombre de las mil caras* filma (Espainia, 2016, 123 min.) izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00); Francisco Paesa agente sekretu ohiaren istorioa kontatzen du, hain zuzen. Neska-mutikoendako, ostera, *Ice Age* dago bihar eta etzi (17:00).

## Durangoko Azokara joateko autobusak jarriko ditu Udalak

Abenduaren 2tik 6ra bitartean egingo den Durangoko Azokara joateko autobus bi antolatu ditu aurten ere Udaleko Kultura Sailak; abenduaren 3rako, zapaturako, hain zuzen ere, eta bi aukera izango dira: 10:00etan irten eta 14:00etan itzuli eta 10:00etan irten eta 20:00etan itzuli. Prezioa 4 euro da eta izena emateko Arkupera joan behar da.

## Zabalik egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko izen-ematea

Dependentzia duten adinekoei zuzendutako egonaldi laburrak antolatu dituzte, beste behin, egoitzetan. Interesa dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzuetako bulegora jo behar dute; hona hemen epeak: abenduko zubiko egonaldirako eskaera aurkezteko azken eguna azaroaren 14a da eta Gabon egunetarako eskaerendako, azaroak 23.

# Berdintasun Saila "geldi" dagoela salatu dute

EH Bildu eta Irabazi alderdiek herritarrei adierazi gura izan diete apiriletik ez dagoela Berdintasun teknikaririk, sail horren "aurrekontuak eta gastuek behera" egin dutela eta diru laguntza bi galdu direla Udal Gobernuaren "utzikeriagatik"

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Udaleko Berdintasun Sailaren egoera zein den azaldu gura izan diete EH Bildu eta Irabazi alderdiek herritarrei. Izan ere, oso kezkatuta daude: "Urte eta erdian ez du ezer egin Udal Gobernuak".

**Aurrekontuak "behera"**

Aretxabaletako EH Bilduk eta Irabazik bat egin dute berdintasunaren bidean, uste dutelako oraindik lan handia dagoela egiteko parekidetasunaren alde. "Herri mugimendutik lan izugarria egin da, eta beharrezkoa da administrazio guztien lana; Udalarena, esaterako", dio Larraitz Arandok, EH Bilduko kideak. Udal Gobernuak, baina, "urte eta erdi galdu" duela berdintasunaren aldeko ibilbidean uste dute: "Ez da ezer egin eta proposamen asko egon arren mahai gainean ez da konpromiso politikorik egon", argitu du Irati Pagoagak, EH Bilduko zinegotziak. Horren adibide aipatu ditu Berdintasun Saileko "aurrekontuak behera" egin izana iaztik hona, 71.800 eurotik 65.500era, eta "gastuak ere behera" egin izana 55.000 eurotik 23.600era. Gainera, "diru laguntza bi galdu" direla aurten adierazi du, bata Emakundek emandakoa, 7.557 euro, eta bestea Diputazioarena, 4.500 euro. Esandakoari gaineratu behar zaio Berdintasun teknikariak postua utzi izana aurten: "Langile horrek apirilean utzi zuen postua eta ez da beste inor hartu ordezkatzeko. Horrek esan gura du geldi egotetik ia desagertzera pasatu dela sail hori".

**Saila hartzeko gertu EH Bildu**

Egoera hori onartzeko prest ez, eta EH Bilduk, Irabaziren oniritziarekin, proposamen bat aurkeztu zion ekainean Udal Gobernuari: EH Bilduk hartzea sail horren ardura gobernuan ez egon arren. Eta eskaintza horrekin bi konpromiso hartzeko gertu agertu zirela adierazi du Jon Albizu zinegotziak: Berdintasun Saila aktibatzea eta berdintasuna ez erabiltzea talka politikorako. Udal Gobernuari hainbat konpromiso eskatu zizkioten; besteak beste, teknikari bat kontratatzea berriro eta partida egonkor bat zehaztea, 70.000 eurokoa.



Irabaziko eta EH Bilduko kideak Berdintasun Sailaren gaineko agerraldian. M. ALTUBE

### "SAILAREN ARDURA HARTZEKO GERTU" AGERTU ZEN EH BILDU UDAL GOBERNUAN EZ EGON ARREN

Lan ildo batzuk ere zehaztu zituzten Berdintasun Sailerako proposamen horretan Albizuren esanetan, besteak beste, jabekuntza pertsonala eta kolektiboa indartzea eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartzea. Gainera, Berdintasun Gune bat martxan jarri beharra zehaztu zuten: "Helburua izango litzateke parekidetasuna sustatzea Aretxabaletan. Eta horretarako zehaztu genituen edukiak, helburuak, metodologia, baliabideak...".

Ekainean aurkeztutako proposamen horren erantzuna urrian iritsi zela adierazi dute, eta desengainu handia hartu zutela: batetik, ez ziotelako "zuzenean erantzun proposamenari" eta, bestetik, "akordiorako beste alternatibarik ez" zutelako aurkeztu. Horren ordez, "sasi-proposamen" bat egin ziotela argitu dute: "Egun udalean dagoen Berdintasun Plana berraztertzeko asmoz, 2017rako plan horren ebaluazioa egitea. Gure galdera da: urte eta erdi pasatu ostean, hori da proposamen bakarra?".

Kontuak horrela, EH Bilduko eta Irabaziko kideek erabaki dute Berdintasun batzordera ez agertzea gehiago; hala ere, lanerako gertu agertu dira: "Gobernu Batzordeak benetako konpromisoa hartuko balu, martxan jarriko balu Berdintasun Saila, eta ekintzekin ikusiko bagenu lanerako benetako borondatea eta interesa duela, gu ere batzordeetako dinamikara gehituko gara".

Bien bitartean, lanean jarraituko dutela zehaztu dute, baina batzordetik kanpo. Eta gaineratu dute: "EAJk, elkarlanean, herritarren alde lan egiteko aukera paregabea galdu du".

## Herri bideen erabilera tasaren gaineko bilera azaroaren 18an

Hainbat baso-jabek deitu dute, eta auzo alkateak eta "tasa horren eraginez kaltetuak" elkartu gura dituzte

**M.A.** ARETXABALETA

Herri bideak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa mantentzea 2017an onartu zuen Udalak urrian egindako osoko bilkuran. Tasa horrekin, baina, ez daude batere konforme hainbat baso-jabe, eta bilera deitu dute horren gaineko iritziak jasotzeko, eta hala erabakiz gero, alegazioak aurkezteko. Azaroaren 18an, egubakoitza, izango da udaletxeko ganbaran, 18:00etan.

Bilerara deitu dituzte Aretxabaletako auzo alkateak eta tasa horrek kaltetutako baso-jabe guztiak, hau da, pinuak botatzerakoan Izurieta, Galartza, Apotzagaetxebarri, Arkarazo, Goroeta, Larrino eta Oro auzoetako bideetatik atera behar dituzten lur-jabeak. Era berean, Udalari eskatu diote ordezkari bat bidal dezala. Bilera irekia dela jakinarazi dute, eta edonorendako dituztela zabalik ateak. Dena den, esaten denarekin baten bat ados ez balego erreguen eta galderen atalean izango lukeela iritzia emateko aukera argitu dute.

**2012a ezkero datorren kontua**

Bilera deitu dutenek jakinarazi dute 2012. urtetik gaur arte "gaiari buruzko politika nahasia egin dela, baita axolagabea ere". Hain zuzen, 2012an erabaki zuen Udalak tasa hori Arrasaten kobratzen zutenarekin berdintzea, 1,73 euro tonako, "Euskal Autonomia Erkidegoko garestienetakoa", baso-jabeen esanetan, eta gaineratu dute: "Arrasaten, baina, %75eko hobaria egiten zaie bere garaian bideak finantzatzen parte hartu zutenei. Horrek frogatzen du Udalak dioena gezurra dela".

## Masaje ikastaroa egingo dute Kurtzebarri eskolan

**Goiena komunitatea**

Kurtzebarri eskola / ARETXABALETA

Azken urteetan bezala, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolak haur masaje ikastaroa antolatu du *Zure umetxoarekin batera hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia* izenarekin. Hilabete eta sei hilabete arteko umeak dituzten familiei zuzendutako ikastaroa da.

Azaroan zehar egingo ditugu saioak, astelehenetan eta eguaztenetan hain zuzen, 17:30ean; hona hemen egunak: 14, 21 eta 23. Eskolan bertan elkartuko gara.

Interesatuta egonez gero –argibideetarako eta izena emateko– dei egin ezazue honako telefono zenbaki honetara: 943-79 00 49. Edo Kurtzebarri eskolatik bertatik pasatu.

Jantzi erosoak ekartzea gomendatzen dugu saioetarako, baita eskuoihal txiki bat ere.

## Frontenis txapelketa mistoa egingo du UDAk bi asteburutan

Azaroaren 26an eta 27an eta abenduaren 3an eta 4an jokatuko dute UDAk antolatutako frontenis txapelketa mistoa. Izen-ematea zabalik dago hilaren 22a arte –bikoteak 10 euro ordainduko du–; hona bidea: *udafrontenisa@gmail.com*. Sariak honako hauek dira: lehenengoendako, bertako produktuekin egindako saskia; eta bigarrenendako, afaria.

Mobiliario Arenaza

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# "Dena ondo joan dadin, kolpeak neuretako dira"

**JOSE JAVIER BARKERO** UDA-KO KIROL ZUZENDARIA

Orain dela bi urte itzuli zen Aretxabaleta kirol elkartera eta ordutik hona entrenatzaile lanetan jardun du gaztetxoekin; orain, koordinatzaile lanak ere egingo ditu

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Igor Arenazak hainbat urte egin ondoren kirol zuzendari karguan, orain, Jose Javier Barkerok (Aretxabaleta, 1979) hartu dio hari txanda, "ilusioz gainezka eta lanak ondo egiteko gogoz".



Jose Javier Barkero, Ibarra futbol zelaian. MIRARI ALTUBE

**Futbolaren bueltan egin duzu bizimodua eta botak eskegi ostean ere futbolaren bueltan jarraitzen duzu…**

Ez nuen sekula pentsatuko hemen egongo nintzenik! Zenbat buelta ematen dituen bizitzak, baina oso pozik nago; harrera beroa egin zidaten itzuli nintzenean eta aukera polita eskaini didate.

**Kirol zuzendari izendatu berri zaituzte; zeintzuk dira zure eginbeharrak?**

Lehen eta bigarren futbol taldeak, ohorezko erregionala eta erregional preferentea ondo joan daitezen bitartekoak jartzea, batez ere, entrenatzaileekin eta jokalariekin hitz egitea eta arazoak sortuz gero konpontzea. Gainerako taldeak gidatzeko Iker Arriolabengoa eta Jokin Badillo ere badaude eta nik guztia koordinatuko dut.

**Igor Arenaza egon da aurten arte kargu horretan; hari txanda hartzea ez da samurra izango…**

Oso ondo konpondu izan naiz Igorrekin beti; hortaz, horri dagokionez lasai nago. Gainera, badakit haren laguntza izango dudala. Igorrek lortutakoa lortzea zaila izango da, baina nork bere bidea egin behar du. Orain arte bezalako denboraldiak egiten baditu UDAk, ni pozik.

**UDAra itzuli zinenetik haren alboan izan zara; ezer ikasi duzu?**

Izugarri. Aspalditik ezagutzen dugu elkar eta asko ikasi dut harengandik, bai jokalari nintzenean, bai entrenatzaile lanetan. Ikasgai asko barneratu ditut bi urteotan, eta kontu askotan, gainera, bat etorri gara.

**Eta aholkurik eman dizu Arenazak?**

Lasai hartzeko esan dit, lehen hilabeteetan ikasten joateko, eta gai izango naizela hori kudeatzeko. Kirol zuzendaria kolpeak hartzeko dagoela argitu dit, gainerako kontu guztiak ondo joan daitezen.

**UDA ez da kirol elkarte handia, baina bai martxa handikoa, ala?**

Bai, bai. Aurrealdean ibiltzen diren taldeak ditu UDAk eta konturatu naiz eredu dela kanpoan. Izan ere, oso ondo bideratu izan dituzte kontuak bai Arenazak, bai lanean jardun duten gainerako guztiek. Eta herrian bertan ere UDA oso garrantzitsua da.

**Entrenatzaile lanetan ere bazabiltza oraindik; gustura?**

Infantil txikiak entrenatzen ditut eta oso gustura nabil. Horrek betetzen nau, hain zuzen, gehien, eta ahal badut, behintzat, bi ardurekin egingo dut aurrera.

**Eta zer gurago, gaztetxoekin lan egitea ala nagusiagoekin?**

Biek dute alde ona eta txarra. Umeen oso gainean egon beharra dago, bestela despistatu egiten dira eta ez dute jasotzen guztia; baina oso gustura nabil haiekin lanean. Nagusiekin ere gustura, baina umeek guztia dute ikasteko eta nahiago ditut.

**Entrenatzaile lanetan jarraitzeko asmorik baduzu, beharbada, gorago ko mailetan?**

Uf… ez dakit! Neure burua ez dut sekula koordinatzaile lez ikusi eta begiratu non nagoen. Nazional mailako entrenatzailea izateko hirugarren ikasturtea geratzen zait egiteko, eta orain ez dut uste astirik izango dudanik. Aurrerago atera gurako nuke, besterik ez bada, gordeta izateko. Dena den, egunerokoari begiratzen diot. Oso pozik nago hemen, etxean, eta urte batzuetan, behintzat, bertan jarraitu gurako nuke.

**Denboraldi hasiera polita egin du gorengo taldeak, eta UDAren eta Mondraren arteko lehia interesgarria izango da aurten…**

Hasiera oso ona egin dugu, bost partidu jarraian irabazita, eta lehenengo gaude sailkapenean. Badakigu bospasei talde indartsu daudela, eta ez da samurra izango horri eustea. Hala ere, orain arte jokatutako intentsitateari eutsiz gero puntuak eskuratuko ditugula uste dut. Hortaz, hankak lurrean eta aurrera.

**Zelako harremana duzu zuzendaritzarekin?**

Ona, nahiz eta oraindik ez dugun hartu-eman handirik izan. Kide guztiak ezagutzen ditut eta ez da inolako arazorik izango.

**Sintonia berean zaudetela esan daiteke?**

Bai, nire sintonia oso samurra da eta. Nik ekarpen batzuk egin arren, UDAk aurretik egindako ibilbideari jarraituko dio.

**Eta entrenatzaileekin zer moduz?**

Oso ondo. Numantzian elkarrekin jokatu genuen ohorezko erregionaleko entrenatzaile Iñigo Velez de Mendizabalek eta biok eta harreman oso ona izan dugu. Erregional preferenteko Juanan Cruz, ostera, umetatik ezagutzen dut, Ibarra zaharrean elkarrekin jokatutakoak gara eta.

**Neskak ere gerturatu dira orain elkartera eta Arizmendi-UDA izenarekin jokatzen dute; emakumeen futbola bultzatu nahian?**

Bai, hori da. Orain dela hogei urte emakumeen taldea zuen UDAk, eta orain, berriro bultzatu gura dugu. Ea poliki-poliki indartzen joaten den gurean ere.

**UDAk indar handia du Aretxabaletan; herritarren babesik sentitu duzu?**

Etorri nintzen unetik bertatik; harrera ezin beroagoa egin zidaten. Egia da herritarrek iritzi onak eta ez hain onak helarazten dizkidatela, baina hobe beharrez egiten dute. Urte asko pasatu ditut kanpoan eta ez nekien elkartearekiko halako sentimendua zegoenik herrian. Harmailak bete egiten diren futbol zelai bakarretakoa da, eta horri eutsi gura diogu; horretarako, ondo lan egin behar!

**"ORAIN ARTEKO INTENTSITATEARI EUTSIZ GERO, PUNTUAK ESKURATUKO DITUGU"**

## Dagoeneko 47 herritar gerturatu dira 'Atxabalta Mugi' bulegora

Eskoriatzara ibilalditxoa egin zuten joan den astean hogei lagunek jarduera fisikoa egitera ohitzeko asmoarekin

**M.A.** ARETXABALETA

Ekainean zabaldu zuten *Atxabalta Mugi* egitasmoko orientazio bulegoak antolatuta irteera egin zuten Eskoriatzara joan den astean. Hogei lagun elkartu ziren, gehienak erretiratuak, jarduera fisikoa egitera ohitzeko helburuarekin. Ibilaldia bukatu zuten salda hartuta Basotxon eta egindakoarekin oso gustura.

Iñaki Olaetxea aholkulariak gidatzen duen bulegora dagoeneko 47 herritar gerturatu dira, horietatik hamalau medikuak esanda eta gainerako guztiak zerbait egin beharrak bultzatuta: "Izan ere, gehienek dute kolesterola, hipertentsioa eta obesitatea", dio Olaetxeak, baina bulegoa edonorendako dutela zabalik gogorarazi du.

Abendu hasieran beste jarduera bat egingo dute: erorketen gaineko tailerra. Erorketak ekiditeko eta jausiz gero zelan altxatu jakiteko trebakuntza teorikoa eta praktikoa izango dela aurreratu du Olaetxeak.



Eskoriatzara joan-etorria egindako taldea ibilaldia hasi aurretik. M.A.

# Berrantolatze-lanekin ari dira Gaztelekuan

Sukaldea muntatu dute dagoeneko, paretetan hainbat marrazki egin dituzte eta gune batzuk margotu dituzte. Hurrengo pausoa, berriz, paletak erabiliz mahaiak eta sofak eraikitzea izango da

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Aurreko aste bukaeran, eguraldi txarraren ondorioz, Eskoriatzako gaztelekua adin desberdinetako gaztez bete zen. 12-17 urte bitarteko 50 lagun inguru gutxi gorabehera, eta ekintza eta jolasez gain, gaztelekuko berrantolatze lanak egin zituzten.

Irailean hasi ziren Gaztelekuko irudi aldatzearekin, eta margotze lanekin jarraitu zuten gazte batzuek aste bukaeran; beste batzuk, aldiz, sukalde txokorako altzarien muntaiarekin hasi ziren. Iratxe Arrese gaztelekuko hezitzaileak adierazi duenez: "Zurgintza tailerra genuen antolatuta aste bukaerarako, eta, horren harira, hainbat gazte sukaldea muntatzen eta margotzen aritu ziren. Geroz eta gazte gehiago hurbiltzen dira azkenaldian gaztelekura, eta berrantolatze lanak egitea erabaki genuen. Oraingoz, gogotsu daude gazteak, eta, poliki-poliki ari garen arren, itxura ona hartzen ari da...".




Gazteak sukaldeko altzariak muntatu eta margotzen. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

**KIROLA, MODAKO JOKOAK ETA GAZTELEKU BARRUKO LANAK EGITEN ARI DIRA GAZTEAK**

Sukaldeko altzariak muntatzeaz gain, hockey partidua egin zuten pilotalekuan, eta ondoren, areto futbol partidua ikustera joan ziren kiroldegira. Eskoriatzako taldeak liderraren aurkako partidua jokatu zuen, eta, markagailuan aurretik jarri baziren ere, 5-6 galdu zuten partidua. Hala ere, ez ziren falta izan gaztelekukoen animoak.

**Gaztelekuko lanekin aurrera**

Aste bukaera honetarako, berriz, hainbat ekintza dituzte aurrez antolatuta, baina batzuk alde batera utziko dituzte. "Degurixara mendi irteera egin behar genuen, baina, eguraldia nola dagoen ikusita, beste ekintza batzuk egitea pentsatu dugu. Bestalde, berrantolaketa lanekin jarraituko dugu, eta, horrez gain, modan dagoen botila orekaren jokoa seguru ez dela faltako aste bukaeran".

**Modan dagoen botilaren jolasa**

Botila airera bota eta hau jaustean zutik mantentzea da jokoaren funtsa. "Gazteak liluratuta daude joko honekin eta azkenaldian asko jokatzen ari dira; izan ere, modan dagoela esan daiteke".



Iaz, 'Gaztetxef' lehiaketan ateratako talde argazkia. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

## Badator 'Gaztetxef' lehiaketa

Azaroaren 19an, 16:30ean *Gaztetxef* lehiaketa egingo dute gaztelekuan. "Umeek gogotsu hartzen dute lehiaketa. Iaz arrakastatsua izan zen eta aurten ere hala izatea espero dugu."

## Eskoriatzako areto futbol taldea garaipen beharrean dago

Sei partidu jokatu dituzte oraingoz: bat berdindu, bat irabazi bat eta gainerakoak galdu egin dituzte

**Goiena komunitatea**
KIROL ELKARTEA / ESKORIATZA

Euskal ligako Eskoriatza areto futbol taldeak 5-6 galdu zuen azken jardunaldian Afantxo Pescados Ferreres liderraren aurka. Etxean jokatu zuten partidua, eta, harmailetan zeuden zaleen animoak izan arren, ezin izan zuten garaipena eskuratu.

Partidua zaila zen, baina irabazten hasi zen etxeko taldea. Hala ere, atsedenaldira 2-3ko emaitzarekin heldu ziren. Presio handiarekin hasi zuten bigarren zatia, eta partidua berdinduta heldu zen azken txanpara. Hala ere, Eskoriatzaren akats baten ondorioz, ezin izan zituzten hiru puntuak lortu. Sailkapenean, azken hirugarren postuan daude lau punturekin. Hurrengo jardunaldia zapatuan jokatuko dute, 19:00etan, Miranda de Ebron, eta dena emateko prest joango dira bertara.

Areto futboleko emakumezkoek, berriz, etxean jokatu zuten lehen partidua Lauburu taldearen aurka. Ondo ibili arren, 1-1 bukatu eta puntu bakarra lortu zuten.



I.B

## Familia nekazaritza eredu

Mundukidek eta Elkarhezitzenek antolatuta, *Familia nekazaritzarekin mundua elikatu dezakegu* hitzaldia antolatu zuten martitzenerako Ibarraundin. Ana Paula Tauacale UNACeko lehendakaria izan zen, eta Mozambikeko egoera azaldu zuen. Emakumeen jabetzaz, parte-hartzeaz eta erabaki garrantzitsuak hartzearen garrantziaz jardun zuen, besteak beste.

### Dantza-jauzi ikastaroa antolatu dute azaroko domeketarako

Euskararen Egunera begira, azaroaren 13an, 20an eta 27an –domeketan–, 18:00etan zazpi jauzi, egi eta txapeloaz dantzak ikasiko dira frontoian. Euskararen egunean, Herriko Plazan egingo dira ikasitako dantzak eta ez dago izena eman beharrik. Dantzak dakizkiten eskoriatzarrek ez dakizkitenei irakatsiko dizkiete ikastaro honetan.

### Talogintza tailerra egingo dute azaroaren 21ean, kultura etxean

Eskoriatzako kultura etxeak talogintza ikastaroa antolatu du azaroaren 21erako. 18:30etan izango da kultura etxeko sukaldean eta irakasleak herriko talogileak izango dira. Taloak nola egiten diren ikasiko da, eta ikastaroan parte hartzeko nahitaezkoa izango da izena ematea. Bertaratu nahi duenak bost euro ordaindu beharko ditu.

# 'Aztarnak' koadro erakusketa zabalik

Egubakoitzean ireki zen Inkernu tabernan Agurtzane Telleria margolariak akrilikoan egindako hamar koadroekin osatutako erakusketa. Datorren abenduaren 4ra arte egongo da ikusgai, eta nahi duenak margolanak erosteko aukera ere izango du

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Agurtzane Telleria arrasatearrak *Aztarnak* izeneko koadro erakusketa ireki zuen pasa den egubakoitzean, hilaren 4an, Inkernu tabernan. Hamar lan batzen ditu Arrasateko Margo Taldeko kideak egindako erakusketak eta akrilikoan egindako koadro abstraktuak dira guztiak. Abenduaren 4ra arte egongo da aukera erakusketa bisitatzeko eta nahi duenak koadroak erosteko aukera izango du. Horretarako, tabernan bertan galdetu beharko da.

Rikardo Azkargota irakasleak proposatuta animatu zen bakarkako erakusketa egitera Telleria. "Taldekoekin hainbat erakusketa egin izan ditut, eta hilabete bukaeran beste bat jarriko dugu Kulturaten. Azkargortak lan asko nituela eginda eta ea zergatik ez nuen bakarkako erakusketa bat egiten esan zidan, eta hala animatu naiz lehen aldiz egitera".



'Aztarnak' koadro erakusketako lan batzuk Inkernu tabernan. IMANOL SORIANO

Erakusketak *Aztarnak* izenburua izateak ere badu bere arrazoia: "Pintzelarekin margotzen dudan arren, ez dut ohiko eran margotzen; hau da, ez dut brotxarekin margotzen, pintzelaren makilarekin baizik; mihisean margoa jarri eta tarrasean eramanda, hain zuzen ere, eta, hala, aztarnak geratzen dira…", adierazi du Agurtzane Telleria artistak. Koadroek azalpenik ez izan arren, artistak koadro bakoitzaren bere irakurketa egiten du, eta koadro bakoitzarekin zerbait adierazi gura izan du.

**Animalia aztarnak**

Lan guztiak ezberdinak dira, baina bada bitxia den koadro bat erakusketan. Izan ere, artistak margotu arren, animalien laguntza izan du koadro batean. "Katuaren eta txakurraren hankak margotu eta esperimentu gisa beraien oinutsen aztarnekin egin dut lan bat pintzelarekin lagunduz…". Beste lan batzuetan, aldiz, Anboto edo Udalatx mendiak islatzen saiatu da artista eta beste batzuk guztiz abstraktuak dira, bakoitzaren imajinazioa lantzeko.

Astebetean erakusketako bi koadro saldu ditu: "Lehen koadroa egunean bertan saldu nuen eta ordutik beste bat ere saldu dut". Koadro handiek 75 euroko prezioa dute eta txikiagoek, berriz, 50 eurokoa.

## Performance batek lagunduta

Erakusketa Domu Santu eguna pasa berri egin zen, eta, bertan dauden lanez gain, erakusketatik kanpo margolariak egindako bi catrina –Mexikoko garezur koloretsuak– ere eraman zituen erakusketara. Biak ere Telleriak aspaldi egindako lanak dira, eta Domu Santu egunari erreferentzia egiteko eta, bide batez, erakusketa irekiera apaintzeko, bere lagun Charo Gallego aktoreak bi koadroen inguruko bakarrizketa saioa egin zuen. "Bizilagunak gara Gallego eta biak, eta behin etxean ditudan *catrinen* irudiak ikusi zituenean, horrelako bat oinarri hartuta dramatizazioa egingo zuela proposatu zidan. Ideia gustatu eta aurrera egin genuen. 5-10 minutuko saioa prestatu zuen egunerako, eta erakusketa irekierara etorri zirenak oso gustura geratu ziren antzezlanarekin".



Charo Gallego bakarrizketan. I.S.

# Badator Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en ikuskizuna

'Tipi-Tapa, korrika!' lan berriaren estreinaldia Eskoriatzan egingo da; azaroaren 19an, kiroldegian

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Urtero moduan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek lan berriaren estreinaldia Eskoriatzan egingo dute. Azaroaren 19an, 17:30etan, *Tipi-Tapa, Korrika!* ikuskizuna eskainiko dute eta dagoeneko jarri dituzte sarrerak salgai kiroldegian sei eurotan, eta adin guztietakoek sarrera beharko dute ikuskizunera sartzeko.

1980an egin zen lehen Korrika, eta 2017an egingo da hogeigarrena. Ekimena gogoratzeko eta datorrenari bultzada emateko, euskara, alaitasuna eta balioak oinarri izanda antolatu dute ikuskizuna.

Basoari urtero iristen zaio udaberria; kukuak esnatu, elurrak urtu eta landareak loratzen direnean. Euskarari, ostera, bi urtean behin; Korrikarekin batera. Korrikako kilometro bakoitzean lekukoa pasatzen dugu euskaldunok eskurik esku, maitasunez. Lekukoa airean dabil, lurrik ukitu gabe, barruan mezu sekretu bat gordeta, sudur-gorriek Eskoriatzako jaialdian zabalduko dutena.



IMANOL BELOKI

## Fitosanitario tailerrean bikain

Gaur amaituko da Eskoriatzako kultura etxean egiten ari diren produktu fitosanitarioen tailerra. Anduaga Pentsuak-ek antolatutako eta GID (Gestion Integral Denbo) formazio enpresak gidatutako ikastaroa arrakastatsua izan da orain arte. Batez ere, teorikoa izan da, baina alderdi praktikoa jorratzeko aukera ere izan dute bertaratu direnek.

## Atzo hasi zen Eskoriatzako lehen pintxo lehiaketa

Eskoriatzako lehen pintxo lehiaketan parte hartu duten tabernetako ordezkariak beraien pintxoak eskaintzen hasi ziren atzo, eta domekara arte egongo da hauek probatu eta gustukoena aukeratzeko. *Ahate konfitatuzko bricka, Urreslabel, Udazkeneko bonboia* eta *Udazken bizia* pintxoak izango dira lehiaketan parte hartuko dutenak.

## Hankamotx bertso eskolarako izen-ematea zabalik

Hankamotx Bertso Eskolak ikasturteari ekingo dio eta izen ematea zabalik dago dagoeneko. Zortzi urtetik gorako gaztetxoei zuzendutako eskolak martitzenetan emango dira 17:30etatik 18:30etara bitartean. Matrikula, berriz, doakoa izango da, eta izena kultura etxean edo *hankamotx@gmail.com* helbidera idatzita egin daiteke.



Musika eskolako Araceli Telletxea eta Lili Gonzalez prestaketa lanekin. IMANOL SORIANO

## 'Beldurrei Agur' ikuskizunerako dena prest dute antolatzaileek

Mari Jose Pagaldai gogoratzeko herriko elkarte ezberdinek egindako lana taularatuko dute bihar

**I.B** ESKORIATZA

Mari Jose Pagaldai eskoriatzarra gogoratzeko *Beldurrei agur* ikuskizuna bihar izango da Manuel Muñoz kiroldegian, 22:00etan. Herriko talde ezberdinek elkarlanean egindako lana doakoa izango da, eta pasa den domekan, entsegu orokorrean, azken orduko xehetasunak landuta, prest dute ikuskizuna.

Lili Gonzalez Hondurastik etorritako eskoriatzarrak jarri du martxan ekimena herriko hainbat elkarteren kolaborazioarekin batera, eta, ikuskizunerako dena lotuta duten arren, urduri dagoela adierazi du: "Beti dago urduritasuna, baina parte hartuko duen talde guztiarekin oso pozik nago, azken entsegua oso ondo irten zen. Beraiei eskerrak ematea besterik ez zait geratzen".

**Euskaldunekin bat eginez**

Gonzalezek azaldu du herritarrekin egindako lanarekin oso pozik dagoela: "Kanpotarra izanda euskaldunekin oso gustura izan naiz eta erantzun bikaina eman dute, gustura sentitu naiz". Gaineratu du datorren urtera begira halako elkarlan bat berriz egitea oso pozgarria izango zela.



NIRE USTEZ

**OLATZ PAGALDAY**

## Galdera berriak gaur egunari jarriak

Zergatik egiten ditugu hiru karrileko errepideak gero denok erdiko karriletik joaten bagara? Zertarako sortu haurrak gero hezterik ez baditugu nahi? Zertarako ikasi karrera bat gero alkatearen lehengusina izatearren lortzen bada lanpostua? Zergatik gustatzen zaizkigu urruneko kulturak baina urrun Zergatik deitzen diogu "erosotasuna" eserita egoteari? Zertarako borrokatu beste mundu eredu baten alde gaur egun daramagun bizitza aldatzeko prest ez bagaude? Hitz egiteko zergatik erabiltzen ditugu makinak? Gimnasiotik bueltan zergatik erabiltzen dugu igogailua? Telebista saioak ikuslearentzat egiten badira, zergatik mozten dituzte irudiak esaldien erdian iragarkietara pasatzeko? Zaharra fidagarriagoa dela jakin arren zergatik fidatzen gara berriaz zaharraz baino gehiago? Jendeari ez zaio irratia gustatzen... entzun egin behar da. Zergatik beldurtzen gaitu askatasunak? Loraetegietan pilatzen diren plastiko zikinak jasotzea noren ardura da, lorezainarena edo zabor biltzailearena? Zertarako galdetzen dugu ez badugu erantzuna entzun nahi?

# San Milixan eskulangitza azoka egingo dute etzi

24. edizioa izango da aurtengoa eta askotariko produktuekin osatutako hamabost mahai egongo dira; berrikuntza modura, gainera, ardikia prestatuko dute plazan eta buzkantzak egingo dituzte antzina egiten zuten moduan, ondoren pintxotan jateko

**Eneko Azurmendi** LEINTZ GATZAGA

Etzi, domeka, ospatuko dituzte aurtengo sanmilixanak.

Urtero moduan, askotariko materialekin osatutako produktuak jarriko dituzte herriko pilotalekuan. Euskal Herri osotik etorritako hamabost talde izango dira guztira, 10:00etatik 14:30era. Horiekin batera, Anelkarrek eta Dorletako Txirrindularien Lagun Elkarteak ere postua jarriko dute azokan.

Umeendako zeramika tailer bat ere egongo da, 11:30etik 14:00etara. Ez da beharrezkoa izango aurrez izena ematea, frontoira gerturatuta aukera egongo da tailerrean parte hartzeko.

Bestalde, Gatz Museoak bisita gidatuak eskainiko ditu, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan.

**Ardikia eta buzkantzak**

Urtero berrikuntzaren bat izaten da eta aurten ardikia eta buzkantzak izango da protagonista. *San Milixan, ardikixa jan ta aketeixan,* dio esaera zaharrak, eta hori hartu nahi izan dute oinarritzat ekintza hau antolatzeko garaian, Joannes Mendizabal kultura zinegotziaren esanetan. Hala, ardikia prestatuko dute plazan eta buzkantzak eskuz egingo dituzte, antzinako eran. Ondoren, pintxotan dastatzeko aukera egongo da, bata zein bestea. Horrez gain, Gatzako Sorginak emakume taldearen eskutik, taloak azokako ikurretako bat izango dira aurten ere. Azoka bukatzean, herriko elkartean bazkaria egingo dute parte hartu duten artisau guztiek, antolatzaileek gonbidatuta.

**Autobusak**

Egun garrantzitsua izanik, Eskoriatza eta Gatzaga artean autobus zerbitzu berezia egongo da. Horrez gain, eskaripeko zerbitzua ere egongo da, eta, horretarako, 900 12 14 00 zenbakira deitu beharko da.



2014ko San Milixan azokako irudi bat. GOIENA

### Parte hartuko duten postuak

| Izena | Langintza | Herria |
|---|---|---|
| Txus Gruzeta | Zilarrezko bitxigintza | Heredia |
| Panpoxak | Panpinak, poltsak, bitxiak... | Zarautz |
| Eguzkilore | Bitxiak eta artilezko apaingarriak | Atxondo |
| Lekutxu jostailuak | Egurrezko jostailuak | Gasteiz |
| Goikala zeramika | Zeramika | Lagran |
| Felix Larrañaga | Zura | Mallabia |
| Eskuz | Larrugintza | Leintz Gatzaga |
| La Jaboneria de la Almendra | Xaboiak | Gasteiz |
| Jotzen | Txalaparta, perkusioak, kaxoiak | Zeanuri |
| Mikel Arbulu | Bitxiak, lore lehorrak | Atxondo |
| Amaia Aizpun | Bitxiak eta laminak | Gares |
| Kuia | Lanparak | Amurrio |
| Helena Azkarragaurizar | Ilustrazioak, kamisetak | Arrasate |
| Segundo Maldonado | Ehungintza | Bergara |
| Elisa Llaurado | Zumegintza | Abaltzisketa |

ITURRIA: GATZAGAKO UDALA



Astelehenean egin zuten irakurketa foro feministako lehen saioa, aurkezpen modura. MAITE TXINTXURRETA

# Martxan da irakurketa foro feminista berria

Martxanterak taldearen egitasmo berria berriki atzera ere martxan jarri duten Kartzela Zaharreko Angiolillo Liburutegian burutuko dute, eta Virginie Despentes idazlearen 'Teoria King Kong' liburua izango da irakurri eta landuko duten lehendabiziko lana

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Martxanterak taldeak, Bergarako talde feministak, ekimen berri bat jarri du abian. Astelehenean aurkeztu zuten irakurketa foro feminista Gaztetxeko Angiolillo liburutegian. Hain zuzen, bi urteko etenaldiaren ostean berriz jarri dute martxan kartzela zaharreko liburutegia, eta jada hasi dira lehen ekintzekin.

Aurkezpenean azaldu zutenez, egitasmo honen helburua "pentsalari feministek idatzitako liburuak irakurri eta lantzea" da. Hain zuzen, lanketa kolektibo bat burutu nahi dute, guztien artean eztabaidatuaz batak bestearengandik ikasteko.

Landuko duten lehen lana Virginie Despentesen Teoria Kingo Kong izango da. Hiru hilabetez arituko dira liburu hori irakurri eta taldean komentatzen.

**Hurrengo saioak**

Dagoeneko finkatu dituzte irakurketa foro feministaren hurrengo saioen egun eta orduak. Hiru astean behin bilduko dira gaztetxean, eta bilkura bakoitzerako liburuaren zati bat etxetik irakurrita eroan beharko dute parte hartzaileek. Era berean, pasarte edo ideia interesgarriak apuntatuta eroatea gomendatu dute.

Hala, foroaren lehen saioa hilaren 28an egingo dutela adostu zuten astelehenean. 19:00etan izango dira saio guztiak, Kartzela zaharreko liburutegian. Lehen saiora liburuaren lehendabiziko hiru kapituluak irakurrita eroatea adostu zuten.

Bigarren saioa, berriz, abenduaren 19an egingo dute, eta bertarako 4. eta 5. kapituluak irakurri beharko dira.

Bukatzeko, *Teoria King Kong*i dagokion azken eztabaida saioa urtarrilaren 16an egingo dute. Aurrerago erabakiko dute zein izango den foroan landuko duten bigarren liburua.

**Dinamika**

Saiootako dinamika elkarrizketan eta eztabaidan oinarrituko da, eta entzule bezala zein nork bere iritzia emanez har daiteke parte bertan.

Bilkurok dinamizatzailea izango dute, eztabaida bideratze aldera, eta ardura hori errotatuz joango dira saioz saio, prest dauden boluntarioen artean.

**'Teoria King Kong' liburua**

Virginie Despentes frantziarrak 2007an argitaratu zuen *Teoria King Kong* liburua. Emakumeei egotzitako arau tradizionaletatik at bizitzeaz idazten du bertan, bere bizipen pertsonaletatik abiatuta sarri.

Entsegu liburua da honako hau, baina halakoetan ohikoa den tonu formaletik aldentzen da, kaleko hizkera erabiliaz. Sarritan tabu diren gaiez dihardu bertan idazleak; hala nola, prostituzioaz, bortxaketaz, homosexualitateaz, pornografiaz...

## Angiolillo liburutegiko aurkezpenak

Gaztetxeko Angiolillo liburutegian jada antolatu dituzte hurrengo bi liburu aurkezpenak.

Lehena azaroaren 18an izango da, 19:00etan. Manolo Cainzos filosofo, idazle eta UNEDeko irakasle ohiaren *Un movimiento ciudadano-Herri mugimendua. Bergara 1970-1980* izango da liburu protagonista, eta autoreak aurkeztuko du.

Liburutegiko Aser Polvorosak liburuaren nondik norakoak azaldu ditu: "1970-1980ko hamarkadan Bergaran bizi izan zen herri-mugimendu baten esperientzia historikoa jasotzen du", dio. Garai hartan sortutako herrigintza elkarte esanguratsuen ibilbidea azaltzen du Cainzosek. Mugimendu horrek hiru ardatz nagusi izan zituen: Bizi kalitatearen hobekuntza, kultur bizitzaren dinamizazioa eta demokrazia politikoaren aldeko borroka.

**Abenduan, Igor Meltxor**

Abenduaren 21ean, Igor Meltxorrek *Kazetari Kanaila* lana aurkeztuko du, kazetaritzari eta salaketa sozialari buruzko lan berria. Bere *Caso Bidegi* eta *Gestión a la vasca*ri buruz ere arituko da.




# Euskara eta aniztasuna, Auzokoren eskutik

Jardunaldiak egingo dituzte datorren astean. Askotariko jatorritako jendea euskarara hurbiltzea du helburu ekimenak, eta bertan parte hartzen duten hainbat herritarren bizipenetatik abiatuz egindako dokumentala aurkeztuko dute, besteak beste



**Emakumeen taldeko kideak.** AUZOKO



**Erreka garbiketan parte hartu zuten Auzokoko kideak.** AUZOKO

**Julen Iriondo** BERGARA

"Elkarrena ezagutu eta aitortuz, jatorri ezberdinetako herritarren artean, guztion arteko kohesio eta komunikazio hizkuntza euskara izatea da gure erronka". Eta erronka horretan lagungarri, jardunaldiak antolatu dituzte datorren asterako. Asteleheneko eta martitzeneko hitzaldiaren eta tailerraren ondotik, *Auzokoak* dokumentala aurkeztuko dute eguaztenean, Auzokoren helburuetan euskaldunon ekarpenak duen garrantzia azaleratu nahi duena, ekimenean parte hartzen duten hainbat herritarren bizipenetatik abiatuz. Emanaldiaren ostean, solasaldia egingo dute.

Auzokok hainbat talde ditu egun Bergaran: Osintxukoa astelehenetan batzen da, 18:30ean ludotekan; emakumeena, eguaztenetan 18:30ean; eta talde zabala, barikuetan, 10:30ean talde bat eta 18:00etan bestea, emakumeena bezala Udal Liburutegian. Informazio gehiagorako Jardunera ere jo daiteke.

## Egitaraua

**Azaroak 14, 18:30ean**
- **Hitzaldia** *Gipuzkoa aniztasunaren aurrean.* Agustin Untzurruntzaga, SOS Arrazakeria giza mugimenduko kidea. Irizar jauregian.

**Azaroak 15, 18:30ean**
- **Tailerra** *Compartimos. Zergatik euskara ikasi? ¿Por qué aprender euskara?* Irizar jauregian.

**Azaroak 16, 19:00etan**
- **Dokumentala** *Auzokoak.* Ondoren solasaldia. Zabalotegin.

**Azaroak 17, 18:30ean**
- **Munduko musika** Irala kalean.

**Azaroak 18, 18:00etan**
- **Aurkezpena** *Zatoz auzoko ezagutzera!* Liburutegiko ganbaran.

## Herriari buruzko ezagutza landuz sariak, Trivialean

**Goiena komunitatea**

Jardun / BERGARA

Bergarari buruzko galdetegia bete behar da Euskal Trivialean parte hartzeko. Galdetegiak eta, behin beteta, horiek uzteko –azaroaren 30era arte– kutxak ikastetxeetan, udaletxean, kultura etxean, Agorrosinen eta gaztelekuan daude. Euskarazko kultur produktuak eta ekitaldietarako sarrerak zozketatuko dituzte parte hartu eta gutxienez 12 erantzun asmatu dituztenen artean, abenduaren 13an, 18:30ean kultura etxean. LHko 4. mailatik aurrerako herritarrek har dezakete parte –hiru kategoria izango dira adinaren arabera–, banaka edo taldeka.

## Ekintza ugari ludoteketan azaroa bukatu bitartean

Oxirondon ogia egingo dute martitzenean, eta kamisetak margotuko dituzte hilaren 22an. Azaroko azken martitzenean, berriz, hegazkinak egingo dituzte. Osintxun karaokea dute gaur, eguaztenean bizkotxoa egingo dute, eta xaboia eta maskarak hilaren 24an eta 29an, hurrenez hurren. Angiozarren, azkenik, martitzenean eskulanak egingo dituzte, hilaren 18an sukaldaritza jorratuko dute, eta emozioak lantzeko antzezlana izango dute 28an. Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna –hilaren 25ean– ere izango dute kontuan ludoteketan. Udaletik ludotekako jarduna ezagutzera animatu dituzte haur eta gurasoak.

## Markos Atutxa

Taxilaria

### "Bezeroen beharren arabera, inguruan, aireportura... edonora, atzerrira ere berdin ematen dut zerbitzua "

*www.taxibergara.es* eta *markos@taxibergara.es* bidez eta 635 72 50 96 zenbakian egin daiteke kontaktua. Ibargaraiko geltokian egoten da goizez.



Markos Atutxa taxilaria, bere Mercedes autoarekin.

"Bergaran euskaraz egiten duen bakanetakoa naiz"

Markos Atutxak 24 orduko zerbitzua eskaintzen du taxiarekin.

**Errepidearen berri baduzu.**
Bai, autobus gidari ibili naiz aurretik, eta abuztuan hasi nintzen taxiarekin. Autobusarekin ibili izan naiz kanpoan ere: Salamancan, Leonen, Frantzian...

**Eta nolako zerbitzua ematen duzu?**
Bezeroen beharren arabera. Hemen inguruan, aireportura... edonora, atzerrira ere berdin.

Autoa ederra da, erosoa: Mercedes bat da.

**Enpresekin ere egingo zenuke lan, ez da horrela?**
Bai, noski, enpresekin ere bai.

**Eta tratua?**
Konfiantzazkoa tratua izango du bezeroak nire zerbitzuan. Bergaran euskaraz egiten duen bakanetakoa naiz, gainera.

Markos Atutxa Ercilla 635 72 50 96

TAXI ZERBITZUA

# "Wolframioak berriz batu ditu Euskadi eta Suedia"

**JOSE LUIS MARTINEZ PEÑA** ESS BILBAO-KO ZUZENDARI EXEKUTIBOA

Elhuyar anaiek herrialde harekin lotura izan zutelako dio hori, eta Bergaran isolatutako materialak baduelako zeresanik Lund-eko neutroi iturriaren instalazioan

**Julen Iriondo** BERGARA

Azken ekintzetan dira Bergarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak. Enpresentzako barnetegi teknologikoa jasotzen du gaurko egitarauak, eta baita espalazio bidezko neutroi iturriaren Europako proiektuaren (ESS) gaineko hitzaldia, Jose Luis Martinez Peñak emango duena –19:15ean, Laboratorium museoan–.

**Ahalik eta era ulerterrazenean azalduta, zertan datza ESS deritzon proiektua?**

Europa mailako instalazio zientifikoa da, neutroi-sortak emango dituen iturri bat. Neutroi hauek balio dute eguneroko bizitzan erabiltzen diren materialen osaketa eta ezaugarriak ikertzeko eta aztertzeko; adibidez, energiaren, garraioaren, elektronikaren edo osasunaren alorretakoak. Neutroiak dira zundarik egokienak materialen barnealdea eta portaera ikertzeko, X izpiek gorputzeko zati gogorrak, hezurrak, agertzen dizkiguten antzera.

**Eta zer lortu ahal izango da, adibide zehatzetara jota, proiektu honi esker?**

Bada, adibidez, aztertu ahal izango da nola abiadura handiko tren baten gurpilen propietate mekanikoak aldatzen doazen erabili ahala. Hau da, erabilerarekin pilatutako tentsio mekanikoak ekar dezake trenaren gurpilen prestazioak okertzea. Tentsio horien neutroien azterketarekin aurreikusi ahal izango da gurpilek zenbat denbora iraungo duten egoerarik onenean, eta, ondorioz, programatu ahal izango da noiz aldatu, segurtasuna handituz. Bestetik, hegazkinetan erabiltzen diren material arinei dagokienez, arazoetako bat izaten da material horien bategitea, soldatzea, eta soldatutako zonalde horiek propietate mekanikoei euts diezaietela eskakizun handiko egoeretan. Neutroi bidezko teknikek aluminio aleazio arinen soldatze prozesuak azter ditzakete tentsioak ahal beste murriztu eta prestazioak hobetzeko. Honela, egungo hegazkinetan pisutsuak diren hainbat elementu arinagoengatik ordezkatu ahal izango dira, prestazio mekanikoetan galerarik izan gabe. Pisua txikituta, erregai gutxiago beharko du hegazkinak, eta CO2 aztarna txikiagoa izango du. Edo, elikaduran, aztertu ahal izango da ze portaera duten proteinek zenbait elikagaitan, ahalik eta prestazio onenak lortzeko kontsumitzen duenarentzat –esne-gain harrotua, moussea...–.



Jose Luis Martinez Peña. ESS BILBAO

## "NEUTROIOK BALIO DUTE EGUNEROKO BIZITZAKO MATERIALEN OSAKETA AZTERTZEKO"

**Pisu handiko proiektua da, beraz.**

Bai. Munduko neutroi iturri garrantzitsuena bihurtuko da. Teknika zientifiko hauetan mundu mailako lider da, gaur egun, Europa, eta ESSa eraikita, aurreikus dezakegu hala jarraituko duela hurrengo hiru hamarkadetan. Europako hamabost herrialde eta 100 bat erakunde ari gara honetan, eta 1.883 milioi euroko proiektua da.

**Proiektuko instalazio nagusia Bilbora ekartzeko aukera galdu eta gero, ESS Bilbaok egitasmo honetan izango duen parte-hartze mailarekin pozik zaudete? Zer ekarriko du EAErako?**

ESS partzuergoko bazkide izango gara, eta esango nuke gustura gaudela ESS Bilbaon diseinatu eta fabrikatuko ditugun elementuekin. Estatuko administrazio orokorra eta Eusko Jaurlaritza ditugu tartean, eta proiektuan izango dugun parte-hartzea izango da osoaren %5. %5 honetatik %4 izango da ekipamenduan egingo dugun ekarpena, eta soilik %1 dirutan egindakoa. Euskadin, hainbat industria sektoretan –mekanikoa, elektrikoa, potentzia elektronikoa edo prozesu kontrolen ingeniaritza– trakzio-efektua izaten ari da. Honez gain, garrantzi honetako proiektu batean parte hartzeak industria sektorearentzat dakar alderdi teknologikoan gaitzeko erronka, eta horrek eragin positiboa izango du etorkizuneko proiektuetan parte hartzeko.

**Gaurko hitzaldiko izenburuak dio *...Bergara 1783tik Lund 2018ra.* Ze garrantzi du 1783an wolframioa deskubritu izanak –Bergaran– gaur egungo proiektuotarako.**

Duen garrantzia da hiru mende geroago wolframioak berriz batu dituela Euskadi eta Suedia. Orduan, Suediako ikerketen ondotik egin zuten Elhuyar anaiek aurkikuntza, eta gaur material hori bueltan doa Suediara, neutroien Europako iturriaren instalazioaren zati inportante baten material nagusia bihurtzeko. Wolframioarekin egina egongo da itu-gurpil deritzona; bertan egiten dute talka protoiek, eta bertatik isurtzen dira neutroiak.

**Eta wolframiozko pieza bat eman duzue gainera Bergararako.**

Bai. Wolframioa erabiltzen da neutroien produkziorako propietate mekaniko onak dituen metal astuna delako; ez da erraz deformatzen. Bergararako emandako pieza da kalitate goreneko wolframiozkoa, ESSaren itu-gurpila ekoizteko erosi beharko ditugun 7.000 piezen antzerakoa.

## Azken eguna, gaztetxoei zuzenduta

Bihar, zapatua, amaituko dira ZTB jardunaldiak, bi ekintzarekin. 09:30ean eta 11:30ean *Girls and Tech* izeneko *camp* teknologikoa izango da. 8 urtetik gorako ume eta gaztetxoei zuzenduta dago, eta bereziki neskei, teknologiarekin lotutako gaiekiko haien interesa mutilenaren azpitik dagoela kontuan izanda. Argi, kolore eta mugimendu efektuak sortzeko LED teknologia erabiliko dute esku artean aurreneko saio honetan. Txanda bakoitzean hamasei lagunentzat izango da lekua, eta izena eman behar da aurrez Laboratorium museoan –*www.laboratorium.eus*–. Azkenik, 17:00etan, kimika esperimentuen tailerra egingo dute, Kimikarin, 8 eta 12 urte artekoentzat. Izena aurrez eman behar da hemen ere, eta 30 lagun onartuko dituzte gehienez.

## 1930ean, 1933an, 1935ean, 1939an eta 1970ean jaiotakoak

1930ekoek Zumelagan dute bazkaria hilaren 20an –14:00etan, olibondoetan–. Izena: 943-76 22 22 eta 943-76 26 25. 1933koek egun berean dute bazkaria, Azpeitxin, 14:00etan –eguerdian meza, Santa Marinan–. Intxorta tabernan eman behar da izena, 6 euro aurreratuta. Egun eta toki berean bazkalduko dute 1935ean jaiotakoek ere, 14:30ean. 20 euro aurreratu behar dira Laboral Kutxan, hilaren 17a baino lehen. 1939koek Azpeitxin baina hilaren 26an bazkalduko dute. Izena –22a baino lehen–: 943-76 13 30 edo 943-76 28 58. 1970ekoek, azkenik, hilaren 19an dute bazkaria, Errekin –13:00etan, Ariznoan–. Izena, Sugoin –943-76 59 54–.

## Hainbat ekintza Osintxun, 'Azaroa gaztainetan' barruan

Gaur –egubakoitza– da egitarauko aurrenekoa: 22:15ean hasita, Imanol Ituño magoaren ikuskizuna izango da Txuringo tabernan. Hilaren 20an, berriz, 17:30ean, Kiki, Koko eta Moko pailazoek *Parranda tutiplen* ikuskizuna eskainiko dute frontoian. Hurrengo egunean Animen Eguna ospatuko dute, eta gaztainak eta sagardoa izango dira plazan 19:00etan hasita. Hilaren 25ean Andoni Olabegoeaskoetxearen bakarrizketa entzun eta ikusteko aukera izango da; 22:15ean hasiko da ikuskizun hau ere. *Azaroa gaztainetan* egitaraua amaitzeko, azkenik, jubilatuen bazkaria egingo dute hilaren 27an.

## Hilaren 21era arte eman daiteke izena sukaldean ikasteko

Miguel Altuna Institutuko Bizikasi zerbitzuak eta Bergarako Udalak antolatuta, oinarrizko sukaldaritza ikastaroa egingo dute Zuloa elkartean azaroaren 22tik abenduaren 15era, martitzen eta eguenetan, 15:00etatik 17:00etara. Azaroaren 21era arte dago zabalik izen-ematea, eta 10 euro ordaindu behar dira parte hartzeko.



Ezkerretik hasita Sarobe eta Urien eta Lopetegi eta Garcia bikoteak. GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA

# "Bergaran ikusiko da nor geratuko den kanpoan"

Emakumeen Paleta Gomazko Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko dute bihar Bergaran. Kantxan lehian izango den Ainhoa Garmendiaren esanetan, saio erabakigarria izan daiteke, aurrera zeintzuek egingo duten erabakiko delako

**Xabier Urzelai** BERGARA
Hamabi bikote lehiatuko dira bihar (15:30ean hasita, Munizipalean) Emakumeen Paleta Gomazko Txapelketako hirugarren jardunaldian. Lehenengo fasean bost jardunaldi jokatuko dituzte; hala, Bergarakoa ez da erabakigarria izango, baina, Ainhoa Garmendiak dioen moduan, asko argituko dira gauzak: "Oraindik, edozer gerta daiteke. Bergaran ez dugu ikusiko nork irabaziko duen txapelketa, baina nahiko garbi geratuko da ze bikotek ez duen aurrera egingo".

**Debagoiendarrik ez**

Kantxan ez da debagoiendarrik egongo: "Baina Bergaran hiru neska dabiltza palan, eta pozgarria da. Positiboa da txapelketa Bergarara ekartzea, jendeak ikus dezan emakumezkoak honetan ere bagabiltzala", dio Garmendiak: "Gainera, oso frontoi polita da". Txapelketa duela hamaika urte sortutako Emakumea Pilotari izeneko proiektuaren beste urrats bat da. "Aurrerapauso handiak egin dira, baina tinko jarraitu behar dugu lanean, asko dago egiteko".

## Bikoteen osaketa:

**Senior mailan:**

| | |
|---|---|
| Etxegia/Irigoien - Gartzia/Lopetegi | Bigarren maila |
| Goikoetxea/Arrieta - Senperena/Mendizabal | Lehenengo maila |
| Rodas/Arrillaga - Aldai/San Sebastian | Bigarren maila |
| Irati Otaegi/Mendizabal - Murua/Arozena | Lehenengo maila |
| Eider Otaegi/Erasun - Ciganda/Gabirondo | Bigarren maila |
| Araiztegi/Maiza - Garmendia/Eizmendi | Lehenengo maila |

ITURRIA: GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA

## Bergarak Urola liderra bisitatuko du bihar, zapatua

Talde mahoneroa bigarren postuan dago 17 punturekin, pasa den astean Intxurreri 4-0 irabazi eta gero. Oraingoan, Urolaren etxea bisitatuko du. Talde zumarragarra liderra da 18 punturekin eta talde bergarararrak puntu bat gutxiago dauka. Partida zapatuan jokatuko da, 16:00etatik aurrera, Argixaoko futbol zelaian.



Denboraldi-aurreko partidua. GOIENA

## Azaroan zehar hainbat ikastaro Agorrosinen

Guztira zazpi ikastaro egingo dira hilabete honetan eta hasiera egun ezberdinak izango dituzte. Izen emateko epeak ere ezberdinak izango dira. *Mini ikastaroak* izenekoek martitzenean itxi zituzten izen emate epeak. Bihar egingo diren urpekaritza sustapen saioek, berriz, eguaztenean itxi zuten izena emateko epea. Padeleko hastapen ikastaroa ere egongo da, hilaren 15ean hasiko dena. Azken honetan izena emateko plazak beteta daude jada.

**Igerilekuan hainbat ekintza**

Urpekaritza saioez gain, astelehenetik hilaren 20ra arte, hegats bakarra eta tutua erabiltzeko aukera egongo da, igerilekuko sorosleari eskatuta.

Hilaren 19an, ostera, Hegats Taldeen Txapelketa Nazionaleko lehen jardunaldia egingo da 16:00etan hasita.

## BKE eskubaloi taldeak aurkari zuzena izango du zapatuan

Gipuzkoako 1. Lurralde txapelketako seigarren jardunaldia jokatuko da asteburuan. Talde bergararrak Zumarragako Urola Laztimendi eskubaloi taldearekin neurtuko ditu indarrak, zapatuan 16:00etatik aurrera Labegaraietako kiroldegian. Hain zuzen ere, bi taldeak sailkapeneko beheko postuetan daude, lau punturekin.

## Pol Pol elkarteak irteera antolatu du azaroaren 20rako

Oraingoan, Nafarroako Baizako gailurra igoko dute. Egun guztiko irteera izango da, eta mendi irteeraren ostean bazkaria egingo dute. Izena emateak 40 euroko kostua izango du, eta lehenbailehen egitea komeni da. Horretarako, astelehen, ostegun eta ostiraletan elkarteko bulegoak zabalik egongo dira 19:00etatik 20:00etara.

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77


Iaz Gaztetxean antolatutako Bergarako Elektronika Topaketen emanaldietako bat . GOIENA

# Musika elektronikoa protagonista Gaztetxean

Txapa Irratian emititzen den *Haus of beats* irratsaioak urteurren festa ospatuko du zapatuan. 19:00etan *Canela en Surco* irratsaioak zuzeneko emanaldia eskainiko du Kartzela Zaharrean. 00:00etatik aurrera, hainbat DJk emanaldia egingo dute.

**Ibon Carmona** BERGARA

Txapa Irratian musika elektronikoa sustatzen duen *Haus of beats* irratsaioak urtebete bete du. Horren harira, zapaturako, urteurren ospakizuna antolatu dute Gaztetxean.

Iluntzeko zazpietan hasita, *Canela en Surco* irratsaioko kideek zuzeneko saioa egingo dute Kartzela Zaharretik. Ondoren, 00:00etan, Ene! bergararrak eta Bartzelonatik etorritako Abo Sou eta Ched Ed DJek musika elektroniko gaua zabalduko dute. Horien ostean, *Haus Of beats* irratsaioko hainbat DJk musika elektroniko gaua luzatuko dute. Iluntzean egingo den zuzenekoa doakoa izango da, baina gauerditik aurrera egingo diren emanaldietarako 5 euroko sarrera ordaindu beharko da.

**Zuzeneko irratsaioa**

*Canela en Surco* Bartzelonako ScannerFM musika-irrati kate independentean emititzen den irratsaioa da, eta biniloen salmentan espezializatua dagoen Discos Paradiso dendak babesten du. Era askotako disko musika, funk psikodelikoa eta afrobeat eta house estiloak ditu oinarri.

Zuzeneko irratsaioa eskaintzeaz gain, antolatzaileak saioa streaming bidez ematen ahalegindu ko dira, betiere, posible bada.

**Kanpoko eta bertako DJak**

*Haus of beats* irratsaioko kide Kepa Zabaletak azaldu duen moduan, gaueko lehen bi DJak arratsaldean *Canela en Surco* irratsaioan aritutakoak izango dira: "Hasteko, irratsaioko esatari nagusi Abo Sou-k eskainiko du emanaldia, eta, berarekin, kolaboratzaile lanak egiten dituen Chez Ed arituko da".

**ELEKTRONIKA OINARRI IZANIK, 'HAUS OF BEATS' IRRATSAIOAK 47 SAIO ESKAINI DITU AURTEN**

Breixo Martinezen izen artistikoa da Abo Sou. Bartzelonan bizi den galiziar honek urteak daramatza Afrika mendebaldeko eta Karibeko disko musikarekin lanean. Bere emanaldiak jazz espiritualetik house garaikideraino pasa daitezke.

Bartzelonako irratsaio horretako kideekin batera, aspaldian Bartzelonan bizi den Eneko Balzategi (Ene!) bergararrak ere hartuko du parte jaialdian.

Hiru emanaldien ostean, festak *Haus of beats* irratsaioko Buda, Balza eta Keep_a DJekin jarraituko du. "Irratsaioa bergarako hiru lagunek eramaten dugu aurrera, eta zapatuan DJ bezala ere arituko gara", azaldu zuen Zabaletak . "Hirurok Txapa Irratiko beste proiektu batzuetan ibilitakoak gara, eta duela urtebete, kultura elektronikoa bultzatzen duen *Haus of beats* irratsaioan murgildu ginen", gaineratu zuen.

## Emon taldeak Argentinan amaituko du bere bira

Talde bergarararren Sua Tour 2016 bira bere amaierara iristen ari da. Urtean zehar hainbat kontzertu eskaini ostean, pasa den urriko Kilometroetan aurtengo azken kontzertua eman zuen euskal lurretan. Bira amaierako kontzertu horiek Argentinan izango dira; hain zuzen, Necocheako euskal etxean, hilaren 11n eta 12an.

## 'Mozkorra parregarri' opera bihar Beasainen

Zapatu honetan, Usurbe antzokian, antzeztuko dute Peñafloridako kondeak idatzitako eta musikatutako opera komikoa, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak bultzatuta. Apirilean Gasteizen eta Madrilen izan ziren, eta ekainean Zumarragan. Zapatukoa, berriz, urteko azkenengo kontzertua izango da, eta sarrerak 5 eurotan salduko dira.

## Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan

Santa Zezilia eguna hilaren 22an ospatzen den arren, Bergarako Udal Musika Bandak santu honen eguneko kontzertua eskainiko du domeka honetan. Emanaldia 12:30ean hasiko da Udal pilotalekuan eta sarrera doakoa izango da. Kontzertuan bost abesti kantatuko dira; horien artean, Lokatzaren 40. urteurrenaren baitan sorturikoa. Aurretik, bandako musikariek kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar.

Santa Zeziliako ospakizunen barruan, martitzenean, Bergarako Orkestra Sinfonikoak doako kontzertua eskainiko du 20:00etan Mariaren Lagundiko elizan.

## San Pedro parrokiako organoaren aldeko kontzertua bihar

Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunak elkarteak *Musikaz blai organoaren alde* dirua biltzeko kontzertua antolatu du.

San Pedro parrokia berritu zenean, elkarteak organo handia babesteko premia ikusi zuen, eta, instrumentua maila guztietan babestu nahian, hura zaintzeko hainbat ekimen egiten hasi zen.

Zapatuan, 20:00etan hasita, Raul del Toro organo joleak eskainiko du kontzertua. Del Toro Nafarroako Musika Goi Kontserbatorioko organo irakaslea da. 12 urterekin hasi zen herriko parrokian instrumentu hau jotzen, eta geroztik elizako musika liturgikoaren zalea da.


NEREA MENDIZABAL

## Jesus Zabaletaren erakusketa

Martitzenean, Jesus Zabaleta *Sanson* margolari bergarararrak pintura erakusketa estreinatu zuen Pol-Pol tabernan. Olioz egindako margolanak azaroaren 30era arte egongo dira erakusgai.

Inaugurazioira artistaren lagun eta ezagunak gerturatu ziren, eta Zabaleta bera ere bertan egon zen.

# Azaroaren 25a "egunero landu beharrekoa da"

Martitzenean egin zen azaroko ohiko osoko bilkura Antzuolan. Bertan, EH Bilduk Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira aurkeztutako mozioa eta azaroaren 25ean egingo diren ekintzak aho batez onartu zituzten

**Maider Arregi** ANTZUOLA
Azaroko ohiko osoko bilkuran, Antzuolako Udal Etxegintza SA elkarteko ordezkaria izan zen. Besteak beste, iazko aurrekontuen eta elkarteko egoeraren berri eman zuen. Baina administrazio kontseiluko kide berriak ere izendatu zituzten eta aurreko kideen kargua baliogabetu zuten. Hala, aurrerantzean, Garazi Larrea, Alaitz Igarzabal, Beñardo Kortabarria eta Basilio Ormazabal izango dira elkarteko administrazio kontseiluko ordezkariak.

Behin ordezkariak onartuta, osoko bilkura eten eta batzar orokorra egin zuten kontseiluko kide berriekin. Eta amaitutakoan, jakinarazi zuten Antzuolako Udal Etxegintzak apenas dauzkala herrian proiekturik martxan. Izan ere, bere garaian, Torresoroa eta Olarango lanak, besteak beste, kudeatzeko helburuarekin sortu zuen Udalak elkartea. Hala, iazko balantzea positiboa izan zela-eta lortutako etekinak elkartearen erreserba-poltsara bideratzea onartu zuten aho batez.

**Kirol hitzarmenak**
Osoko bilkurara eroandako bigarren puntua kirol hitzarmen berrituena izan zen. Izan ere, elkarteek eurek eskatuta, aurrerantzean, elkarteek aurrez jaso gura dituzte diru-sarrerak. Hau da, kirol ekintzak hasi aurretik. Onartua izan zen proposamena.

**Mozioa: azaroaren 25a**
EH Bilduk, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, mozioa aurkeztu zuen eta aho batez onartua izan zen EAJ eta PSE-EE alderdien aldeko botoekin. Ongizate zinegotzi Larraitz Igarzabalek urte osoan lanean dihardutela esan zuen. Eta pozik jaso zuela alderdi guztien onarpena azpimarratu zuen. Azaroaren 25erako makina bat ekintza egingo dutela gaineratu zuen Igarzabalek: "Arratsaldeko zazpietan, urtero moduan, azaroaren 25ean, elkarretaratzea egingo dugu Herriko Plazan. Gaueko hamarretan hasita, Torresoroa aretoan, emakumeak protagonista dituen filma eskainiko da: *Prohibido recordar*. Bertan, Saturrarango kartzelan emakumeek bizi zuten egoera gogorra jasotzen da".

Ongizate zinegotziak aipatu zuen iaz jarri zutela martxan Berdinbidean plana. Izan ere, Antzuolako Udalak ahaleginak egiten dihardu sexuen arteko berdintasuna sustatzeko. Gogorarazi zuen indarkeria matxistaren kontrako zapi morea udaletxean eskuragai dagoela bi eurotan. Leiho eta balkoietan jartzeko dei egin dute.


Azaroko ohiko osoko bilkura. MAIDER ARREGI

**BERDINBIDEAN PLANA: SEXUEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO**


Jose Ramon Jauregi. M.A.

## Nekazaritza batzordean jardungo du

EAJko Jose Ramon Jauregi zinegotzia lehenengoz izan da osoko bilkuran. Besteak beste, Nekazaritza batzordean jardungo du. Ilusioz eta gogotsu murgildu dela politikan dio. Antzuolarren onurarako lan egiteko asmoa duela dio.


Pasa den asteburuan batu eta jarri zituzten ikusgai perretxikoak. IMANOL SORIANO

# 50 perretxiko mota erakusgai eta ikasgai Arrolaren eskutik

Arrolak antolatutako 'Egun Mikologikoak' ekimenaren barruan, mendi irteera egin zuten perretxikoak batzeko

**M.A.** ANTZUOLA
Aspaldiko partez, mikologia erakusketa egin zuten Antzuolan. Hainbat irteera egin zituzten perretxiko bila. Jasotakoak sailkatzea, izendatzea eta erakusketan ikusgai ipintzea izan zen helburu nagusia.

Arrola elkartean gustura dira Egun Mikologikoak egitasmoak emandakoarekin. "Gure asmoa izan da herritarrei erakustea inguruan zein perretxiko ditugun, eta mundu hori neska-mutikoei ere gerturatzea. Eguraldiak ez du askorik lagundu, baina helburu didaktikoa bete egin dugula uste dut", esan du Arrolako presidente Juanma Lasak.

Ez da lehenengo aldia Antzuolan erakusketa mikologikoa egiten dutela, baina urte asko dira azkenengoa egin zenetik. 50 bat espezie erakutsi zituzten Olaran etxean ipinitako erakusketan. Mahai batean gainean jarri zituzten txukun-txukun sailkatuta pasa den asteburuan.

Herri Eskolako neska-mutikoek ere irteeran parte hartu zuten eta ekarritako perretxikoekin ere osatu zuten erakusketa. "Lurra siku zegoen eta basoan perretxiko gutxi"; argitu zuten.

**ANTZUOLAKO UDALA**
Iragarkia

Antzuolako Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa puntuala: 3. area. Hasierako onarpena.

Udalbatzarrak, 2016ko urriaren 4an egindako bileran ondokoa erabaki zuen:

**Lehenengo.-** Antzuolako Hiri Antolaketa Arauen 3. Areari dagokion aldaketa puntuala hasiera batez onartzea.

**Bigarren.-** Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz eta hilabetez egongo da jendaurrean, azken argitalpenetik kontatzen hasita.

Antzuolan, 2016ko urriaren 5ean.
Bernardo Rafael Kortabarria Olabarria, Alkatea.



Gazte txokoko dinamizatzaileak eta gazteak talde argazkian. AITZIBER ARANBURUZABALA

# Gazte txokoko eskaintza, gazteekin osatutakoa

Asteburuan zabaldu zituen ateak herriko gazte txokoak. Apirila bitartean, zapatuetan 17:00etatik 21:00etara eta domeketan 17:00etatik 20:00etara irekiko ditu ateak. Nobedade gisa, aurtengoan gazteek eurek proposatutako ekintzak egingo dituzte

**A.A. / M.A.** ANTZUOLA

Gazte txokoan hiru hezitzailek eta koordinatzaile batek jarduten dute 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxo antzuolarrekin lanean. Aurten, gainera, lehenengoz ahotsa eta lehentasuna gaztetxoei eta euren nahiei eman diete. Hala, lehen asteburuan, zer-nolako gazte txokoa eduki gura duten hausnartu dute.

"Aurten bereziki eurei eskaini gura diegu programazioa antolatzeko aukera, eta, horretarako, batzarrak egingo ditugu hilabete bakoitzaren hasieran gaztetxoen parte-hartzea bultzatuz. Euren ideiekin eta parte -hartzearekin dituzten ideiei irteera eman gura diegu", azaldu du Itsaso Garmendiak, gazte txokoko koordinatzaileak.

"Ekintzen zerrenda gazteekin osatzeaz gainera, gazte txokoa eurena dela sentitzea gura dugu, eta, horretarako, lokalean aldaketak egiteko aukera ere eskaini nahi diegu: paretak margotu, altzariak aldatu, material berria erosi... Ahal den heinean, euren eskaerak betetzea izango da gure ahalegina, eta, esan moduan, izaera aldakorra izango duen parte-hartzea bultzatuko dugu denon artean zer-nolako gazte txokoa gura dugun eraikitzeko", kontatu du Andoni Zabalo dinamizatzaileak.

### Mendi irteerak eta tailerrak

Gazteek ondo hartu dute batzar bidez euren ekimenak antolatzeko proposamena. "Lan egiteko modu aberasgarria da guztiontzako. Iaz egin genituen irteera batzuk berriz egiteko ideiak bota dituzte; baina baita bestelako proposamen berri eta interesgarriak ere: herria eta inguruak hobeto ezagutzeko irteerak; askotariko tailerrak; ping-pong, mahai-futbol, billar eta bestelako txapelketak, musikariak gonbidatzea... Gauzatzeko zailagoak diren beste batzuk ere egin dituzte, eta saiatuko gara ahal diren guztiak aprobetxatzen. Oraingoz, erabaki dugu asteburu osoko irteera bat egitea laster, eta ikasturte amaieran beste bat. Datozen asteotan musikari bat ere ekarriko dugu. Hilabete hasiera guztietan adostu dugu batzarra egitea hilabete horretan egingo ditugun ekintzak guztion artean proposatzeko", gaineratu du Zabalok.

Hala, ikasturte berriko gazte lekua gazteek eurek egindakoa eta proposatutakoa izango da. Aurreko asteburuan ireki zituen ateak eta aurrerantzean, apirila bitartean, zapatuetan 17:00etatik 21:00etara eta domeketan 17:00etatik 20:00etara herriko gazteek elkarrekin askotariko ekimenak proposatu eta egiteko aterpea izango dute Eguzki auzoan dagoen herriko txokoan.

**GAZTETXOEN IDEIEI IRTEERA EMATEA DA HELBURUA; GAZTE TXOKOA EURENA DELA SENTIARAZTEA, ALEGIA**

## Oraingoz, pilotalekuko atea itxita dago, erabilera okerragatik

Asteon hartu du erabakia Udalak. Aurrerantzean pilotan jokatu gura duenak udaletxean eskatu behar du giltza

**M.A.** ANTZUOLA

Azaroaren 8tik aurrera pilotalekua ixtea erabaki du Udalak. "Aspaldi gaizki erabiltzen ari dira: aulkiak puskatzen dituzte, erre, zikinkeria nonahi zabaltzen dute, gimnasia erritmikoko biltegia ireki, koltxonetak zikindu, metalezko pertsianen kontra kolpeka aritzen dira, atea bitan puskatu dute gutxienez lau hilabetetan, ate handia zabalik uzten dute... Neurri hori orain hartu da, baina patioarekin ere hartu genezakeen, han ere aulkiak puskatu, erre eta inguru guztia zikintzea ohikoak direlako. Oraingoz, pilotalekuaren erabilera mugatu egin dugu, jendeak apur bat kontzientzia har dezan", argitu du alkateak. Gaineratu du arratsaldean eskolatik irtetean hara joaten diren haur eta gurasoek erabiltzeko aukera izango dutela udaletxeko bulegoan giltza eskatuta eta ixteaz arduratuko direla esanda. "Ez du egunero etortzen ibili beharko, berriro irekitzea erabakitzen dugun arte eduki ahal izango du giltza. Heziketa lehenengo; hori da oinarria, denon artean zaintzea".




Pilotalekua itxita. MAIDER ARREGI

### Lehen Erregionalekoek derbia jokatuko dute Aloñaren aurka, bihar

Sailkapen nagusian lehen postuan jarraitzen du Igor Larrearen eta Josu Zubikarairen futbol taldeak. Pasa den jardunaldian Aretxabaletaren aurka irabazi ostean, gainera, puntuak gehituz doaz antzuolarrak. Hala, 18 puntu dituzte, oñatiarrek baino lau gehiago. Derbia, baina, Eztala futbol zelaian izango da, zapatuan 16:00etan.

### Euskararen garrantziaz hausnartzeko jaia

Azaroaren 17an, euskararen erabileraz gogoeta egitera animatuko ditu Udalak herriko guraso eta gaztetxoak. Hala, 16:30ean abiatuko den festan txokolate-jana eta musika izango dira patioan. Ondoren, Kike Amonarrizek herriko euskararen erabileraren gaineko hausnarketa egingo du Olaraneko hitzaldian 18:30ean hasita.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**ALBERDI MIREIA**
Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

**LAURA ALUTIZ**
Arrasate / Otalora,18 solairuartea 687 97 69 76

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA**
**(AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

**SADHANA YOGA**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.


El Rincon de Lola tabernako Maria Cobok domekan jaso zuen txapela. L.Z.


'Natura' pintxo irabazlea. L.Z.


Bolatoki tabernako pintxoa. L.Z.


Haizea tabernako pintxoa. L.Z.


Maialde landetxeko pintxoa. L.Z.

# Bezeroen iritzia gura dute orain ostalariek

El Rincon de Lola tabernako Maria Cobok jantzi du Elgetako IX. Pintxo Lehiaketako txapela. Epaimahairen balorazioak 'Natura' pintxoari eman dio saria. Orain, bezeroek dute hitza. Bi domeka dituzte lehiaketako pintxoak dastatzeko eta botoa emateko

**Larraitz Zeberio** ELGETA
Pozik da sariarekin El Rincon de Lola tabernako Maria Cobo. Abenduan zabaldu zuen taberna Elgetan eta lehenengo Pintxo Lehiaketa izan da berarendako. "*Natura* pintxoa aurkeztea pentsatu nuen. Lehendik ere aurkeztu izan dut beste pintxo lehiaketa batzuetara eta irabazi izan du", azaltzen du Cobok. "Nik erabakitako pintxoa da eta garrantzitsua da niretzat. Tabernarendako ere oso garrantzitsua dela uste dut".

**Lau pintxo lehiaketan**
Herriko lau tabernak hartu dute parte, aurten, Pintxo Lehiaketan: Haizea tabernak, Bolatoki tabernak, Maialde landetxeak eta El Rinco de Lola tabernak. Erronka berezia da guztiendako eta zaindutako pintxoak aurkezten dituzte. Horren jakitun bezeroek ere arreta bereziarekin hartzen dituzte pintxo domekak. Mugimendu handia zegoen herriko tabernetan domeka eguerdian. Zenbait kasutan txanda ere itxaron beharra izan zuten bezeroek lehiaketako pintxoak dastatzeko.

**Publikoaren Saria jokoan**
Hiru lagunek osatu zuten domekan epaimahai ofiziala: Manu Sarasua erretiratuen elkartetik, Ainara Arantzeta gaztetxetik eta Saioa Alberdi guraso elkartetik. Hurrengo bi domeketan gainerako bezeroen iritzia jaso gura dute antolatzaileek. Lau pintxoak dastatu beharko dira botoa eman ahal izateko. Boto gehien lortzen dituenak jasoko du Publikoaren Saria. Gogoratu pintxoak euro bateko prezioan egongo direla salgai. Martxan da baita ere pintxoen osagaiak asmatzeko lehiaketa. Txarteltxoak eskuragarri izango dira.

## Bisita, argazki lehiaketa eta magia

Bigarren pintxo domekaren bueltan hainbat ekintza antolatu dituzte herrian. 10:00etan bisita gidatua egingo du Nerea Villak elizan. Ez dago aurrez izena eman beharrik eta bisita amaieran organoa joko du Lorea Larrañagak parte-hartzaileendako. Argazki lehiaketa ere antolatu du Udalak. 12:00etan emango diote hasiera eta lau gai proposatuko dituzte. Parte-hartzaileek 14:00ak aurretik bidali beharko dituzte argazkiak *danonartian@elgeta.net* helbide elektronikora. Saria da argazki kamera digital bat. Magia ere izango da, domekan, Elgetan. Asier Kidam mago gasteiztarrak hainbat trikimailu egingo ditu tabernaz taberna, 12:30ean hasita. Eguerdiko txikiteoan, beraz, magia bertatik bertara ikusteko aukera izango dute, domekan, Elgetara gerturatzen direnek.

# "Gabonetako apaingarriak egingo ditugu herrian saltzeko"

**NEREA VILLA** GAZTELEKUKO DINAMIZATZAILEA
Gaztelekuan ekintzaz beteta dator udazkena eta negua

**L.Z.** ELGETA
Orain hilabete hasi zuten ikasturtea gazteleku zerbitzuan. Hainbat ekintza egin dituzte denbora horretan, eta beste hainbat dituzte aurreikusita apirilera bitartean.


Nerea Villa. L.Z.

**Norendako da Elgetako gazteleku zerbitzua?**
Bosgarren mailatik gorako neska-mutikoendako zerbitzua da. Oraingoz, seigarren mailakoak daude eta bosgarren mailakoren bat. Zerbitzua apirilera arte dago zabalik. Zapatuetan eta domeketan, 16:00etatik 20:00etara. Izen-ematea zabalik da beti.

**Karetak saltzen ikusi zaituztegu urri amaieran?**
Bai. Erabiltzaileek irteera egin nahi dute Senda Vivara eta Arimen Gauerako karetak saltzea otu zitzaigun. 36 euro atera ditugu eta irteerarako gordeko dugu diru hori. Ekintza gehiago ere egingo ditugu.

**Zer duzue buruan?**
Gabonetako apaingarriak egingo ditugu basoan aurkitutako fruituekin, eta asmoa da horrekin ere dirutxo bat ateratzea. Orain dela hiru bat urte berdina egin genuen eta harrera oso ona izan zuen ekimenak.

**Herritarrak ere gonbidatuko dituzue aurten gaztelekura, ezta?**
Bai. Azaroaren 20rako Izar Irazabal, Aitzol Oiartzabal, Iratxe Bravo eta Jose Estevez gonbidatu ditugu. Afizio banaren berri emango digute: Irazabalek manga marrazkiak egiten ditu, Oiartzalbalek Crav maga arte martziala, Bravok gezi jaurtiketa eta Estevezek modelismoa.

**Irteerak ere aurreikusi dituzue.**
Bai, perretxikoak batzera eta mugarriak ezagutzera. Logotipoa ere aukeratuko dugu eta mahai -futbol txapelketa egingo dugu.



LAB

# Alfa Decoko langileak kezkatuta

LAB sindikatutik jakinarazi dute CIE Alfa Deco enpresak urtea amaitu aurretik gauzatuko dituen lau kaleratze iragarri dituela, eta izan daitekeela bakarrak ez izatea. Informazioa eskatzen dute langileek. Elkarretaratzea eta lanuztea egin zituzten aurreko astean. Erantzun barik jarraitzen dute.

# 1.763 mailegu azken urtean Udal Liburutegian

Felix Irizarrek irabazi du urtebetean haur literaturan zein helduenean euskaraz eta gazteleraz jendeak gehien irakurri dituen liburuak zeintzuk izan diren asmatzeko antolatutako lehiaketa; ondorioz, e-reader bat eraman du etxera sari moduan

**Maite Txintxurreta** ELGETA

Urrian zehar, azken urtean zehar Elgetako liburutegian gehien mailegatu diren liburuak zeintzuk izan diren asmatzeko lehiaketa burutu zuten. Bada, lehiaketa horrek dagoeneko badu irabazlea: Felix Irizar. E-reader bat eskuratu du.

Dena den, bera ez da izan erantzun guztiak zuzen eman dituen bakarra. Parte hartu dutenen %90ek zuzen erantzun dutela azaldu du liburutegiko Geaxi Ezpeletak. Hori dela eta, irabazle guztien artean zozketa egin zuten, eta, azkenik, Felix Irizar izan zen zorteduna.

**Mailegatuenak**

Lehiaketa honetan, 2015eko urriaren 1a eta aurtengo irailaren 30a bitartean gazte literaturako eta helduei zuzendutako euskarazko zein gaztelerazko liburuk mailegatuenak zeintzuk izan diren asmatu behar zuten parte hartzaileek; beraz, lau izenburu asmatu behar izan dituzte.

Bada, gazte literaturan gehien mailegatu den euskarazko liburua Gianni Rodariren Telefonozko ipuinak izan da (bi aldiz mailegatua) eta gaztelerazkoa, berriz, Rachel Renee Russelen Diario de Nikki (lau bider).

Nagusiei zuzendutako liburuen kasuan, aldiz, gehiago errepikatu dira mailegatutako liburuak.

Bestalde, joan den urtean liburutegian zenbat mailegu egin ziren aditzera eman du Geaxi Ezpeletak. 2015. urtean zehar 1.815 mailegu egin zituzten. 2015eko urritik 2016ko irailera bitartean, berriz, 1.763 izan dira; horietatik 938, 16 urtetik beherakoek eraman dituzte etxera, eta gainontzeko 825ak, berriz, adin horretatik gorakoek.

**Urriko zozketaren irabazleak**

Horrez gain, urriaren 24an izan zen Liburutegiaren Nazioarteko Egunean zozketatutako liburuak ere banatu dituzte. Adin tarte desberdinetarako aleak zozketatu zituzten, eta Marak, Ireak, Maiderrek, Anderrek eta Ainhoak liburu bana eraman dute etxera.

**Marrazki lehiaketa**

Azaroan zehar, liburutegiko marrazki lehiaketaren laugarren edizioa egiten dihardute, *Ametsetako liburutegia* gaia oinarri hartuta. Lehiaketa hiru adin tartetan banatuta egongo da (5-8, 9-12 eta 13-16), eta lehiakideek hilabete osoa izango dute beraien marrazkia liburutegian aurkezteko. Ezpeletak azaldu du dagoeneko entregatu dituztela zenbait lan. Marrazkiok gutun-azal batean aurkeztu beharko dira, eta horren barruan beste gutun-azal txiki bat sartu beharko da, egilearen datuekin.

Gerora, hiru marrazki irabazleak kultur etxeko hormak apaintzeko egokituko dituzte, eta egileak sarituak izango dira.

## Libururik mailegatuenak




**Telefonozko ipuinak**
Gianni Rodari
• **Generoa** Gazte literatura.
• **Orriak** 224.
• **Hizkuntza** Euskara.




**Diario de Nikki**
Rachel Renee Russel
• **Generoa** Gazte literatura.
• **Orriak** 336.
• **Hizkuntza** Gaztelera.




**12etan bermuta**
Jasone Osoro
• **Generoa** Drama.
• **Orriak** 128.
• **Hizkuntza** Euskara.




**La chica del tren**
Paula Hawkins
• **Generoa** Nobela beltza.
• **Orriak** 496.
• **Hizkuntza** Gaztelera.

## Euskadiko hiru txirlo txapelketaren finala zapatuan

Javier Osoro, Bittor Ugarteburu eta Esther Goenaga dira txapela eskuratzeko aukera gehien dutenak

**Maite Txintxurreta** ELGETA

Bihar arratsaldean, zapatua, Euskadiko hiru txirlo bolo txapelketako finala jokatuko dute Elgetan. Arratsaldeko bostetan hasiko dira jaurtialdiekin bolatokian.

Erkidegoko txoko desberdinetatik 50 pertsona inguru etorriko dira parte hartzera.

Lau jardunaldietan azkenengoa izango da Elgetakoa; beraz, bertan erabakiko da zein izango den txapelduna. Javier Osoro Elgoibartarra da guztietan abantaila gehien daramana, bera baita sailkapenean lehena, 14 txirlorekin. Bigarren, berriz, Bittor Ugarteburu eibartarra da, 13 txirlorekin, eta 12 txirlo daramatza sailkapenean hirugarren den Esther Goenaga bizkaitarrak.

**Elgetako taldea**

Txapelketan dihardun Elgetako taldeko kide Sebas Arantzabalek azaldu du elgetarrak ez direla nahi bezain ondo ari. Hain zuzen, Arantzabal bera da, oraingoz, puntu gehien daramatzana, sei txirlo eskuratuta.



MIREN ARREGI

## Eskola pilota martxan

Eguazten arratsaldean berriro ere ekin zieten, Gabonetako txapelketara begira, eskola pilotako entrenamenduei frontoian. Gaztetxoak gustura ibili ziren Etor Garateren aholkuak jarraituta. Garatek dio gustatuko litzaiokeela txapelketa ostean ere eskolari jarraipena ematea, kirol hori gustuko duten haurrek urte osoan zehar horretan jarduteko aukera izan dezaten.

### PILOTA TXAPELKETA

| EMAITZAK - 3. JARDUNALDIA | |
|---|---|
| H. Gallastegi-O. Askasibar / J.M Zubiaurre-P. Larrea | 08-18 |
| I. Retolaza-M. Elkoro / I. Ugarteburu-S. Bouzas | 18-05 |
| M. Beretxinaga-I. Unzetabarrenetxea / E. Garate-E. Maguregi | 14-18 |
| D. Cantabrana-T. de Vega / E. Ormaetxea-A. Valle | 13-18 |

| PARTIDUAK, 4. JARDUNALDIA |
|---|
| GAUR, BARIKUA, 18:30EAN |
| I. Retolaza-M. Elkoro / J.M Zubiaurre-P. Larrea |
| O. Erostarbe-G.Arizmendiarrieta / A. Elortza-O.Sarasua |
| J. Mañarikua-B.Arabaolaza / E. Ormaetxea-A.Valle |
| D. Cantabrana-T. de Vega / E. Garate-E. Maguregi |

EGUBAKOITZA 2016-11-11 GOIENA ALDIZKARIA



Irati Etxeberria, Nerea Zubia eta Aitor Madina, Jose de Azpiazu musika eskola barruan. I.B.

# Irisgarriagoa izango da herriko musika eskola

Arrapalak jarriko dira Jose de Azpiazu musika eskolako sarrera nagusian eta modulu baten sarreran eta komunetan ere lanak egingo dira, gurpil aulkiak pasa daitezen egokituta. Urtea bukatu aurretik hasi eta amaituko dituzte obrak.

**Imanlo Beloki** OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolan irisgarritasuna hobetzeko obrak hasiko dituzte laster. Orain arte, argiteria eta aparkalekua egokitzea bezalako lanak egin dituzte, eta orain beste hainbat lan egingo dituzte. "Kanpoan zakarrontziak jarriko ditugu. Barrua irisgarri egiteko, berriz, bi arrapala jarriko dira: bat sarrera nagusian eta bestea lehenengo moduluko sarreran. Horrez gain, beheko solairuan dauden bi komunak gurpil aulkiak sartzeko egokituko ditugu", zehaztu du hirigintza zinegotziak, Irati Etxeberriak.

Urtea bukatu aurretik egingo dituzte lanak, baina ez dute zehaztu noiz. Hasi eta bukatzeko hamabost egun beharko dituzte.

### Eraikina

Musika eskolako eskaintza geroz eta handiagoa da eta ikasle kopurua ere handitzen ari dela adierazi du Aitor Madinak, Jose de Azpiazu musika eskolako zuzendariak. Bestalde, Gorritxitxiko aldapak ez duela askorik laguntzen adierazi du eta irtenbide bat aurkitu arte egokitzapen-lan hauek egingo dituztela. "Musika eskolak duen eskaintza gero eta zabalagoa denez, ikasleen profilak ere ezberdinak dira. Hona etortzeko dagoen aldapa igotzeko arazoak dituzte batzuek, egokituta ez dagoelako, eta, alde horretatik, eskerrak eman gura dizkiogu udalari", adierazi du Aitor Madinak.

Aldapa traba izan daitekeen arren, eraikina bera ere txiki gelditu dela onartu dute udaleko zein musika eskolako ordezkariek. Nerea Zubia kultura zinegotziak azaldu du musika eskolaren etorkizunari irtenbide bat emango diotela: "Ikastaro honetan adar berri bati heldu diogu, dantzari. Eraikin honetan egon beharrean institutuan ematen dituzte dantza eskolak. Errealitatea da txiki gelditu dela eraikina eta dagoen moduan ez dela funtzionala. Obra hauek lagunduko dute, baina epe ertainera beste irtenbide bat eman behar zaio eraikin honi". Agustindarren eraikina aipatu zuten, baita dagoena bota eta berria egitea ere. Hausnarketa hasi besterik ez dutela egin onartu zuten udal ordezkariek. Dena den, agintaldia amaitzerako erabakiren bat hartuko dutela aurreratu zuten.

**ERAIKINAREN ETORKIZUNAREN GAINEKO ERABAKIA HARTUKO DUTE AGINTALDI HONETAN**

### 380 ikasle

Jose de Azpiazu musika eskolak 380 ikasle ditu egun, gazteenek 2-3 urte dituzte eta nagusienak jubilatuta daude. Egungo bidean jarraitzeko asmoa dute, baina denek onartzen dute oraingo kokapena muga dela eskola gehiago garatzeko.

## Udal Gobernuak aurrekontuetan jasoko ditu gaztetxoen ideiak

Abenduaren 22an onartu gura dituzte aurrekontuak eta herritarren proposamenak hil amaiera arte jasoko dituzte

**Oihana Elortza** OÑATI

Udal Gobernua osatzen duen EH Bildu alderdia ari da datorren urteko aurrekontuak lantzen. Teknikariekin batera lantzen ari dira hainbat proiektu, baina herritarrekin batera ere osatu gura dituzte aurrekontuak. Hala, gogorarazi dute udal webgunean bitartez edo teknikari zein zinegotziekin hitz eginda, herritarrek aukera dutela euren proposamenak egiteko. Azaroaren amaieran itxiko da epe hori. "Gobernu plana eratu genuenean finkatu genuen agintaldiko bide-orria, eta handik edango dugu, baina herritarren eta teknikarien proposamenak ere kontuan hartuko ditugu", azaldu du Nerea Zubia zinegotziak. Dena dela, Udal Gobernuan dauden zinegotziek aurreratu dute ume eta gaztetxoekin Arazerixan! landutako proposamenak aztertzen ari direla teknikariekin batera eta horietako batzuk datorren urteko aurrekontuetan sartuko dituztela. "Beste herritarren proposamenekin batera aztertuko ditugu eta konpromisoa hartzen dugu abenduko osoko bilkura egin ostean eurengana joan eta azaltzeko zer onartu den eta zer ez eta zer egingo den 2017an", gaineratu du Zubiak.

### Parte-hartzea

Parte-hartze sistemak erabili ditu Udal Gobernuak, 2011tik, aurrekontuak lantzeko, eta geldiune bat egin eta prozesu hori baloratzeko garaia heldu dela uste dute. "Gabonen ostetik udara bitartean ebaluatu egingo da parte-hartze sistema. Bi helburu izango ditu ebaluazio honek: operatiboa izango da eta parte-hartzailea", esan du Onintza Andres parte-hartze teknikariak.

## Enpresaritza fakultatean izango dira odol ateratzeak

Oñatiko Odol Emaileen elkarteak jakinarazi duenez, hemendik aurrera odol ateratzeak Mondragon Unibertsitateko enpresaritza fakultatean izango dira, Ibarran. Ordutegi arazoengatik aldatu dute tokia osasun zentrotik Ibarrako eraikinera. Gaur egingo dute azaroko ateratzea, 17:00etatik 19:00etara. Hurrengoa abenduaren 2an izango da.

## Espeleotxiki abentura egingo dute zapatuan Arrikrutz kobetan

Kobazuloko ohiko bisitetan ikusten ez diren gela eta galeriak ezagutzeko irteera berezia antolatu dute zapaturako Arrikrutzen. Sei urtetik gorako gaztetxoendako da eta parte-hartzaile bakoitzari kaskoa eta beharrezko materiala emango dieten arren, arropa erosoa eramatea gomendatzen dute. 15:30ean da eta bi ordu eta erdi iraungo du.

## Gaztelekuko xake txapelketa hilaren 26an jokatuko da

Jokoa suitzar erara jokatuko da, sei itzulitara, eta bakoitzak hamabost minutu izango ditu bandera jaitsi arte. Zortzi sari egongo dira guztira, tartean herriko lehen gazte emakumeari eta herriko lehen gazte gizakumeari. Izena gaztelekuan eman daiteke, edo *gazteinformazioa@onati.eus* helbidera idatzita. Azken eguna azaroaren 23a da.

## Kilometroetako arropa eta osagarriak Hankaluzenian salgai

Bakardadeko Ama kalean zegoen Hankaluze dendan jarriko dute salgai Kilometroak 2017 festako materiala. Ume, gazte zein nagusiendako arropaz gain osagarriak ere egongo dira, festako leloarekin eta irudiarekin. Astelehenetik eguenera 17:00etatik 20:00etara; egubakoitzetan 10:00etatik 13:00etara ere bai eta zapatuetan goizez bakarrik.



1917. urtean landatu zuten Gernikako arbolaren adaxka bat herriko plazan.

# Txosten baten jasoko dute arbolaren egoera

Astelehenean etorri zen aditu bat Foruen plazan dagoen Gernikako arbolaren azterketa egitera. Goiz osoa pasa zuen arramak aztertzen eta idatziz helaraziko dio udalari ikusitakoa. 2017ko otsailaren 2an beteko ditu 100 urte haritz horrek.

**Oihana Elortza** OÑATI

Urriaren 17an adar sendo bat apurtu eta erori zitzaion Foruen plaza ondoan dagoen Gernikako arbolari. Ezustean erori zen arrama hori. Aurretik beste adar batzuk ere erori izan zaizkio, eta arbolaren egoera aztertzea erabaki du Oñatiko Udalak.

### Azterketa

Astelehenean etorri zen aditu bat azterketa egitera. Hiriko zuhaiztietan espezializatua da Gabriel Iguiñiz. Oñatiko Udaleko kamioi baten laguntzarekin garabian gora igo eta udal langile batekin batera goiz osoa pasa zuen Iguiñizek haritza aztertzen.

Bi hamarkada baino gehiagoko esperientzia du Iguiñiz-ek hiri eta herrietako zuhaiztiak aztertzen. Arrasateko Arbolapetan urtetan egon zen gaztainondoa kendu ostean berak egin zuen lurraren eta inguruaren azterketa, zuhaitz berria nola landatu aholkatzeko. Italiatik ekarritako haritza jarri zuten gero eta udaberrian bigarren txosten bat egin zuen, haren egoera txarra aztertu ostean.

Oñatiko Gernikako arbolarekin ere gauza bera egingo du. Aztertzen egon da eta txosten baten jasoko ditu arramen erorketaren arrazoiak, zuhaitza bera ze egoeratan dagoen edo arrama batzuk moztu edo kimatu beharra duen, adibidez. Txosten hori Oñatiko Udalari entregatuko dio. Gabriel Iguiñiz-ek, baina, ez du zehaztu noizko bukatuko duen txosten hori. Lan hori eskuetan duela erabakiko du udalak zer egin aurrerantzean adar erorketa gehiago gerta ez daitezen, horrek sor dezakeen arriskua kontuan hartuta, batez ere. Orduan jakingo da itxura ona duen zuhaitzaren osasun egoera ere zein den.

**ARBOLAREN INGURUAN HESIAK DAUDE JARRITA ETA ARROPEN AZOKA SANTA MARINAN DA**

### Urteurrena

Foruen plaza ondoan dagoen haritza hesiz inguratuta dago orain, segurtasunagatik. Zapatuetan hor egiten den arropen azoka ere Santa Marinako plazan egingo da harik eta egoerari irtenbide bat topatu eta hesiak kendu arte.

Oñatiko Gernikako arbola 1917an landatu zuten; 2017ko otsailaren 2an beteko ditu 100 urte. Egun horretan ateratako argazkian ikusten den moduan, herritar asko hurbildu ziren tokira, landatzea bertatik bertara ikusteko. Herriko bi mutikok sartu zuten lurrean haritza, Jose Mari Gomendiok eta Anjel Ortizek. Aurretik meza egin zuten eta haritza bedeinkatzera joan zen orduko parrokoa, Berezao auzoan jaiotako Ladislao Sagastizabal.



NIRE USTEZ

**JOSE LUIS MADINAGOITIA**

## Ze kezkak!

Aspaldi honetan gure adineko pertsonen artean gai berri batek lekua hartu du eguneroko elkarrizketetan. Gizarte-segurantzaren pentsioak iraungo ote du edo sistema pikutara joango da?

Ulertzekoa da jubilatuak edo adinagatik erretirora hurbiltzen ari direnak arduratuta egotea, pentsio sistemaren gain entzuten den informazioagatik: sistema erortzen ari dela, pentsio sistemaren Erreserba Kutxa husten doala eta egunak kontatuta dituela, sistemak diru sarrerak baino irteerak gehiago dituela, erretiratu kopurua gorantz doala eta langile aktiboak ez duela igotzen neurri berean, eta abar.

Horrela izango da? Egia dena da sistemaren diru sarrerak langile aktiboengandik datozela, eta gaurko langabeziaren mailak ez du larregi laguntzen. Beste aldetik, bizi itxaropena goraka doa, eta hori nahi dugu! Ikusi besterik ez daukagu gure inguruan zenbat pertsonak betetzen duen 100 urte; lehen, bakarren batek.

Politikariek, azken urte hauetan, asko hitz egiten dute gai honen inguruan, eta, normala denez, hartu beharko dituzte neurriren batzuk egoera zuzentzeko, denborak ez du-eta zuzenduko. Bien bitartean, ulertezina da Pentsio Sistemak ekonomia urte onetan sortu zuen Erreserba Kutxa gastatzen joatea gizarte-segurantzak dituen beste zulo batzuk tapatzeko. Erreserba Kutxa hori izugarri jaitsi da, heren batera azken bost urteetan, eta azken berriek aurreikusten dute datorren urteko abenduaren aurretik kutxa hutsik geratuko dela. Eta orduan zer? Zerbait egin beharko dute eta berandu baino lehen hobeto; bestela, gure kezkek hor jarraituko dute.




San Miguel, Aitzulo eta Aloñako mendilerroa ageri dira postalean. NATXO SANTOS

# Correos-ek herriko argazkiak dituen postalak egin du

**Oihana Elortza** OÑATI

Oñatiko ondare kulturala eta naturala jasotzen dituen hiru argazki aukeratu ditu Correos-ek postala egiteko: San Miguel goiaingerua (Corpusetako prozesioko pertsonaje ezagunena eta bertako zaindaria izatearren), Aloñako mendilerroa (Oñatiren ingurune naturalaren adierazgarri) eta Aitzuloren *begia* (begiratoki paregabea delako, besteak beste).

### Euro baten

1.000 postal atera ditu eta postetxean eros daitezke, euro baten, eta ez du zigilua jarri beharrik. Espainiako Estatuko edozein tokitara bidaltzeko balio du. Argazkiak Natxo Santos argazkilari oñatiarrarenak dira.

# Goi mailako gonbidatuak Mendi Hamabostaldian

Gaur, egubakoitza, hasi eta azaroaren 17ra bitartean, mendiarekin lotutako hainbat hitzaldi eta dokumental ikusteko aukera izango da kultura etxean; XIII. Mendi eta Natura Argazki Lehiaketako lanak ere bertan daude ikusgai dagoeneko

**Eneko Azurmendi** OÑATI
Orain arte Juanito Oiarzabal, Josune Bereziartua eta Alex Huber bezalako protagonistak izan dira, eta, aurten ere, azken urteetako ohiturari horri jarraituz, maila handiko gonbidatuak izango dira Mendi Hamabostaldian, gaur hasita.

Jorge Perez antolatzaileetako baten esanetan, azken momentura arte ez dute lotu egitaraua. "Gorabehera batzuk direla eta, gonbidatu batzuk ezin izan ditugu azken momentura arte lotu; hala ere, egitarau txukuna egin dugula uste dut", azaldu du.

Gaineratu du, ordea, herritarren harrera zein izango den jakitea ez dela erraza. "Goi mailako gonbidatuak direnean, normalean, aretoa bete egiten zaigu. Baina ez direnean horren ezagunak, aretoa betetzea zailagoa da. Badaude gonbidatuak eskalatzaileen edo mendizaleen komunitate batean bakarrik ezagunak direnak, eta, agian, horregatik ez du hainbeste arreta deitzen. Baina, oro har, guztiak interesgarriak direla eta pena merezi dutela uste dut", dio.

**Antolakuntzan, gustura**

Perezek nabarmendu du talde txiki bat direla eta gustura aritzen direla urtero ekitaldi hau antolatzen. "Ez da lan zaila, aurreko urteetan gonbidatu izan ditugun mendizaleen bitartez joaten gara, gehienbat, hurrengo urteetakoak lotzen eta, bata ez bada bestea, beti egoten da norbait prest hona etortzeko. Alde horretatik, ez dugu arazorik. Cecilia Buil eskalatzailearen kontaktua, adibidez, Alex Txikonen bitartez lortu dugu, aurretik ezagutzen dugu eta", zehaztu du. Gaineratu du gustatzen zaien zerbait dela eta "pozik" egiten dutela.


B saileko hirugarren saria jaso duen argazkia, *Foxy* izenarekin. JORDI BUSQUETS

## Egitaraua:

**Gaur, 19:00etan:**
- XIII. Mendi eta Natura Argazki Lehiaketako sari banaketa.
- Cecilia Buil, *Escalada en roca y hielo en los cinco continentes.*

**Azaroaren 15ean, 19:30ean:**
- Alex Txikon, *Nanga Parbat neguan.*

**Azaroaren 16an, 19:30ean:**
- Josean Mulas eta Mikel Linacisoro, *Una vida en la vertical metodología de escalada para jóvenes.*

**Azaroaren 17an, 20:00etan:**
- Jimmy Chin eta Elizabeth Chai Vasarhelyi-ren *Meru* filma.

**Zinekluba-rekin elkarlana**

Azken urteetan, ohikoa izaten da, Zinekluba taldeko kideen laguntzarekin, egitarau honen barnean gaiarekin lotutako pelikula bat sartzea. "Bere egunean, barriketan geundela, pentsatu genuen egokia izango litzatekeela Mendi Hamabostaldirako pelikula bat ekartzea, hain zuzen ere, gaiarekin lotutako pelikula bat", azaldu du Perezek.

**Argazkiak, erakusketan**

XIII. Mendi eta Natura Argazki Lehiaketako sari banaketa ere egongo da gaur, Cecilia Buil-en hitzaldiaren aurretik. Lehiaketan parte hartu duten argazkiak ikusgai daude dagoeneko kultura etxean.

A sailean –Gizakia Mendian– Xabi Mataren *Texturas* izeneko lanak irabazi du eta B sailean– Mendi Ingurumena–, berriz, Iker Pardoren *Aitzkorriko Hotz Tropikala* lanak. Bigarren sail honetan, Iban Yaniz oñatiarraren *Lurra, Sua eta Haizea Urbian* izeneko argazkia hirugarren sailkatu da.

47 argazkilarik hartu dute parte aurtengo lehiaketan, eta guztira 237 argazki izan dira baloratu direnak.


CECILIA BUIL

## "Hitzaldi hau emateko gogo handiz nago"

**CECILIA BUIL**
ESKALATZAILEA

Cecilia Buil (Huesca, 1973) eskalatzaileak hitzaldia eskainiko du gaur.

**Nola suertatu zitzaizun hemen hitzaldia emateko aukera?**
Alex Txikonen bitartez jarri nintzen antolatzaileekin kontaktuan eta baietz esan nien. Izan ere, oso gustura nago bertan hitzaldi bat emateko aukera dudalako. Egia esan, gogo handiz nago jendearen harrera zein izango den ikusteko.

**Zeri buruz hitz egingo duzu gaurko hitzaldian?**
Arrokan eta izotzean egindako irekieren gainean hitz egingo dut. Orain dela bi urte Piedra Boladan (Mexiko) egon nintzeneko esperientzia kontatuko dut, eta gero, nire proiektu bati buruzko informazioa emango dut, zeinetan kontinente bakoitzean irekiera bat egiteko asmoa dudan.

## Garazi Erostarbe Gipuzkoako txapeldun ziklo-krosean

Caja Rural taldeko txirrindulari oñatiarrak garaipena lortu zuen pasa den zapatuan Arrasaten jokaturiko Gipuzkoako Ziklo-kros Txapelketan, gazte mailan.

Aipatzekoa da bere kategorian lehiatu zen txirrindulari bakarra izan zela Erostarbe. Hala ere, garaipena berea du eta iaz kadete mailan Beasainen lortutako garaipenari segida eman dio aurten.

Erostarberen garaipenaz gain, Aloña Mendiko txirrindulariek ere emaitzak onak erdietsi zituzten Gipuzkoako Txapelketan. Izan ere, hirugarren postuan sailkatu ziren bi txirrindulari oñatiar. Alde batetik, Ander Blazquez, kadete mailan eta bestetik, Andoni Gartzia, master 50 kategorian. Biek ala biek brontzea eraman zuten etxera. Ander Gartzia laugarren izan zen junior mailan.

## Zuazo CB eta CD Urdaneta aurkari eskubaloi taldeek

Barakaldoko Zuazo CB taldearen aurka lehenengo garaipena lortu gura du Iturritxo Taberna Aloña Mendik, sailkapeneko azken postutik ateratzeko, bihar, zapatua, 16:00etan. Bestalde, Izarraitz-Muñoz Aloña Mendik sailkapeneko goiko postuetan mantentzea izango du helburu, Urdanetaren aurkako partiduan –domekan, 12:30ean–.

## Baque Taldea hartuko du etxean Natra-Oñati Aloña Mendik

Sailkapenean ondo kokatuta dagoen Tabirako Baque taldearen aurka arituko da bihar, zapatua, 18:00etan, Natra-Oñati Aloña Mendi, Zubikoa kiroldegian. Sei partidutik bakarra irabazita dago talde oñatiarra. Horregatik, bigarren partidua irabaztea izango dute helburu, azkenengo postu horietatik irten ahal izateko.

## Mendi sailak 2017. urterako federatu kanpaina irekiko du

Aloña Mendiko bulegoetan tramitatuko da txartela, 14an, 16an, 22an eta 24an, 19:00etatik 21:00etara. Internet bidez ere egongo da aukera, *alonamendi.mendi@gmail.com* webgunean. Beharrezko datuak hauek dira: izen-abizenak, jaiotza-data, helbidea, nortasun agiria, kontu korrontea, telefonoa, posta elektronikoa eta euskal federatu maila izatea.



Jatorri desberdineko biktimen ikuspuntua lantzen duten liburuak irakurriko dituzte. OÑATIKO LIBURUTEGIA

# Euskal Herriko biktimen gaineko literatur tailerra

'Euskal Herriko indarkeria politikoaren biktimei buruzko literatur tailerra' delakoa antolatu du Udal Liburutegiak, Udalaren laguntzarekin. Irene Gantxegi Madina (Oñati, 1988) da dinamizatzailea. Izenemate epea gaur, egubakoitza, bukatzen da.

**Leire Kortabarria** OÑATI
Oñatiko Liburutegiak antolatu du honako literatur tailerra, Udalaren babesarekin. Ekimenaren aurkezpena hilaren 15ean, datorren martitzenean, egingo dute.

Irene Gantxegik bere doktore tesia egin du Deustuko unibertsitatean, eta honela azaltzen du berak: "Euskal Herriko indarkeria politikoari buruzko nobelen irakurketak biktimak aitortzen lagundu dezakeen aztertzen dut". Tesia bukatu duen arren, Oñatin egingo dituen saioek gai hori sakontzen jarraitzea dute helburu.

Horrela bada, tailerreko partaide bakoitzak egunkari bezalako bat izango du irakurketa prozesuan eta solasaldietan izandako gogoetak bertan idazteko. Horrez gain, Irene Gantxegik grabatu egingo ditu saioak, bertan azaltzen diren iritziak eta gogoetak "aztertu eta esperientzia honetatik ondorioak ateratzeko".

### Biktima desberdinak

Irene Gantxegiren esanetan, "azken 50 urteetan, Euskal Herrian motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan, gertatu diren giza eskubideen urraketei buruz istorio desberdinak irakurriko" dituzte partaideek. Guztira bi nobela irakurriko dituzte eta bi saio egingo dituzte nobela bakoitzaz berba egiteko. Saioak euskaraz izango dira. Aukeratutako lehenengo liburua Jokin Muñoz idazlearen *Bizia lo* izango da. Bigarrena oraindik guztiz zehaztu gabe dago, baina ziurrenik Iban Zalduak idatzitako *Gezurrak, Gezurrak, Gezurrak* edo Mikel Hernadez Abaitua idazlearen *Etorriko haiz nirekin?* izango da. Gantxegik honela azaltzen ditu irizpideak: "Luzera garrantzitsua izan da eleberria aukeratzeko orduan. *Martutene* edo *Twist* bezalako nobelak oso interesgarriak dira, baina bi saiotan lantzeko luzeegiak; beraz, aukeratutakoek ez dituzte 200 orrialde gainditzen. Azkenik, eta garrantzitsuena, nobela hauek biktima desberdinen ikuspuntua jasotzen dute (pertsonaiak jatorri ezberdineko biktimak dira)".

**BI LIBURU IRAKURRIKO DITUZTE TAILERREAN; LEHENENGOA, JOKIN MUÑOZEN 'BIZIA LO'**

### Ikuspuntu kritikoa

Gantxegiren esanetan, "istorio hauek fikziozkoak izan arren, gizarte honetan gertatutako gertakari ankerren adibide dira, eta nobela hauen irakurketak, biktimek jasandako minaren dimentsiora hurbilduz, indarkeria ikuspuntu kritiko batetik aztertzen lagundu dezake. Zentzu honetan, mota honetako literatur irakurketak gaur egun bake kulturaren sustapenerako oso ekarpen garrantzitsua egin dezakeela pentsatzen dut".

## Film laburren rallyko lanen maila ona txalotu dute antolatzaileek

Oñatiko film laburren rallyaren zazpigarren aldia jokatu zen zapatuan; Guggenheim Productions-ek irabazi du.

**M.A./L.K.** OÑATI
20 taldek hartu dute parte film laburren rallyaren zazpigarren edizioan, joan den zapatuan; 19 izan dira oñatiarrak eta bat bilbotarra. Bigarren saria LPM Productions-endako eta hirugarrena Delarrima taldearendako izan dira. Dwingi Dwingi taldeak eskuratu du publikoaren saria. Saritutako talde guztiak dira oñatiarrak.

Sari nagusiaz gain, emakumezko aktore onenaren saria jaso du Guggenheim Productions talde irabazleko Ainhoa Igartzabalek, eta gizonezko aktore onenaren sailean bi izan dira sarituak, biak ere Gero Pentzauku taldekoak: Egoitz Aizpuru eta Ibai Elortza.

### Urtetik urtera, hobeto

Urtetik urtera indartsu jarraitzen duela argi gelditu da oraingoan ere; 20 taldek hartu dute parte –hori da gehienezko kopurua–, eta inskripzio epea ireki eta bigarren egunerako emana zuten izena talde guztiek.

Antolatzaileek nabarmendu dute aurten inoiz baino lehenago entregatu dituztela lanak. Kalitateari dagokionez, urtetik urtera gora egiten dutela nabarmendu du antolatzaile Aitor Perosterenak: "Azken urteotan, ikusten da taldeek hobeto dakitela zer eta nola egin; hobekuntza bistakoa izan da".

Sari banaketa ekitaldian jendea gustura egon zela eta epaimahaiaren (Anton Aranguren, Martin Jauregialtzo, Itsaso Pol eta Aitor Mantxola) erabakia ondo hartu zutela ere azpimarratu dute antolatzaileek.

Film guztiak ikusteko moduan daude helbide honetan: *www.youtube.com/user/OLR2013.*

## Oñati Abesbatzako kide izan diren guztiei deia

Oñati Abesbatza aurten ospatzen ari da bere sorreraren 50. urteurrena, eta Santa Zeziliarako ekitaldi berezia antolatu du (azaroak 19). Abesbatzako partaide izan diren guztiak gonbidatuta daude. 19:30ean meza izango dute; gero, kontzertua, gaztaina-jana eta afaria. Izen-emate epea zabalik dago Txokolateixan azaroaren 12ra arte.

## Eraso! taldeak 20. urteurreneko kontzertua egingo du

Eraso! taldeak kontzertua egingo du Antixeneko gaztetxean gaur, egubakoitza, 22:30ean. Taldea bere 20. urteurrena ospatzeko bira egiten dabil. Hori dela eta, gaurko emanaldian bere ibilbideko disko guztietako abesti klasikoak eta aski ezagunak joko dituzte: tartean, aurten argitaratu duten *Kaiolatik Ihes* diskoko abestiak ere bai.

## Trikiti jaialdia izango da bihar, Santa Ana antzokian

VIII. Trikiti jaialdia ospatuko da bihar, zapatua, 17:30ean, Santa Ana antzokian. Hauek dira gonbidatuak: Aitor Letamendia eta Harkaitz Lasa; Zabale Anaiak eta Lurdes Alkorta; Josune eta Aitziber Otegi; Elizagoien Ahizpak; Maitane, Jagoba, Josu eta Maitane; Laja II.a eta Narbaiza; eta Ane Irurtzun, Malen Elkoroiribe, Maddi Guridi eta Nora Freire.

## Musikegunak-en barruan, 'Misterioari dario' ikuskizuna

Musikegunak egitarauaren barruan, *Misterioari dario* izeneko ikuskizuna izango da etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:00etan. Musika, poesia eta marrazkia bateratzen dituen ikuskizun hori egingo dute Pello Ramirez txelo-jotzaileak, Jon Goenaga piano-jotzaileak, Josu Maroto marrazkilariak eta Andoni Salamero olerkariak.

# "Orain, borroka ez da nire lehentasuna"

**BORROKA LIBREA** **MAIDER UNDA** BORROKALARIA

30 urtez borroka libreari lotuta egon eta gero –20 urte lehiatzen– Maider Undak eguaztenean esan zuen agur, Gasteizen, kazetari eta kamerez bete zen aretoan

**Xabier Urzelai** GASTEIZ

Erabakia aspaldi hartua bazuen ere, Maider Undari (Oleta, Aramaio, 1977) kosta egin zaio kazetarien aurrean asmoak azaltzea. Urte asko izan dira borroka librea ordezkatzen, Europako eta munduko txapelketetan eta Olinpiar Jokoetan parte hartzen, baina nahikoa dela esan du, beste lehentasun batzuk ditu. Tartetxo bat hartu du GOIENA ALDIZKARIAren galderei erantzuteko.

**Lasaitua hartu duzula esan duzu prentsaurrekoan. Zer sentitzen duzu?**

Erabateko lasaitasuna. Banekien momentu zaila izango zela, trantze hori pasatu beharko nuela, baina beno, egin dugu.

**Zer geratzen da bederatzi urterekin borroka librea jolas moduan hartu zuen neska hartatik?**

Seguruenik, ilusioa. Bizitzan aurrera egiteko ilusioa behar da, eta egia da borroka librean jarduteko ilusioa amatatu egin zaidala, baina gaztetxoekin lanean hasteko ilusioa daukat.

**Duela 30 urte borroka librea ez zen kirol olinpikoa...**

Ez, horregatik diot borroka librea jolasa zela niretako. Eta jolasa izatetik ogibide izatera pasa zen. Beti pentsatu izan dut bizitza honetan aurrera egin behar dela, buruak nahikoa dela esan arte, eta, borroka libreari dagokionez buruak orain esan dit nahikoa dela, ez dudala maila gorenean jarraitu gura. Gorabehera handiak egon dira urte hauetan guztietan, baina beti esaten dut momentu gogorretan ikasi dudala gehien. Gauzak ondo doazenean jende asko egoten da inguruan, baina momentu gogorretan kapaz izan behar dugu autokritika egiteko, eta ondoan nor duzun ikusteko.



Maider Undak irribarre batekin esan zuen agur, emozioei eutsi ostean. X.U.

**2009an Danimarkan jokatutako Munduko Txapelketan lortu zenuen brontzezko domina inflexio puntua izan zen?**

Inflexio puntua 2007an izan nuen, Beijingo Jokoetarako txartela lortu nuenean. Erraza zirudien arren, niretako sekulako lorpena izan zen hura, eta ondoren etorri zen Danimarkako domina. Ondorengo urteetan munduko bost borrokalari onenen artean egon ahal izan naiz, eta horrek segurtasun handia ematen zidan, eta, batez ere, kirol honekiko beste perspektiba bat.

**"ASMOA DA GAZTETXOEI BORROKA LIBREA ERAKUSTEA, JOLAS MODUAN AURKEZTEA"**

**Kasu bitxia izan da zurea, borroka librean ia lizentziarik gabeko lurralde batetik etorrita munduko potentzien kontra borrokatu behar izan duzu, milaka eta milaka lizentzia zituzten lurraldeen kontra.**

Bai, bitxia da. Hemen borroka libreak ez ditu jarraitzaile asko, oso jende gutxi dabil kirol jarduera horretan, eta beste leku batzuetan borroka lehen mailako kirola da. Eta, hala ere, hor daude lortu ditudan kirol emaitzak. Horrek erakusten du benetan zerbait gura bada, lor daitekeela.

**Zure kirol ibilbideko ze momenturekin geratuko zinateke?**

Momentu asko ditut gogoan, ez daukat bakarra. Londresen lortutako domina berezia izan da, baina horrekin baino gehiago, egindako bidearekin geratzen naiz. Bizitako momentu gogorrekin, hartutako erabaki zailekin... Erabaki horiek eraman gaituzte iritsi garen lekuraino.

**Riorako sailkatu izan bazina, gehiago luzatuko zenuen kirol ibilbidea?**

Bada, ez dakit. Urte hasieran lesionatu egin nintzen, ordura arte sekula izan ez nuen zuntz haustura bat, eta horrek hausnartzera eraman ninduen. Akaso, gorputzari komeni dena baino gehiago ari nintzaion eskatzen. Dena dela, Rion egonda ere ez nukeen kirol bizitza askoz ere gehiago luzatuko.

**Rioko Olinpiar Jokoetarako ez sailkatzea kolpe handia izan zen. Orain, beste lehentasun batzuk dituzula diozu, baina borroka libreko araudian egon diren aldaketek ere ez dizute lagundu.**

Gauzak ondo doazenean motibo askorengatik joaten dira ondo, eta gauzak okertzen direnean beste horrenbeste. Egia da ama izatearekin batera lehentasunak aldatu egin zitzaizkidala, baina maila errekuperatzeko gogor egin nuen lan. Araudi aldaketa etorri zen orduan, nire kategoria berrira moldatzeko pisuz aldatu behar nuen, eta lesioak azaltzen hasi ziren; dena pilatu zen hor.

**Urte hauetan guztietan izan duzu dena bertan behera uzteko tentaziorik?**

Ideia erabat garbi ez. Akaso, momenturen baten lasaiago jarduteko gogoa izan dut, entrenatzen jarraitzeko asmoa, baina, niretako, eta ez horrenbeste txapelketei begira... Halakoak bai, baina erabat uzteko asmorik ez.

**Luis Crespok –entrenatzailea– eta biok baduzue harrobiarekin lan egiteko proiektu bat esku artean, baina ez duzue askorik aurreratu.**

Oraindik gauza asko ditugulako zehazteke. Asmoa da gaztetxoei borroka librea erakustea, jolas moduan aurkeztea, eta horrenbeste eman didan kirol honi zerbait itzultzea.

**Horrenbestez, etorkizunean txapeldun handiak izango direnak entrenatzen hastea duzue buruan...**

Bueno, orain arte maila gorenean egonda, ez nuen astirik bestelakoetarako. Orain, denbora izango dut, eta horretan hasi gaitezke. Poliki egin gura ditugu gauzak, poliki eta ondo.

**Kontziente zara emakumezkoen kirolean erreferente bilakatu zarela?**

Orain bai, denborarekin jabetu naiz horretaz. Londresen domina lortu nuenean ametsetan nengoen, baina gero konturatu naiz egindakoaz, emakume moduan borroka librean egin dudan ibilbideaz oso harro nago.

Baskonia – Brose Bamberg

partidurako 4 sarrera bikoitz zozketatzen ditugu

**Azaroaren 17an, 20:30ean Buesa Arenan jokatuko den partidurako.**

***Animatu eta parte hartu!***



**PARTE HARTZEKO (AZAROAREN 14RA ARTE):**
**WhatsApp:** [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!




Donostiako Bulebarrak korrikalari uholdea hartuko du, beste behin, domeka goizean. GOIENA

# Behobia-Donostia probak hazteari utzi egin dio

**ATLETISMOA** Etzi 500 debagoiendar inguruk hartuko dute esku Behobia-Donostia lasterketan –iaz 481 iritsi ziren helmugara–. Azken hamar urteotan lehenengo aldiz 4.000 dortsal inguru erretiratu egin behar izan dituzte antolatzaileek

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Dena dago gertu askorendako urteko kirol erronka izango dena hasteko. Domekan goizeko hamarretan korrikalari azkarrenak lanean hasiko dira Behobian –patinatzaileak ordu erdi lehenago– eta multzoka banatuta 31.000 lagun pasa abiatuko dira Behobiatik Donostiako Bulebarrera. Aurten, baina, maratoi erdi horrek hazteari utzi dio, 4.000 dortsal inguru banatu barik utzi dituzte eta.

**Motiboak aztertzen**

Askok prezio altuari (45 euro) egotzi diote beherakada, baina iazko prezioa berbera zen. Fortuna taldeko antolatzaileek emandako arrazoien artean, berriz, demografikoki *zahartzen* dabilen lasterketa da Behobia-Donostia. Hau da, lehen, ehunekotan, 36-40 urte bitartekoa zen korrikalari kopuru altuena, eta orain 41-46 urtekoak dira; gazteak, horrenbestez, ez daude horren interesatuta –edo ez daude prezio hori ordaintzeko gertu–. Baliteke, baita ere, iazko gertaerek eragina izatea, bero handia egin zuen eta gazte bat hil egin zen helmuga zeharkatutakoan. Aurten beroa ez da arazo izango.

**Yeray Varela aurrean ibiliko da**

Emakumezkoetan azken urteotan bailarako neska azkarrenaren sari sinbolikoak aurpegi asko izan ditu: Nere Arregi, Oihana Kortazar, Saioa Arkonada... Gizonezkoetan, berriz, 2011n Ritxar Fernandez izan zen ibarreko azkarrena –berea da markarik onena, 1.01.40–, baina ordutik beste oñatiar batek hartu dio erreleboa, Yeray Varelak. Eta, domekan irteera puntuan izango da: "Sasoian egoteko goiz da oraindik, urtero pasatzen zaigu gauza bera. Entrenamenduak martxa onean daramatzagu, eta Behobia-Donostia entrenamendu ona da, baina urteko helburuak aurrerago ditugu. Ekainera arte luzatzen dut denboraldia, eta ezin naiz azaroan topera egon".

## 'BSS Safe' aplikazioa

Behobia-Donostia geroago eta seguruagoa izan dadin aplikazio berria sortu dute lasterketako antolatzaileek, Akting Engineering enpresarekin batera: "Aplikazioaren helburua Behobia Donostian parte hartzen dutenen erritmo egokia markatzea da, hain zuzen, lasterketa eguneko eguraldi baldintzen araberako pautak ematea. Aplikazioak kilometro bakoitzean egin beharreko denbora eskaintzen du, erabiltzailearen marka objektiboarekin batera, eguraldia, haizearen eragina eta ibilbidearen gorabeherak kontuan hartuta".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

OHOREZKO ERREG.

**Mondra-Real Union**
Zapatua. 16:30. Mojategi.
**Aretxabaleta-Zarautz**
Domeka. 16:30.Ibarra.
**Ordizia-Aloña Mendi**
Zapatua.16:00. Altamira.

E. PREFERENTEA

**Zestoa-Mondra**
Zapatua. 12:00. Iraeta.
**Lagun O.-Aretxabaleta**
Domeka. 16:00. Azpeitia.
**Urola-Bergara**
Zapatua.16:00. Argixao.

LEHEN ERREGIONALA

**Eibartarrak-Bergara**
Zapatua. 17:30. Unbe.
**Antzuola-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:00. Estala.

OHOREZKO GAZTEAK

**Bergara-Urola**
Domeka. 17:30. Ipintza.
**Mondra-Zestoa**
Zapatua. 14:00. Mojategi.
**Ilintxa-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:00. Legazpi.
**Aretxabaleta-Trintxer.**
Zapatua. 16:30. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK

**Mondra-Ilintxa**
Zapatua. 18:30. Mojategi.
**Bergara-Orioko**
Zapatua. 17:30. Ipintza.
**Anaitasuna-Arizmendi**
Zapatua. 15:30. Azkoitia.

**ARETO FUTBOLA**

EUSKADIKO TXAPEL.

**Miranda-Eskoriatza**
Zapatua. 19:00. Anduva.
**Aretx. UDA-Batzarre**
Zapatua. 17:30. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK

**Eskoriatza-Beasain**
Domeka. 12:00. Manuel M

GIPUZKOAKO TXAP.

**Egarri Tab.-Mondrate**
Gaur. 20:30. Billabona.

**SASKIBALOIA**

EBA

**MU-La Gallofa**
Zapatua. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO BIG. MAI.

**Natra Oñati-Tabirako**
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIPUZKOAK LEHEN M.

**Azkune-Soraluce BKE**
Gaur. 20:00. Donostia.

EMAKUMEZKO SENIOR.

**Eskoriatza-Ordizia**
Domeka. 18:00. Manuel.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAPELKETA

**Urdaneta-Izarraitz Muñ.**
Domeka. 12:30. Loiu.
**Hondar.-Ford Mugarri**
Domeka. 12:00. Hondar.

EUSKADIK. T. NESKAK

**Iturritxo Aloña-Zuazo**
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**Soraluce BKE-Urola**
Zapatua. 18:30. Labega.

**ERRUGBIA**

EUSKADIKO TXAPELKETA

**Bera B.-Kanpanzar ART**
Domekan, zehazteke.

**PILOTA**

**Emakumezkoen Paleta Gomazko Txapelketa**
Zapatua. 15:30ean hasita Bergarako Munizipalean sei norgehiagoka.

## FUTBOLA Mondrak Real Union hartuko du, eta UDAk Zarautz

Bederatzigarren jardunaldia jokatuta lider jarraitzen du UDAk eta domekan bosgarren dagoen Zarautz hartuko du Ibarran. Kanpoan galdu ostean Mondra hirugarren dago, eta taularen erdian dagoen Real Unionen bisita izango du Mojategin. Aloña Mendik, azkenik, Ordiziara egingo du bidaia, bihar.

## SASKIBALOIA MUk eta Natra Oñatik, biek jokatuko dute etxean

EBA kategorian, Burgosen 71-67 galdu ostean MUk etxean jokatuko du zapatuan (18:30) sailkapenena bigarren postuan dagoen La Gallofa CantBasquet taldearen kontra. Euskadiko Txapelketako bigarren mailan, berriz, Natra Oñatik liga hasiera zuzendu gura du Durangoko Tabirakoren kontra, etxean.

## ESKUBALOIA Izarraitz Muñoz Aloña Mendi bigarren postuan

Euskadiko Txapelketan jardunaldiek aurrera egin ahala, oñatiarrak aurrealdeko postuetan egonkortzen dabiltza. Joan den astean Donibaneren gainetik pasa ziren (36-22) eta etzi Urdanetaren kantxara joango dira (12:30). Ford Mugarrik ere ondo irabazi zion Escolapiosi (34-26), eta domekan Hondarribira joango dira jokatzera (12:00).

## MENDI LASTERKETA Ehun lagun jada San Silvestre Trail proban

Abenduaren 31n egingo dute Bergaran San Silvestre Trail lasterketaren –Peugeot Etormobil saria– hirugarren edizioa, eta izen-ematea zabaldu eta 24 ordura dagoeneko 100 lagunek emana zuten izena (*herrikrosa.eus*, 8 euro). Aurreko edizioetan moduan, izaera erabat herrikoia izango du probak; gehienez, 300 lagun hartuko dituzte.




Iazko irabazle Patxi Zubizarreta 2016ko edizioko sari banaketan. JARDUN

# Amodiozko gutunak idazten hasteko unea da

Jardunek antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketak 25.a beteko du aurten eta zenbaki borobila ospatzeko berrikuntzak iragarri ditu; hala, lehenengoz, Amodiozko Esaldien Lehiaketa ipiniko du martxan euskara elkarteak

**Miren Arregi** BERGARA

Jardunek antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketak urteurren borobila beteko du aurten; izan ere, 25. edizioa ospatuko da. Antolatzaileak hasi dira lehiaketaren gaineko zabalkundea egiten eta urtarrilaren 8ra arteko epea izango dute parte hartzaileek gutunak bidaltzeko. Urteurren berezi honetan, Jardunek berrikuntzak ere iragarri ditu; hala, aurten, lehenengoz, Amodiozko Esaldien Lehiaketa egingo du. Egileek urtarrilaren 26a baino lehen bidali beharko dute esaldia, Whatsappez, telefono honetara: 605 71 24 69. Amodiozko esaldi onenaren sarituak 100 euro irabaziko ditu. Irakurle gazteek emango dute sari hori.

**Epaimahaia gaztea**

Hain justu ere, Aranzadi Ikastolako eta Ipintza Ikastetxeko batxilergoko ikasleek osatutako epaimahaiak erabakiko ditu esaldi lehiaketako irabazleak; baita amodiozko gutunen lehiaketako 26 urtez azpikoen irabazleak ere. Epaimahai nagusia, bestetik, iazko irabazle Patxi Zubizarretak, Maite Larburu musikariak, Jon Gurrutxaga bertsolariak eta Maite Franco ipuin kontalariak osatuko dute. Otsailaren 14an jakingo da epaimahaiaren erabakia.

**Arrakasta handiko lehiaketa**

1993an sortu zenetik, arrakasta handia izan duen lehiaketa da amodiozko gutunena. "Euskal Herri osotik jasotzen ditugu lanak. Baita Iparraldetik ere", dio parte hartzaileen jatorriaz galdetuta Jarduneko Maitane Arizabaletak. Eta erantsi du: "Gaia amodioa da, gai zabala, eta amodioak ez dauka zertan beste pertsona batenganakoa izan. Gauza batekiko, kirolarekiko, zigarroarekiko... Askotariko lanak jaso izan ditugu".

**Euskaraz idaztea bultzatu**

25 urte pasatu dira, Jardunek, euskaraz idazteko zaletasuna bultzatzea helburu, lehiaketa martxan ipini zuenetik. Geroztik antzerako lehiaketak sortu dira, baina Bergarakoa da aitzindaria. Gaur egun, helburu nagusiak bi dira Arizabaletaren esanetan: "Alde batetik, euskaraz idaztera bultzatzea, izan euskara batuan zein norbere euskalkian; eta bestetik, gaur egungo teknologiak direla-eta geroz eta gutxiago idazten diren gutunak idaztera bultzatzea".

**2016an, 94 gutun**

Azkenengo lehiaketan, 94 gutun jaso zituen Jardun Euskara Elkarteak. 60 izan ziren emakumezkoek idatzitakoak eta 34 gizonezkoenak. Batutako guztietatik 56 bidali zituzten Gipuzkoatik; Bergaratik 12 eta Debagoienetik 16. Bizkaiatik 25 jaso zituzten, Arabatik bi, Nafarroatik 10 eta Iparraldetik bat. Parte hartzaileen batez besteko adina izan zen, 35 urte.

**2017KO URTARRILAREN 8RA ARTE EGONGO DA ZABALIK LANAK AURKEZTEKO EPEA**

**Edizio berriaren gainean**

Orain martxan ipiniko den lehiaketan 2002an edo lehenago jaiotako pertsonek hartu dezakete parte. Lanek izan beharko dute "jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatzitakoak", adierazi du Arizabaletak. Hori bakarrik ez, lanek gutun forma izango baitute, DIN-A4 orrian eskuz zein ordenagailuz idatzita: "Oraindik ere jasotzen ditugu gutxi batzuk eskuz idatzita, baina gehienak dira ordenagailuz egindakoak", adierazi du puntu honetan Jarduneko langileak.

Aurrez esan moduan, lanak aurkezteko azken eguna izango da urtarrilaren 8a –amodiozko esaldiak bidaltzeko epea, berriz, urtarrilaren 26ra artekoa izango da–. Otsailaren 14an, San Valentin egunean egingo da sari ematea. Gutun onenaren sariaren irabazleak 500 euro irabaziko ditu; bigarrenak 250 eta Bergarako onenaren sariaren irabazleak 150 euro jasoko ditu.

**Iazkoa**

Patxi Zubizarreta izan zen iaz gutun onenaren idazlea; bigarren saria bitan banatu zuten Eneko Barberenaren eta Ainara Elizondoren artean, eta bergarar onenaren saria Ainhoa Pardinak eskuratu zuen. Maria Oses arrasatearrarendako izan zen gazte saileko saria.

## Joxean Artzeren lanik ezkutuenak Arantzazun ikusgai

Arantzazuko Gandiaga Topagunean ikusgai egongo da, gaurtik, poeta usurbildarraren 'Ikimilikiliklik' erakusketa

**Miren Arregi** DEBAGOIENA

*Ikimilikiliklik. Joxean Artzeren Unibertsoa* erakusketa inauguratuko da gaur, Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Besteak beste, San Telmon, Biarritzen eta Usurbilen egon ostean, Arantzazura egin du bidaia proposamenak, "Joxean Artzek Arantzazurekin duen lotura estua kontuan izanda", Arantzazu Gaur Fundazioak uste izan baitu erakusketa hartzeko toki aproposa zela. Zentzumen guztiak adi behar dira erakusketa ikusteko, soinu, irudi eta hitzekin jolasten baitu hark. Hala, ikusleek Artzeren 40 urtetako sormen poetikoaz gozatzeko aukera izango dute ikus-entzunezko ibilbide bati esker.

Joxean Artze bereziki ezaguna da Laboaren *Txoria Txori*, *Gure bazterrak* eta *Zaude lasai* abestien letrak egin dituelako; baita anaiarekin txalapartari gisa aritu zelako ere. Erakusketa honetan, baina, Ez Dok Amairu mugimenduaren garaiko sorkuntza lanez gain, Artzeren aurpegi ezezagunenak ere agerian utziko dira.

Erakusketa ikusgai egongo da azaroaren 27ra arte. Astelehenetik ostiralera 11:00tik 14:00ra eta larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00tik 14:00ra eta 16:00tik 18:00ra.

Bihar, zapatua, bestalde, bisita gidatua egongo da, proiektuaren zuzendarikide Alberto Lizarralderen eskutik. 17:00etan izango da hori. Sarrera doakoa izango da.

## Maria Berasarteren kontzertua, bihar, Arantzazun

Bihar, zapatua, kontzertua eskainiko du Maria Berasarte artista donostiarrak Arantzazuko Santutegian, 18:00retan. Etengabeko aldaketan, bilakaeran, dagoen artistak bere *Súbita* azken diskoa aurkeztuko du. Artistaren hitzetan, diskoa, Donostiako, bere jaioterriko, haurtzaro eta gaztaroaren oroitzapen sakona da.

# Emakume Etxeak eta bertsolariak eskutik

Emakume Etxeen sareak antolatu duen *Testurak* bertso saio feminista egingo dute gaur, egubakoitza, 19:00etan. Ainhoa Agirreazaldegi, Maider Arregi, Nerea Elustondo eta Oihana Bartra bertsolariak izango dira Arrasateko Emakume Txokoko saioan

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Emakume Etxeek sare bat osatu dute berdintasunaren bidean sinergiak sortzeko, koordinatzeko, baliabideak partekatzeko eta erreferentzialtasuna lantzeko. Sarean daude: Arrasatekoa, Azpeitikoa, Basaurikoa, Donostiakoa, Durangokoa, Eibarkoa, Ermukoa eta Ondarroakoa.

Saretze hori irudikatze aldera sortu dute emakume bertsolariekin batera *Testurak* bertso saio ibiltaria. "Uste dugu gero eta bertsolari gehiagok dituztela betaurreko moreak jantzita; era berean, eurek ere ahalduntze prozesuak landu dituzte, eta guk plazarako bidea egiten lagundu behar diegula uste dugu", dio Amets Beltran de Gebarak, Arrasateko dinamizatzaileak.



Ainhoa Agirreazaldegi Eibarren egin zuten 'Testurak' saioan. LANKU

### Idazleen testuekin bertsotan

Testuingurua eta gaia emakumeen unibertsoarekin lotuta daude, baina, egiturari dagokionez, ohiko bertso saioa da. "Emakume idazleen testuetatik abiatuta proposatuko digu Maite Berriozabalek zeri buruz kantatu. Hortik, bada, saioaren izenburua: testuak oinarri, testura eta zapore askotako bertsoak botako ditugu. Bat-bateko saioek sarritan ez dute gaiak sakontzeko aukerarik ematen; testuetatik abiatuta sakonago lantzeko bidea ematen digu. Hala ere, bertsolariok saioa hasi aurretik ez dakigu zeintzuk diren testu horiek", dio Ainhoa Agirreazaldegik.

## Da Vincik amestutako hegoekin eta tresnekin sortutako dantzak

Leonardo da Vinciren unibertsoan inspiratuta dago eta publiko familiarrarentzako da 'Vuelos' dantza ikuskizuna

**A. A.** ARRASATE

Bost urtetik gorakoentzako proposamena da Madrilgo Aracaladanza taldeak Amaia antzokian bihar, zapatua, 18:00etan eskainiko duen *Vuelos* ikuskizuna.

Abiapuntua edo *leitmotiv*-a Italiako asmatzaile eta ikerlariak zuen hegan egiteko obsesioa da. "Askotariko tresnak asmatu zituen ameslaria eta pentsalaria izan zen, eta haren ikurrak ziren ezaugarriak eta abileziak nabarmentzen ditugu: hegan egiteko zuen nahiaz gainera, marrazteko zuen teknika ikaragarria eta naturarekiko zuen maitasuna erakutsi gura izan dugu, besteak beste. Hori guztia irudikatzeko, askotariko materialekin egindako hegalak, makilak, poliedroak eta ispiluak erabiltzen ditugu; eta baita ondo landutako jantziak ere", dio Enrique Cabrera zuzendariak.

### Dantza garaikidea eta gehiago

Balletean eta dantza garaikidean eskarmentua duten dantzariak daude taularen gainean: Carolina Arija Gallardo, Jimena Trueba Toca, Jonatan de Luis Mazagatos, Jorge Brea Salgueiro eta Raquel de la Plaza Humera. Hala ere, ez dute dantzarekin bakarrik kontatzen istorioa; ikus-entzunezkoak eta itzal-antzerki teknikak ere badituzte.



*Vuelos* saioaren une bat. ARACALADANZA


Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubeko azaroko zozketa!**



**Tableta**
Parte hartzeko sariaren izena: Tableta
EROSKI ARRASATE



**Umeentzako jokoa Perretxiko zaindariak**
Parte hartzeko sariaren izena: Perretxikozaindariak



**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ oñatiko kobak



**Otarrea**
**Bidezko merkataritzako produktuak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
www.harremandenda.org Bidezko Merkataritzako produktuak

**PARTE HARTZEKO:**
**E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte–hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

**Irabazi bi lagunendako otordua**

UNZUETA SAGARDOTEGIARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*

*KLUBA Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**

**Izaskun Murgia elkarte lirikoari esker**
*'La del Soto del Parral'* zarzuela ikusteko sarrerak ditugu
**Amaia antzokian, Arrasaten. | Azaroaren 19/20an, 25/26an.**

**Eskoriatzako Udalari esker**
*Tipi–Tapa, Korrika!' ikuskizunerako sarrerak ditugu.*
**Manuel Muñoz kiroldegian, Eskoriatzan. | Azaroaren 19an, 17:30ean**

**PARTE HARTZEKO:**
**E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "*zarzuela*" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte–hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus




*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...




Bazkidetu zaitez: 2016 + 2017 osoa: 55 euro.
Deitu: **943 25 05 05**. *goienakluba.com*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

# ZERBITZUAK

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

#### 101. SALDU

**Bergara.** Etxebizitza salgai Fraiskozurin. Hiru logela, egongela, sukaldea eta nagusiendako egokitutako komuna. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. Dena kanpora begira. Argitsua. 687 57 84 23

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai Errekalde auzoan. 4. solairuan. Eguzkitsua. Harremanetarako: 697 76 15 69 edo 634 49 15 83

#### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Etxebizitza ematen da errentan. Leku onean. Ikuspegi politak. Eguzkitsua. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. 665 72 28 46

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, bi logela, egongela eta komuna. 650 23 10 19

#### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Erdigunean hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Balkoiarekin gurako nuke. 602 64 68 17

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Nagusiendako egokituta badago, hobeto. 632 77 35 38

#### 105. ETXEAK OSATU

**Oñati.** Bi gazte pisukide bila gabiltza. Etxe eraberritua da eta erdigunean dago. 658 86 98 38

### 2. GARAJEAK

#### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Torrekuan. Deitu 11:00etatik 12:30era edo 17:00etatik 18:30era telefono honetara: 653 72 31 58

#### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Bi mutil gaztek etxebizitza hartuko genuke errentan. 658 86 98 38

### 4. LANA

#### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Etxeko langile moduan eta garbiketan arituko nintzateke. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat. 696 30 19 10

**Debagoiena.** 16:00etatik aurrera orduka lan egingo nuke nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egiten. Autoa daukat. Esperientzia eta erreferentzia onak. 678 01 16 09

**Debagoiena.** Elkarteak eta atariak garbitzen lan egingo nuke. Baita mahai -zapiak ere. Baita nagusiei lagundu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiten ere. Lege paperak eguneratuta eta esperientzia. 625 28 38 11

**Debagoiena.** Emakumea gertu lanerako. 13 urteko esperientzia dut jatetxean, garbiketa enpresan aritutakoa naiz, umeak zaindu eta nagusiei laguntzen ere aritu izan naiz, etxeko lanak egiten edota tailerrean. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeak garbitzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 04 17 30

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Dependentzia daukatenak edota bestela. Esperientziaduna. 691 45 23 05

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka lan egiteko prest nago. Zaintzan edota garbiketak egiten edo bai. 679 45 97 18

**Debagoiena.** Etxeko langile moduan eta garbiketan arituko nintzateke. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat. 686 44 70 38

**Debagoiena.** Garbiketak egiten, baserri lanetan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 688 86 22 08

**Debagoiena.** Garbiketak egiten, baserri lanetan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 674 12 22 57

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. 634 14 36 65

**Debagoiena.** Gizona lan bila: denetariko garbiketak, banatzaile eta abarrean. Autoa daukat. 632 77 35 38

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, garbitzaile edota zaintzaile moduan lan egiteko. Orduka edo egun osoz. 638 85 43 36

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko. 17 urteko esperientzia dut. Astelehenetik ostiralera lan egingo nuke orduka. Autoa daukat. 607 72 75 61 (Bego)

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketak egin eta nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizi izaten ere. 631 95 88 06

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketak egin eta nagusiak zaintzeko, orduka. 631 72 71 72

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari, garbitzaile edota zaintzaile moduan lan egiteko. Orduka, etxean bertan bizi izaten edo egun osoz. 654 11 15 14

**Debagoiena.** Sozio sanitario formazioa duen mutila lanerako gertu. Aita Mennin lan egindakoa naiz eta erreferentzia onak ditut. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 634 94 31 59

**Lan bila.** Erizain eta geriatria titulua dut eta zaintza lanetan eta garbiketan arituko nintzateke. Esperientziaduna. 633 12 85 30

### 7. ANIMALIAK

#### 703. EMAN

**Txakurkumeak.** Arratoi txakurkumeak ematen dira opari. 602 45 71 69

### 8. DENETARIK

#### 801. SALDU

**Lursaila Arabako lautada.** Arriolan, Asparrenan, lursail urbanizatua salgai. 1.500 metro koadro. Interesatuok deitu edo bidali Whatsapp mezua zenbaki honetara: 652 76 00 16

#### 803. EMAN

**Eskonbroa.** Oñatiko baserri baten eraberritzean soberan geratu den eskonbroa ematen da. Buztin lurrez osaturik dago gehienbat, baina harria ere badago tartean. Betetze lanak egiteko aproposa. 685 75 07 58

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUA

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Goiena Komunikazio Taldeak**

**INTERNET KUDEATZAILEA**

**behar du Debagoienerako**

**Eskatzen da:**

· Internet jakintza: sare sozialak, webgintza, analitikak.
· Sarean ibilia dela ziurtatzea (Twitter, Facebook etab.).
· Euskaraz ondo idaztea.
· Informatika programen ezagutza.
· Gidabaimena.

**Kontuan hartuko da:**

· Informatika hizkuntzak eta XML, HTML.
· Titulazioa izatea.
· Komunikazio gaitasuna.
· Taldean lan egiten jakitea.

Curriculuma bidali azaroaren 16ko 12:00ak baino lehen helbide honetara: idazkaritza@goiena.eus

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

